

EUSKAL LITERATURA II (2023/24)

UPV/EHU
APUNTEAK



AURKIBIDEA:

1. GAIA: XX. mendeko euskal literatura. Sarrera sistemikoa	2
2.GAIA: EUSKAL PIZKUNDEA ETA OLERKARIAK (1879-1936)	11
2.1 Lizardi	17
2.2 Estepan Urkiaga, Lauaxeta	27
2.2.1 “Itxasora!”	29
2.2.2 Arrats beran (1935):	31
2.2.3 Mendigoixaliarena	32
2.2.4 LANGILE ERAILDU BATI	33
2.3 Nicolas Ormaetxea Orixe (Orexa, 1888- Añorga, 1961).	39
3.GAIA: GERRAONDOA (1937-1963)	40
Jon Mirande	42
“Larunbat arrats”. Jon Mirande. Ilhun argiak	43
Oroituz:	46
LARRAZKEN GAU BATEZ (“the mad pride of intellectuality”) Magdalanae dilectissimae meae	47
OHIKO JAINKOARI	50
NIL IGITUR MORS EST... (ezer ez da orduan heriotza → heriotza ez da ezer)	52
4. gaia: POESIA SOZIALA eta SINBOLISMO BERRIAK	53
GABRIEL ARESTI	53
BETI ESANEN DUT ... (Harri eta Herri)- GABRIEL ARESTI:	56
NIRE AITAREN ETXEA:	60
MAREA-GORA BIZIA	62
MUNDUAREN NEURRIA	63
BILBAOKO KALEAK:	65
Ricardo Arregiren heriotzagatik ahuenetz ilustratua:	67
Gandiaga, Lekuona eta Lete:	72
Bitoriano Gandiaga:	74
1. ETA EURIA:	75
2. ZARPIL:	75
3. OTEIZARI (GANDIAGA, 974) (hiru gizon bakarka liburuaren barruan, baita tirikitrauki... ere).	77
Xabier Lete:	79
1. Nafarroa, arragoa (1974):	79
2. Izarren Hautsa	81
5. GAIA: ABANGOARDIA LITERARIOAK (1976-1986)	82
5.1 ALDIZKARI LITERARIOAK, Panpina Ustela, Pott aldizkaria	82
5.2. Bernardo Atxaga, Etiopia (1978). Poesia modernoaren hirugarren kanona.	84
5.2.1 HAREARENA (Etiopia)	86
5.2.2 HERDOILARENA (Etiopia)	86
5.2.3 KALATXORIAK (Etiopia)	89
5.2.4 LIZARDI (B. Atxaga, Etiopia)	91

5.3 ATXAGA BERRIA:
“Bizitza bizitza da”

93
93

1. GAIA: XX. mendeko euskal literatura. Sarrera sistemikoa

EUSKAL SISTEMA LITERARIOA

Sistema literarioan literatura kontsumo komertziala den aldetik hartzen da. Alegia, nola sortzen dira liburuak, nola sartzen dira liburuak, nork bultzatzen duen produkzio hori...

Euskal literaturaren kasuan, testu batzuk produzitu egiten dira, idatzi egiten dute eta gero editorial abtuzk daude liburu horiek ateratzen dituztenak; gero, banatzaileek liburu-dendetara eramaten dituzte. Produkzioaz, sortzeaz eta distribuzioaz arduratzen dira. Negozioaren parte produktiboa da.

EUSKAL SISTEMA LITERARIOA

PRODUKZIOA	BITARTEKARITZA	HARRERA						
LIBURUGINTZA <table border="1"> <tr> <td>1875-ARTE</td> <td>1875-1975</td> <td>1975-</td> </tr> <tr> <td>% 6,7</td> <td>% 29,5 33</td> <td></td> </tr> </table>	1875-ARTE	1875-1975	1975-	% 6,7	% 29,5 33		AKADEMIA: Irakasleak Autoritate kulturalak	Irakurlea nor? Eskolaren eragina Genien saldutako liburuak?
1875-ARTE	1875-1975	1975-						
% 6,7	% 29,5 33							
IDAZLEAK Adina Generoa	SARIAK							
ARGITALETXEAK 1975tik hona sendotuak	AZOKAK							
ALDIZKARIAK Oso garrantzitsuak 1975 arte	KRITIKA PRENTSA, IRRATI, TELEBISTA, BLOG...							

1875-1975 bitartean euskal literaturaren produkzioan poesia izan zen gehiengoa, trantsizioa etorri zen arte genero errege poesia izan zen. Horretarako arrazoi asko daude, baina garrantzitsuena behar bada, ondorengoa: zergatik zen garrantzitsuagoa poesia genero narratiboa baino? Narratibak eskatzen dituen argitaletxe eta banatze sistema konplexua zen, eta "berandu" lortu genituen. Gainera, euskal eskolak ezarri ziren arte ez zegoen euskal narratibarako publikorik. Nobelak idaztea izugarri kostatzen da, eta ez baldin badago irakurlegorik, biziezintasuna dator. Orduan, aurreneko garai honetan poesia liburuak ugariagoak dira nobelak baino. Esan daiteke genero garrantzitsua dela, poesia gehiago baitago nobela baino. Alabaina, edizio txiki eta laburrakak ziren. Ez zen 300 aletik gorako

alerik egiten. Eskolan pertsona alfabetatuak sortzen hasi ziren heinean, genero narratiboa nagusitzen joan zen. Poesia genero inportanteagoa zen trantsiziorarte, eta trantsizioak (hots, eskolak, euskara publikoa egiteak...) nobelari atea ireki zizkion.

Kuestioa da halako prestigioa kontserbatzen dela poetentzat. Idazleen adinaz estudioak egin ira, baina gaur egun ditugun datuak zaharkituta daude (2000.urtean edo kokatzen dira datu horiek). Gaur egun, indarrean dagoen belaunaldia 50ean kokatzen da eta 60tik gorakoak belaunladi konsagratuak dira. Ugariak 60 eta 40 artean daudenak dira, beraz. Tarte horretan dago "tropela" Iban Zalduak deitu zien multzoa. Multzo ugaria baina nabarmentzea kostatzen zitzaiona. Belanulandi hori ugari xamarra da, eta emankortasuna eman zion literaturari.

Generoaren aldetik emakume poeten kopurua oso baxua da. Oso kopuru baxua emakume poetak, garaikideenak izango dira horiek. Berandukoak dira emakumeen testu liburuak, ez ordurarte poesiarik egin ez dutelako, ezpada libururik egitera iritsi ez direlako. Emakumeen agerpena baxua da. Gaur egun ere proportzioan gutxiago dira emakumezkoak. Euskal sistema literarioa pobrea izan da, eta liburuak egitea kostua zenez, testuak zatika (aleka) plazaratzen ziren.

Euskal idazleek aldizkariaren bitartez eman dituzte testu guztiak, Jon Mirandereren kasua adibide. Argitaletxeak eta aldizkariak beraien ekilibrioan daude. Argitaletxeek indarra eta finantziarioa lortu zutenean beraien bizitza posible izan da. Honen aurretik aldizkariak zeuden, asko elizaren babesean egindakoak. Instituzio publikorik egon ez denean euskaltzaindia bezalako erakunde kulturalak eta elizak babestu dute liburuen publikazioa.

Eskolaren eragina azpimarratzea ezinbestekoa da, honek narratibari atea ireki baitzion. Eskolak euskal literaturaren kasuan eragin nagusia du, gure edizio nagusiak eskolak salbatzen baititu.

Gehien saldutako liburuak nekez dira poesia liburuak, baina sorpresak egon daitezke. Alde batetik, Arestiren *Harri eta Herri* 'best seller' bat izan zen bere garaian, eta beste alde batetik, Kirmen Uriberen *Bitartean heldu eskutik*; azken honen arrazoia Urdangarin izan zen.

Bitartekariak sisteman jokatzen duten funtzioa da gutxien ezagutzen dena. Hauek tartean daude, negozio hauetan **akademia** dira, hau da, gu. Akademiak, eskolak, bitartekari funtzioa egiten du, aholkatu eta irakurgai gisa jartzen diren liburuak gehiago saltzea ekarriko du. Euskal literaturak eskolaren mekanismoarekin dependentzia handia du, ikasleak diren irakurleengatik. *Kutxidazu bidea Ixabel*, euskara ikasten ari diren askok irakurtzen dutenez, euskaltegiek hori irakurtzera behartzen dituztenez, liburu hori gehiago saltzen da. **Instituzioak**, hau da **autoritate kulturalak** edizioak egitea eta ordaitzea aukeratu dezakete, saritzea erabaki dezakete, liburuaren inguruko kluba egin dezaketa... **Sariak** ere efektu hori dute, helburua testu bat goraiatzeko da. Beraz, sistema literarioan ditugun sariak helburu hori dute, testu batzuri prentsa eta erakundearen bitartez garrantzia ematea. **Azokak** (Durango) eta **argitaletxeak** oso lotuta daude. **Kritika** egiten dutenak beste bitartekariak, kritikariek

orientatzaile moduan jokatzen dute, autoreari bere obraren interpretazioak, gaiak... ezagutzera emateko aukera izan daiteke. Beraz komunikabideen bitartekotza bitartekarri garrantzizkoena izan daiteke. Honek argitaletxeekin ere lotura zuzena izan dezake.

EUSKAL LITERATURAREN HISTORIAREN KANONA

- Zein dira euskal sistema literarioaren ezaugarriak?

1 Euskara dialektalean idatzi da euskara estandarra agertu bitarte. 68.78 artean egin zen hizkuntzaren estandarizazioa, ordurarteko literatura dialektoa da. 60tan idatzi zutenek euskara estandarren sorkuntzan lagundu zuten. Euskara batuaren arauak finkatu aurretik estandar moduko bat dagoeneko sortu zela esan daiteke.

2 Euskararen egoera soziolinguistikoak izugarri eragiten du. Giro historikoaren arabera tratamendua du literaturak. Egile gehienek euskararekiko duten konpromenez hitz egiten dute, XX.mendean euskara arriskuan ikusi baitute. Beraien literaturaren tresna nagusia galtzen ikusi dute, eta honen larritasuna isladatzen da. Beraz, euskara gai nagusia izango da, euskararen kezka. Euskal nazioaren, aberriaren gaia ere nagusia eta esentziala izan da, kezka zentral bat zen, gure herriaren etorikizuna zein zen. Egoera soziolinguistikoak 75ean buelta ematen du eta jarrera aldaketa bat dago, honek itxaropen bat ematen du, egoera aldatzeko esperantza agertzen da. Pazientziako gauzak dira soziolinguistikari dagozkionak, baina ikusiko dugun testuetan itxaropenik ez da ageri, etorkizuna ikusteko beste modurik ez dago. Euskal lurraldearekiko gaia ere landu dute, lurren inguruko kezka, Nafarroa adibidez.

Euskal poesian: Euskal lurra, aberria eta hizkuntza dira hiru gai nagusiak.

Poeten betiko gaiak: maitasuna, heriotza, bizitzaren esanahia, natura.

Beste gai dispartsoago batzuk: genero auzia, klase soziala, langileak, idea politikoak...

3 Idazleek ez dute autonomia profesionalik. Idaztetik bizi ahal izateko negozioak funtzionatu behar du. Literatura idaztetik ezin bizi. Gutxi dira idaztetik bizi direnak.

4 Literatura ez da jarduera autonomoa gehienetan. Oso baldintzatuta dago euskal gizartean dauden aurreirizi eta konotazioei. Euskal literaturarekiko konpromezua hartzen duen batek seguruenik euskararekiko konpromezua ere hartuko du. Literaturarekiko hartzen den konpromezua oso militantea da.

BELAUNALDIAK

EUSKAL LITERATURAREN HISTORIAREN KANONA

OLERKARIAK 1926-1936	GUDAOSTEKOAK 1945-1975	ABANGOARDIA 1976-1986	ARO BERRIA 1986-
Lizardi, Lauaxeta, Orixe	Mirande, Aresti, Artze, Lete, Lekuona, Gandiaga, Lasa, Urretabizkaia	Atxaga, Izagirre, Sarrionandia, Cano	Uribe Meabe, Borda
SINBOLISMOA	POESIA SOZIALA, SINBOLISMO BERR.	DADAISMOA, SURREALISMOA,	Esperientziaren poesia, narratibitatea
Aldizkariak Verdes Atxirika	Aldizkariak, Lur, Gero,	Aldizkariak, Pott, Erein, Elkar	

1 Gerraurreko (1926-36) belaunaldia: gerrak eten zuen beaunaldia. Verdes atxirika (abertzaletasun bizkaitarrari oso lotuta)

2 Gudaostekoak (1945-75): poesia sozioala egiten dute. Lur eta Gero editorial xumeak hasi ziren, borondate haundiarekin egindako lanak izango dira.

3 Abangoardia: bi editorial nagusiak garai honetan sortu ziren erein eta elkar

4 Aro berria: joera indibidualagoak. Esperientziaren poesia, intimitate pertsonalagoa eta ezaugarri narratiboagoekin.

29/01/2024

ERROMANTIZISMOA

- IRAULTZA FRANTZIARRA ETA NAZIONALISMOEN HATSARREAK
- UTOPIA SOZIALEN HASTAPENAK
- FILOSOFIA: IDEALISMOA (EDERTASUNA, ONTASUNA, EGIA)




GIZAKIAREN NIAREN ADIERAZPENA

- IRRAZIONALTASUNA
- IRUDIMENA, SORMENA, AMETSA ETA BARNE MUNDU GATAZKATSUEN ADIERAZPENA
- GIZAKIAREN TRANSZENDENTZIA EGARRIA



HERRIAREN ARIMA

- NORBERE HERRI NORTASUNA EZAGUTZEA ETA DESKRIBATZEA
- HISTORIAREN BERRI AGERTZEA
- IRAGANEKO PARADISU GALDUAK BIRSORTZEA



libros Hiperión

PAISAIA ERROMANTIKOA

- Natura indartsu den guneeetan: ekaitzak, itsas-porrotak...
- Espazio zabal eta misteriotsuak
- Iraganeko gaztelu, katedral, konbentu edota jauregien haurrietan



Erromantizismoa: Frantziako iraultzaren osteko garaia da. Aitzindariak ditu XVIII.mendean. Iraultza frantziarra (1789) eta nazionalismoen hatsarreak. Iraultza frantziarra bezalako

iraultza burgesak aldaketa sozialak ekarri zituen. Frantziar iraultzak ekarri zituen aldaketa sozialak: monarkia kendu, hauteskundeen sistema (gizon bat boto bat), eskubide sozialen printzipioak... hau da, gizarte hierarkiko baten amaiera ekarriko du. Aristokraten eta Monarkiaren aurka, iraultza burgesa izan zen. Ideia nagusien artean: hauteskundeen sistema ezarri zuten, eskubide zibilen printzipioa (gizakiak giza eskubideak dituela), gizarte hierarkiko bestelako gizarte baten bukaera da. Mendebaldean agian erdi aroa geroztik eman zen aldaketa nagusienetakoa. Erregerik ez dagoenez, europan zure **nortasuna** zen noren subdito zinen, errepublika zehaztu zenean zein zuten harremana? Hiritar izatera pasatu ziren. Cituaien: eskubide subjektuak gara, giza eskubideen aldarrikapena batera dator iraultzarekin. Erregerik ez dagoenez, herritarrek elkarrekin osatzen dutena Nazio bateko kide izatera igarotzen dira. Nazioaren arabera identifikatzen dira hiritarrak. Batzuetan erlijioak elkartzen ditu. Hizkuntzaren arabera nazioak sortu nahi izan dira.

XIX. mendean nazionalitatearen mugimendua zabaltzen da. Lehendik zeuden nazio garrantzitsuak: Frantzia, Italia... Mugimendu nazionalista ez da hain antzinakoa. Nazionalismoaren mendea XIX.mendea, nazio txiki zein handiak. Utopia sozialen hastapenak: herria hobeto antolatzeko proposamenak. Sozialismoaren, komunismoaren, anarkismoaren... utopiak. Frantziako iraultzako arrakastak beste iraultza batzuk ekarri zituen. Gizarteko antolamendua aldatu zitekeela erakutsi zuen Iraultza Frantsesak. Eta baita gizarte antolakuntza utopikoen ideia hori, utopia komunista, anarkista..... Filosofiaren aldetik, idealismoa nagusitzen da, baina, nbadakigu erromantikoek perfekzio maximoa esnatu zutela "ideala". Ontasun extremo...

Gizakiari dagokionez, subjektu historiko politiko sozial historikoa, hiritarra baldin bada "ni"-aren asuntoaren erdian geratzen da. "ni"-aren adierazpena bilakatzen da adierazpen elepuntu nagusi, alegia, "ni" horren adierazpena. Behin ere onartu ez duen adierazpen horri onarpena ematea baimendu zuen erromantizismoak.

Irrazionaltasunak, gure barnean dauden indarrak, ildo izkutuak, adierazpena eman zion erromantizismoari. Nola? irrazionalaren literatura aditzera emanez. Becquerren *Leyendas*, desirak, gizartearen ezinegonak, literatura ilun hori da. Posibilitate horrek aditzera ematen du gizartearen alde ezkutuak hor daudela egta adierazten direla. Eta gure motibazio ezkutuko askotan daudela indar kontrolagaitzak. Adibidez, pasioa. Erromantizismoak erlijioaren mundua explikatzeke gaitasuna ahul ikusten du. Nahiz eta, badagoen salbuespenen bat, erromantiko kristauren bat.

Erromantikoek **transzendentzia** egarria egiten dute, hil eta gero zulora eta kitto baldin bada, iraganetik datorren beste bizitza bat dugun hori "transzendentziaren ideia" oso zaila da jangoikorik gabeko bizitza bat imajinatzea erromantizismoan. Unibertsoa hutsik dagoela eta hil ondoren beste bizitzarik ez dagoela onartzea oso zaila da beraientzat. Transzendentzia egarria hori mundu hontako bizitzan asetu beharreko egarria bilakatzen da. Bizi ondoren ez badago bizitzarik bizitza honetan bizi behar dugu dena, ez zaie nahikoa iruditzen bizitza arrunt bat eta elementu batzuetan isladatzen du transzendentzia bilatzeko bidea. Pintura erromantikoetan, elementuak: natura (bere konformidade eza natura bidez irudikatu). Zure


burua espiritualizatzeko modu bat bilatzen dute. Paraiso galduen ideia dute, hiriak jendez kargatzen eta makina kargatzen joan ziren, bizitza xarmarik gabea. Zerbait gorago zegoena bilatzen zuten. Adibiderik garrantzitsuenak literatura ingelesean daude, *Arturo*. Horrek, iraganeko paisaian kokatzen dituztela balore perfektuak.

XIX.mendean epika sortzen da, iraganeko epika hori, Eskozian kokatu zen literatura hori. Norbere hiriaren literatura ezagutzea egin behar patriotiko bihurtu zen, bildu, deskribatu eta ezagutzera ematea literatura hori. Helburua, **nortasuna** baduela. Nola egiten dute? kantuen bidez, tradizioa bilduz, ipuin bildumak (Alemanian, Green anaiak). Horrek, konpasidatea ematen dio nazioari. Eta ondorengoei transmititu. Prensak ahozko kulturari kentzen zion bizitzeko posibilitatea, horretaz konturatu ziren. Horri, bilketa mota horri, **folklore** deritzogu (cultura popular). Horren atzean nazionalismoaren bultzada dago. Nazio bakoitzak horrek irauteko egiten duen ahalegina da. Herri kulturaren bildumak egitea XIX.mendeko ezaugarria da. Espainiako folklore tradizioaren bilduma egin zuen Melendezek. Bere emazte Maria Goirik euskal herriko folklore bilduma. Espainiako folklore tradizio erromantzea zen.

Paisaiaren gaia irudikatuz, **paisaia** nagusitzen da beste guztiaren gainetik. Naturaren handitasunak jainkoaren lekua hartu duela. Gizakiak daukan jakiteko ehar hori, eta mundua kontrolatzeko desira hori, leku zabal horietan bilatzen duela. Tipikoak izan dira, paisaietan ruinak agertzea. Zergatik? Hori, herrialdearen istoria erakusteko egin izan da. Herriaren hondakinak erakutsiz, iragan glorioso baten lekukoa erakusten da ruinen bitartez. Eta horregatik paisaietan agertze dira. Jardin erromantikoek horixe dute bereizgarri, naturala balitz bezala erakusten dira, jardin edo parke erromantikokek halako kaos eder bat irudikatzen dute. **Ruinak** izugarri erromantikoak dira.

GIZAKIA

- NI PROMETEIKOA: LORD BYRON
- NI BAKARTUA: WERTHER
- NI ERDIBITUA: WILLIAM WORDSWORTH ETA NERVAL



MAL DU SIÈCLE




MAITASUNA eta ELKARTUEZINA



DENBORA. HISTORIA

- HISTORIA: IRAGANEAN KOKATURIKO GAURKO GATAZKAK
- NAZIOAREN SORRERA
- OSSIANISMOA
- IRAGAN HISTORIKO MITIKOA. WALTER SCOTT



Drama zerbait gertatzen den lekua adierazi nahi du erromantizismoak. Klasizismoa ez bezala, dena geldi eta berdin. Erromantizismoa **aldaketaren** zalea da beraz.

Ni prometikoa: zerbait konkistatu eta aldatu nahia.

Ni bakartua: bakardadean itotzen den pertsonajea.

Ni erdibitua: arruntena, aspirazio espiritualak dituen. Zerbait nahi eta gure ezintasunak ni erdibitua.

MAL DU SIÈCLE

Desesperazioa, bere transtendentzia egarria ase ezina da. Eskuarte duen pistolak suizidioa dakar, desesperazioa. Suizidio kopuruak gora egin zuen, pobreen artean ez bakarrik kultura aberatseko pertsonaien suizidioak ere. Desesperazioa besten zenbaitetan maitasunagatik izan daiteke. Verter emakume batekin maitemindu da baina neska konprometitua dago Verterren lagun batekin, ezinezko maitasun bat da, suizidiora daramana. Errebeldia erromantikoa sarritan XIX.mendean maitasunaren esparruan agertzen zen, horregatik deitzen diogu gaur egun ere maitasun erromantikoa “zurekin ez bada ez daukat bizitzeko gogorik” ideiarri jarraitzen diona.

Bizitzaren transtendentzia, bizitza ona, maitasuna, kasta... Mende horretakoak badirudi adaptatuta daudela jainko gabeko mundura. **Historia:** Erdi aroko giroa. **Ossianismoa:** jatorri zeltako heroia, epepeia baten protagonista.

EUSKAL HERRIAN

- **Maitasun erromantikoa**
- **Paisaia erromantikoa**
- **Historia**

Erromantizismoak folkloreaken bilketa horren ametsa jarraitu zuen. Forma politikoa hartu

ERROMANTIZISMOA EUSKAL HERRIAN



Urkiola 1854 "No queremos dejar de mencionar el memorable acontecimiento que tuvo lugar en la campiña de este Santuario el año 1854 en que el inmortal José María Iparaguire entonó por primera vez en suelo vascongado, su patriótico canto « Guernica-ko Arbola » en presencia de más de seis mil hombres, que al pronunciar las palabras « adoratzén zaitugu Arbola santua » espontáneamente descubrieron sus cabezas e hincaron sus rodillas en el suelo ; cuyo suceso halló eco en el Salón del Congreso de Diputados de Madrid según atestiguan los discursos de Don Pedro de Egoña, Diputado a la sazón por Alava sirviendo desde entonces el armonioso y viril himno como el más apropiado para despertar amor a las instituciones tradicionales del pueblo euskaldun »

Berthé de Vézère y Arco, *Reseña histórica del multibicentenario Santuario de los Santos Antón y Esteban*

IRUDIA ETA SINBOLISMOA



This painting of the Gernikako Arbola is on the back wall of the downtown Fronton (Basque handball court) in Elko, Nevada.

“Gernikako Arbola véritable hymne basque”.

“...le *Gernikako arbola* doit être essentiellement analysé à travers la symbolique de l'arbre. L'arbre est le symbole de la vie en perpétuelle évolution à travers ses feuilles qui poussent et qui meurent pour repousser au printemps suivant ou encore à travers ses fruits. Parmi les arbres le chêne est l'arbre sacré dans de nombreuses traditions, investi en outre des privilèges de la divinité suprême, symbole de majesté par sa taille, synonyme de force (si en français on dit « fort comme un Turc », en espagnol on dit « fuerte como un roble ») et, par son tronc, par ses larges branches, par son feuillage touffu, il est l'emblème de l'hospitalité et l'équivalent d'un temple (11)”. Jean Haritschelhar, (*Lapurdum*, 5, 2000; 309-322)

(11) Jean Chevaller, Alain Gheerbrant, *Dictionnaire des symboles*, Robert Laffont, Paris, 1982, p. 221

IYA GURIAK EGIN DU (186?)



ZUMALAKARREGI

XENPELAR

zuen batez ere. Historiarekin eta nazioarekin lotu ohi dira lan gehienak.

Urkiolan aurkeztu zuen 1854ean Iparragirrek himno hori. *Gernikako Arbola*. Elizan egiten den bezala belaunikaut egiten dira eta txapela kentzen dutela. Biril dela. Garai hartan horrek esan nahi zuen sendoa edota indartsua zela. Las instituciones tradicionales del pueblo euskaldun: Euskal foruak.



Irudiko elementu asko interpretatu ditzakegu: txapel gorria Karlistena, Tropa askok erabilitako kapelak, eskopetaren puntan jartzen zen labana. Erasotzeko daude, foruak babesteko. Arriskuan dagoen zerbaitetaz dabil Iparragirre. Gitarra ere aipagarria da, **erromantikoekin** zerikusia eta euskal herriarekin ere. XIX.mendean Iparragirre gitarjole bezala agertzen da melodia berriekin. Bertsolariengandik urrundu egiten da, metrikaren aldetik ez dabil urruti baina, melodia berriak dakarzki Europatik. Ibilaldiak egindakoa da Europan zehar, eta gitarra ikasi zuen.

Bestetik, bere postura, artzaia, bidaiari bat ematen du, makila bidaiako elementu bat zen, defenditzeko. Postura lasaia du, erlaxatua eta hori bere kasuan bere segurtasuna irudikatzen du, bazekien ondo kaantatzen zuela, kanturako erreztasuna zuela. Berea bidaiari erromantiko musikagile postura da.

Iparragirrek kantua egin ostean alde egin beharra izan zuen, baina kantuak erroak jadanik ezarriak zituen Euskal Herrian, Gernikan. Mundura furltua zabaldu bazuen Gernikako Arbolak, Iparragirreri esker izan zen. Elizan edukiko zukeen posturarekin begiratzen dio arbolari.

Lore Jokoak (1953)

LORE JOKOETAKO GAIAK (1) ETXEA

- Bizia galtzea, eritasunaren etsipena
- Amodio erromantikoa
- Emazteen kritika
- Baserritar giroa etxea

LORE JOKOETAKO GAIAK (2) EMIGRAZIOA

Emigrazioa eta Herri-mina AMERIKA!

LORE JOKOETAKO GAIAK (3) HERRI KONTZIENTZIA

- "Zazpiak Bat esaera, goiburu edo ikurrizaren (gazt. *lerma*, *mote*, *divisa*, fr. *devise*) asmatzailea D'Abbadie bera izan ote zen edo Zaldubi edo Donostiako Euskal-Erria aldiizkarikoren bat edo beste norbait, ziur ez dakit, nik behintzat: Dena dela, euskal poetek eta kargudun edo politikari Euskal Herrizaleek elkar hartuta bultzatu zutela dirudi. Eta Lore Joko edo Euskal Jailetan erabili zuten: poetek festa horietara aurkeztutako kantuetan, eta politikariek beren jendaurreko agerpen, oihu eta protokoloetan. Zazpi euskaldetako euskaldunak lehen aldiz bitzen ziren aldia zen, agian." (Altzibar, Xabier, *Zazpiak Bat* gaia XIX mendean, 1996: 663-668.)

Gernikako Arbolari buruzko komentarioatura.

Arbolaren simbolismoa: **mendebaldean haritza arbola sakratua** da, erlijio kristauetan sakratua da. Doai bereziak dituela esaten da, arbola ederra eta sendoa da eta **babes** handia eskaintzen du. Arbola ederra eta sendoa da, horregatik dauka balio berezia, babesteko

ahalmena, honen azpian jarrita gorde egin zaitezke. **Tenplo** batekin alderatzen da, hau da funtzio erlijiosoak gertatu daitezke arbolaren azpian.

XIX.mendeko erromantizismoaren beste elementu batzuk: bi gerra karlistak, bien tartean urte batzuetako “bakealdia” egon zen eta bakealdi horretan gertatu zen Gernikako arbola deituriko kantua. Zumalakarregi I.gerra karlistako pertsona garrantzitsua.

Lore Jokoak (1853), koinziditu egiten dute Gernikako Arbolaren emanaldiak eta Lore Jokoek.

Beste gertaera garrantzitsu bat XIX.mendean, emigrazioa izan zen. Emigrazioaren errealitatea, iparraldean ugaria izan zen. Estatu batuetara eta mendebaldera: Uruguay, Argentina...

Zazpiak Bat izeneko testu garrantzitsua, “gernikako arbola” izan zen mende erdian, garrantzitsua, mendearen bukaeran, ordea, “zazpiak bat”. Lore-jokoaren testuinguruan egindako gai proposamena. Ikuspegi sozial eta politikoa nolako zen erakusten du. **Zaldubi** poeta. Gernikako arbolan: fedea eta foruak mantentzeko beharra, ez da euskaraz ezer aipatzen. Zazpiak bat: bat gara hizkuntzair esker, iparraldeko eta hegoaldeko batasunaren ideia gauzatzen da, euskara hizkuntza dela hautatua dute, foruen elementua aldatu egin dute hizkuntzaren batasunaren elementuagatik. Gernikako Arbolan ez da hizkuntzari buruz ezer esaten. Hizkuntzak bertebraioa ematen dio Euskal Herriari.



Haritza ematen du zuhaitzak. Nafarroa goian, erresuma baskoia izan zen. Historikoki ondo kokatuta dago, besteek ez zutelako horrelako erresumarik izan. Sei daude, Nafarroa biak elkarrekin, batasuna. Erresuma bat izan zelako eta konkista bidez banatu zen. Koadro sinbolikoan hainbat elementu batu. Haritzak: foruak eta Gernika irudikatu. Eskudoek: lurraldeak. Nafarroaren erresuma azpimarratuz. Ikuspegi historikoa.

ZAZPIAK BAT 1892

- Real Sociedad Vascongada de Amigos del País (XVIII)



Congrès et Fêtes de la Tradition Basque", Donibane Lohitzune 1892

HERRI POETEN EKARRIA

Erregimen zaharren amaiera traumatikoa izan zen euskaldun askorentzat, baina galera ugarien artean ere, hizkuntzari arreta eta duintasun berritua eskaintzea etorri zitzaion.

Eraberriketa horren asmatzaileak d'Abbadie eta Campion bezalako eragileak izan baziren ere, herri-poetei zor zaie hizkuntzarekiko ideia eta jarrera berri horiek alde batetik euren lanetan gauzatzea, eta bestetik herri xeheari eskaintzea, iritzi publikoan zuten eragin zuzenaren bitartez Lore Jokoak bezalako ekitaldiei esker.

Ez nolanahi, garai honetan lekutu da euskal poesiaren instituzionalizazioa kultura eragileek eta eragileok sorturiko talde kulturalak, poesia lehiaketek, aldizkari eta bestelako argitalpenek eraikia" (Lasagabaster 2002: 100-103; Aldekoa, 2003: 11-12;Rubio, 2003: 254-331).

Bijueska, Josu. *Oihenart*. 25, 2010, 177-188.

2.GAIA: EUSKAL PIZKUNDEA ETA OLERKARIAK (1879-1936)

Aro historiogarfiko moduan eta gero literaturari buruz.

Nazio txikien aldarrikapenarekin lotzen da.

Euskal pizkundera mugimendu orokorra foruen galerarekin hasten da. 1879 euskal pizkunderaren hasiera. 1929an bukatu zen Primo de Riveraren agintaldia eta hortik II.Errepublika eta euskal olerkarien mugimendua.

Zer da Euskal Pizkundera? Mugimendu soziokulturala da, ez du politikarekin zerikusirik. Giroa prestatu zuten, osteko, olerkarietzako. Historiakiko zaletasuna, herriaren edota anizioaren iraganarekiko atxikimendua.

Arturo kanpion nafarroaren iraganaren narrazio literarioa berak egin zuen.

Navarro Villoslada, gure izenen jatorria ekarri du. Izenak asmatu zituen, imaginazio legendarista garrantzitsua izan zen ezer ez jakitetik zerbait jakitera igaro ziren euskaldunak iraganari buruz. Egian edo fantasian oinarrituta egonda ere. **Fantasiatzko mundu** horrekin iragan mitiko bat asmatzen da, arrakasta izan zuena. Campionek dokumentuak ditu esaten duenaren oinarrian.

Pizkunde mugimenduaren bigarren datua: aldizkarien ugaritasuna. Aldizkari asko epe motzean ateratzen ziren. Aldizkariak: *Eskualduna* (1887-1944) aldizkari kontserbadorea elizaren babespean egon zena. Zuriak: kontserbadoreak eta gorriak: errepublikanoak. Beraz, aldizkari zuria zen. Bigarren mundu gerraren amaierarekin amaitu zen. Iparraldeko eta hegoaldeko historiografiak ez dute koinziditzen. Hegoaldean 36an bukatzen dira gauza gehienak, gerraondoko aldia hasten da eten handi bat eta gero. Iparraldean data 44a da, II.mundu gerraren amaiera da Frantziari dagokionez, 44ean aldi bat amaitzen da iparraldean. "Gizaldi gaztea" izeneko idazle taldea. J.Barbier, J.Etxepare, P.Lhande, J. Moulier Oxabi... Nafarroako mugimendua indartsua izan zen baina gutxi iraun zuen. *Revista Eúskara* (1877-1883).

Literatur lana garrantzitsuenak eta iraunkorrenak, *Euskal Herria* (Jose Manterola) (hemen idatzi zuten idazle gehienek), *Euskal Aldizkaria* (Gregorio Mujika), Euskal Esnalea (Gregorio Mujika) Euskaltzale (Azkue). Orokorrean iraupen txikikoan dira, garrantzitsuen Manterolaren *Euskal Herria da*, honek izan baitzuen jarraipen bat.

Euskal pizkunderaren lehenengo klabea, historia. Bigarrena aldizkariak, hauek subskripzio bidez izena emanda dutenei bidaltzen zaizkien aldizkariak dira hauek, sistema honek 1960 arte iraun zuen, etxera bidaltzen ziren aldizkariak posta bidez. Euskal pizkunderan Lore Jokoek ere eragina izan zuten. **Euskal pizkunderen klabeak**: 1. Historia 2. Aldizkariak 3. Lore Jokoak

Lore Jokoak festibal moduko bat ziren, festa folklorikoa. Lurralde turistifikatua egiten ziren. Ikusgarriak ziren festak antolatzen zituelako eman zieten euskal literaturari bisibiltatea. Sari bat ematen zuen Anton Abadiak honek garrantzia ematen zioten jaialdiari. Lore jokoetan antzerki lekuetara eraman zituzten eta bertsoaritzari aldaketa eman zion. Formalismo berriak

gehitu ziren bertsoaritzan. Ondorioz bertsoaritzan ere kulturizazio maila bat hartu zuen eta handik garatuz joan zen lehen bertso txapelketa egin aurretik.

Katalunia eta Galiziako mugimenduekin antzekotasunak izan zuen. Aristokrazia **mezenas** bat izan zuten (dirua jartzen zuen jendea). Euskarak izan duen mezenas nagusia Lore Jokoen finantzatzailea izan zen, Anton Abadia. Mende bukaera bitarte, hau da 40 ta piku urtez Abadiren familiak jartzen zuen dirua. Gerora, udalek dirua jarri zuten eta Lore Jokoak leku desberdinetan egiten hasi ziren, Donostian, esaterako, Euskal Jaiak izatera igaro ziren.

Lore Jokoetako poesiaren ezaugarriak: gai jarriarekin egiten ziren. Emigrazio itzela XX.mendearen erdian eta lore jokoetan kritikitzen zen bertsoen bitartez. Hala ere, emigrazioak bertso horiegatik ez zutela zerikusirik. Elizanburuk egindako abestia “Nire etxea” lapurdiko himnoa bezala ezagutzen da.

Gaiak:

- Baserriaren gorazarrea
- Emakumearen irudi tradizionalista, ikuspegi paternalistatik.
- Ohitura txarren kritika (edatea...).

1879tik aurrera, foruak abolitu ondoren, euskarak atzera egiteko aukera oso ebidentea zen. Euskal probintzien sorrera foruek ahalbideratzen zuenez honen galerak euskararen egoera ezbaian jarri zuen. Foruen galera kezka nagusi izatetik euskararen galera edo atzerakada izan zen gai larri nagusia. Beraz, euskara eta forua nabarmendu ziren gai gisa.

Lore Jokoetako idazle eta lan nagusiak.

- Iparraldean: Zaldubi *Gauden gu euskaldun*, Elizanburu *Nire etxea*. Iparraldeko poesian/kantugintzan (momentu horretan gauza bera dira, zabalkundea musikaren laguntzaz gertatzen baita) bi idazle hauek. Poesia dira, ezaugarri kultuak baitituzte, jasoak baitira eta beren obrak kantu bidez zabaltzen dira. Estilo jasoa.
- Hegoaldea: Felipe Arresebeitia, hegoaldeko Lore Jokoetako sari gehienak jaso zituen. Estilo melodramatikoa zue, herritarragoa da, ez dute Iparraldekoek duten maila literarioa. Forua eta euskararen drama hori landu zituen.

- Tradizioaren birbalorazioa: foralismoa eta abertzaletasunaren artean

Kulturaki gizartean gertatzen ari diren beste gertakari batzuk modernitatera prestatzen ari dira. Mende bukaeratik aurrera euskal kultura maila modernoago batean ikusiko dugu, euskal kultura azterketa filologo batetik aztertzen hasiko dira. Zerbait serioagoa izango da.

Ezaugarriak:

- Euskal testuen bilduma egiteko asmo serioa adierazi zen .Ahozko literaturaren bilduma serioa egiteko. Idatzizko bildumetan jasotzeko helburuaz. Manterolak *Cancionero Vasco* (1877-1880) Manterolak kantuak bildu zituen, batez ere Hegoaldeko kantutegiaren biltzailea izan zen Manterola.
- Hegoaldeari dagokionez folklore biltzaile nagusia Azkue da. Euskal kantutegiaren bilduma *Cancionero popular Vasco* (1922) eta *Euskalerrriaren Yakintza* (1935-1947) Ipuinak, kantuak, bertsoak... bildu zituen bertan. Azkuen haurren jolasak ere bildu

zituen. Bilduma folkloriko handia da berea. Euskal kultura aldi berri baterako prestatzen du Azkuek.

- Ahozko ondarearen bilduma da euskal modernitatearen lehenengo helburua.

Sabino Aranek ideologia kontserbadorearen proiektzio modernoa izango da. Euskarari leku sinbolikoa eman zion. Abertzaletasuna euskalduntasunarekin lotu zuen. Hori horrela, lehelengo ikastolen sorrera etorri zen.

Politika aldetik Bizkaiak hartzen duen protagonismo nabarmena. Industrializazioak izan zuen eragina. Espainia Lehen mundu gerran neutrala izatea erabaki zuen, ez frantsesen eta ez alemanen alde. Gipuzkoako kostako herriak indartu, modernizatu... egin ziren. Aro Modernoan sartzeko aukera eman zion. Euskal herriaren berritze aldi handi bat eta Bilbon kokatzen diren mugimendu sozialak garrantzia izango du.

Industrializazioa, nazionalismoa hedatzen den garaia da. Iparraldean xuriak eta gorriak lehia bizian zeuden. Munduko Lehen Gerran iparraldeko euskaldunak, frantsesa ez zekitenak Frantziaren aldeko defentsara joan behar izan zuten. Hegoaldean mugimendu nazionalistaren eraginez euskal kulturaren sendotze indartzen den bitartean Ipar Euskal Herriko egoera kontrakoa da, gerrak euskal kulturaren beherakada dakar.

Lehelengo filologoak: Julio **Urkijo**, Arturo Kanpion, R.M. **Azku**e. Euskal hizkuntzaren deskripzioa egiten ari dira. Azkue gramatika aztertzen ari da eta lexikoaren bilduma (Diccionario trilingue). Urkijo bigarren mezenas handia, aristokata diruduna zen eta bere dirua euskal testu zaharrak errekuertzen ematen zuen Europako ferietan. Euskal literatura zaharraren edizio originalen berreskuratzea zor diogu. Urkijo testu hoi lehen azterle dira, batetik, erosi egiten du. Arturo Kanpion (linguista oso ona) bera da 1933an euskaltzaindiaren enkargua jasotzen duena, euskara batu eredu bat osatu dezan agintzen diote Kanpioni eta Broussain. Kanpionek dialekto literarioen liburu bat egin zuen, euskara batuak tradizio literario bat behar baitzuen, lau euskalki literarioak ondo ezagutu behar zituen (lapurtera, gipuzkera, bizkaiera eta zuberokera). Euskara batuaren bigarren aldian, Mitxelena eta beste zenbaitek egin zutena proiektu honetan oinarritzen da. Filologoena lana garai honetakoa da, honek euskal kulturarako modernizazioaren oinarria eskaintzen du.

Oinarri honetatik dator poesiaren aroa. Sabino Aranarenak ere hemen sailkatu daitezke, adierazpen tragikoak egiten ditu hauetan, baina eragin handia du bere garaiko euskaldunetan.

Folklorea tradizioaren bilketa

Euskara ongi ezagutzera bideraturiko ahalegin filolgoikoa; euskararen estandarizazioa, unibertsitatearen proiektuaren sorrera, eusko ikaskuntza izenez ezagutzen duguna. Garai horretan proiektu berriak sortzen dira. Poesiari aukerak ematen dizkiona, Lore Jokoak eta horitk, Euskal jaia... Euskal Pizkundera, olerkarien mugmiednua izenez ezagutzen dugu.

Aberri eraikuntzaren bidea. Ez du izkututzen nazio propositorekin. Bidea egin: goazen esaten duen moduan, metafora horrekin egitaspora hurbildu nahi du jendea.

2.1.4.Emakumeak kultur gintzan

https://egela.ehu.es/pluginfile.php/8573536/mod_resource/content/1/emabatza.pdf

EAB Emakume Abertzale Batza, EAJ-ren barruan kokatzen da. Erakunde zabalago baten barruan kokatzen ziren. Aldizkarietan idazten zuten. 1922an sortu zen erakundeak. Mugimendu feminista bat ez bada ere mugimendu femeninoa zen. Sedeak zituzten herri eta hirietan. 1932eko aberri egunean parte hartu zuen. Kultur erakundeak beraien izen berreskuratu eta memoria galdua berreskuratu zuten. EAB organizatu aurretik, Pizkundearen garaian publikatu zuten emakumeen inguruko atala du. Bertan Barbier, Gorostiza (Garbiñe, ezizena)... Emakume hauen artean Sorne poeta da garrantzitsua (euskaldun berria, andereñoa...). Garai honetako idazte guztiek ezizena erabiltzen dute, zentsuratik alde egiteko helburuarekin. Emakume idazle gehienak prentsan idazten zutelako, gerora exilioan joan zirelako edo gerora ikastolen sorrerarekin duten loturagatik dira ezagunak. Elvira Zipitria, esaterako, gipuzkoako ikastolen abiatzaile nagusia zen, EAB erakundeak kidea da. Emakume hauek konexioak dituzte eta mugimendu politikoetan mugitzen dira.

Sorne goitueta, militantza politikoarekin oso lotua. Bilbotarra, euskaldun berria andereñoa. Ikastolekin oso lotua. Bere lan guztiak bilduz edizio bat egin da. Bere testuen edizioa ezagutzera iritsi zen, ia 100 urtez bizi izan baitzen.

Errose Bustintza ez dago ideologia eta alderdi politikoekin hain lotuta (Sorne bai). Mañariko ezizenez idazten zuen eta honek asko idazten zuen. Etorkizun handia zuen emakumea izan zen, baina atzerrira joan zenez ezin izan zuen gehiago argitaratu zentsuragatik.

ONINTZE - Pantzeska Astibia

Garai hontako emakumeak, janzkeragatik, orrazkeragatik... emakume modernak direla esaten dugu.

ERROSE BUSTINTZA Mañariko (poetarik onena)

Olerkariak ez dira erromantikoak, baina pizkundeko diskurtsoarekin bat egiten du. Emakume hauek gehienak etxean alfabetatu ziren, mende hauetan (XVIII-XX) euskaraz idatzitako emakumeak etxean ikasitakoak dira. XIX. mendean 1. euskal emakume idazlea Bizenta Mogel, adibide. XIX. mendeko idazleak: ROSARIO Artola, Katalina Elizegi... etxetik ikasiak. Sorne Unzuetak ez dauka euskarariko loturarik, famili burges erdaldunean bizi da. Ideologikoki ordea abertzaletasunarekin bat egiten du, eta euskaldun egiten da, Ikastolako andereño bihurtzen da eta egunkarietan idazten du. Errose Bustintzaren osaba Ebaristo bustintza Kirikiñoren biloba da. Bere inguruko senidei euskaraz alfabetatzen ditu. Beraz, bere literaturarako hurbilketa kazetaritzaren bidez egin zuen, bereziki, kronikak eginez (Durangaldekoak). Bere osabak askozaz gai zabalagoak tratatzen ditu.

OLERKARIAK, Lizardi **(Pizkundearen azken hamarmarkadakoak)**

Kontestu historikoa: **sinbolismoa** deitzen den mugimendu literarioak erromantizismoa ordezkatu zuen, Lauaxeta eta Lizardi honen baitan kokatzen dira. Sinbolismoan bi autore aipatuko ditugu, biak frantsesak, XIX.mendekoa, euskal literaturara mugimendu hau iristerako frantzia dagoeneko 40 urtez izan zen mugimendua da. Baudelaire eta Verlaine izango dira sinbolismoa deritzon mugimenduan landuko ditugun bi idazle frantsesak. Euskal aberriaren lehen formulazioak berak egiten ditu.

Sinbolisten gaiak:

1. Euskal kontzientziaren ernatzea eta iraupena. Gai zentralak reformulatuta daude, aberriaren gaia birmoldatuta agertzen da, proiektua birmoldatzen da eta sinbolismoan iraupenaren gai gisa interpretatzen da.
2. Euskara eta euskal literatura munduratzeari. Poetas renacentistas deitu zitzaizkien olerkariari euskal mundua munduari erakutsi nahi baitzieten, optimismoa behar da honetarako.
3. Literatura gaien tratamendu/planteamendu modernista. Gehien markatzen dituztenak, sinbolismo frantsesa.

Olerkariak euskal pizkunde garaiko poetak dira. Olerkarien unduan ez dira poeta guztiak onartzen. Poetak duade eta horien artean batzuek beraien buruari olerkari deitu zien. Pizkundearen azken 10 urteetan alegia. Mugimendu literario baten barruan kokatzen da. Zenbait ideia, egitasmo eta ideiekin lotuta.

Erakundeak:

1. *Euskaltzaleak*: mugimendu euskaltzaleen artean beti subskripzio bidez antolatzen ziren erakundeak ziren, hau da pribatuak ziren. Borondatezko afiliazio kulturalak ziren. Erakunde hau Arrasaten sortu zen eta lehen sortzailea Lizardi izan zen. Lizardik definitzen du Euskaltzaleak zer izango den. Aktibitate kulturalaren ekintzan talde sendo bat eraiki nahi zuen Lizardik, zenbait egitasmo bultzatu nahi zituen. Egitasmoak: a) Hezkuntza bultzatzea: 1927an esaterako, **Tolosako** ikastola sortu zen eta Lizardik parte hartu zuen bertan. Euskarazko hezkuntza bultzatu nahi zuen. b) Prentsa: euskarazko prentsa lortu nahi zuen, baina ez zen arrakastatsua izan. Gerra garaian Egunak egunkaria atera bitarte ez zen lortu euskal prentsa egonkorrik. c) Literatura: zentzu irekian literatura, antzerkiak zuen garrantzia kontuan hartuz. Euskal egunak egin zituzten, euskal olerkiaren eguna, euskal antzerkiaren eguna... bezalako planteamenduak egin zituzten. Honek lotura izan dezake lore Jokoekin baina hauek ekitaldi espezializatuagoak antolatu nahi dituzte. Laburbilduz, Euskaltzaleak 27an Arrasaten hasi zen eta Donostian gerra sartzearrekin amaitu zen. Antzerkia izan zen aktibitate handiena. **Eusko olerti** (poesia) eguna.

Jose Aristimuño Aitzol, Lizardiren laguna. Ikuspuntu diferenteak izango dituzte. Aktibismo handia izan zuten arren olerkarien munduan. Hala ere, disidentziak zeuden

beraien artean. Aitzol aktibista bat zen, gestiorako doaria zuen. Promotor kultural bat zen edota mezenas esaten dena. Politikariekin hartu emana zuen. Aitzol bera da **Olerti egunak** antolatzen duena, bera ez da poeta bat, berak artikulua idazten ditu. XIX. mendean asmo nazionalistek izan zuten zerikusia literaturan.

XIX. mendean mugimendu nazionalista serio bat hasi zen, horietako leku bat izan zen Finlandia. Finlandian gordetzen ziren kantu tradizionalen bilketa bat egin zuen Lonrott filologo folkloristak eta denak kantutegi baten barruan sustraitu zituen. Nazioaren dokumentu nagusi gisa izendatu zuten lan hau, identitate kulturalarekin oso lotuta baitago **Kalevala** poema folklorikoa. Minoria batzuk ere indarra hartu zuten, Kataluinakoak esaterako. Mugimendu katalanaren berri zuen Aitzolek eta hori Euskal Herrian leku bat eman nahi zion. Nazio baten egitura bat ekarri nahi zuen, instituzioen babesa lortu nahi zuen, hau da, Euzkadi bat sortu nahi zuen.

Euzkadiren ekarpenerako prentsari garrantzia handia eman zion Aitzolek, Lizardik lortu ez zuena. Aitzolek egunkari elebiduna sortu zuen *El dia* (Donostia) izenekoa. Helburua noizbait euskara soilean argitaratuko zen prentsaren eredu izatea zen.

Hiru prentsa elementu nagusi aipatu ditugu orain arte, Iparraldean *Euskalduna*, *Argia*, *El dia* eta *Euzkadi*. Lan hauetan argitaratu zituzten idazleen lan guztiak.

Aitzolek eta euskaltzaleak sortutakoak *El dia* Donostian, ikutu liberala du, elebiduna da eta horren bitartez olerkarien lanak argitara eman ziren. Bigarrena, Yakintza aldizkari kultura, arkitektura, unibertsitatea... Ezagutzera eman dira azterketak, testuak...

Literaturaren funtzio soziokulturalak: debate bat dago. Aitzolen helburua euskal nazioaren eraikuntzarako jendearen ideiak batzea zen, bera agintari nagusiekin harremanean zegoen. Gainera, euskaren ikaskuntzan, prentsan... pausuak azkar eman nahi zituen Madrilen zegoen egoera politikoaren inguruko egoeraren berri zuelako izan daiteke. Lizardik, ordea, literaturari bere aukera eman nahi zion, poetek beren sormen (**sormenari garrantzia**) urratsak motel osatzen zituztela eta gaitasunaren araberako literatura egiten zuela defendatzen zuen. Proiektu batek prozesu kulturala ezin zezakeela azkartu defendatzen zuen. Beraz, Aitzolek presa du proiektua aurrera eramateko baina Lizardik literatura propamatikoki azkartzerik ez zegoela defendatzen zuen, sorkuntza lana artea delako eta artea autonomoa delako.

2.1 LIZARDI

Tolosan eskolapioetan ikasi zuen. Zuzenbide ikasketak egin zituen, Aitzol aldiz apaiz egin zen abertzaletasunaren sehaska zen seminarioan. Barandiaran antropologoa seminarioko irakaslea. Lizardik gaztetan 16 urterarteko ikasketak egin zituen eta aitaren heriotzak unibertsitateko ikasketetarako ateak itxi zizkion. Era ez presentzialean ikasi zuen zuzenbidea Madrilgo unibertsitate batean. Lana Tolosako enpresa txiki batean egin zuen. Hizkuntzak ezagutzera behartu zuen bere lanak, zenbakiekiko kontrola ere eman zion. Ikuspegi errealista eman zion. Bere lehenengo lan literarioak aldizkari abertzaletan argitaratu zituen. Lizardik Maria Agirre izena zuen, Gipuzkoako izenik popularrena zen sasoi horretan. Lizardi ezizena jarri zion bere buruari beste bi ezizenen ondoren. Lehenengo ezizena, Samaiko Zulo. Bigarrena, Zarauztar Sabin.

Lizardiren idazkera, Gipuzkera osotua da erabiltzen duen euskara. Lexiko eta morfosintaxia gipuzkeratik. Bilakaera egiten du, bere irakurketek aurrera egin ahala. **Aranagoiriera** ikasten du. Gipuzkera oinarrian, baina osagaiak Lapurteratik ekarriak. Aranistatik urrundu eta Tradizionalistara hurbiltzen da. Euskara batuan dauden elementuak hartuko ditu. Garbizalea da, Azkueren erara. Euskal hiztegia den erabilera literarioa bultzatzen duen literatura egiten du. Dena = guztia, Lizardik testuan oro erabiliko du. Euskara garbia egiten du, baina ez du Aranaren eredutik egiten, tradizioan erabilitakoak baizik. Beste ezaugarri literarioa, antierromantikoa izan nahi du. Sensibilitatearen aldean, taju sendoagoa duen hizkera bat nahi du. Euskara moderoa erabili eta erromantizismoa atzean uztea. Adierazkortasuna da bere helburua, horretarako hizketaren lanketa handia egiten du. Apaindura erromantikoak etengabe kendu eta hizkuntza gero eta kontzentratuagoa izan dadi egiten du, horretarako, berak lexiko berri bat lortzen du. Expresibo eta literarioki brilantea dena lortu nahi du, hitz gutxitan edukia transmititu nahi du. Ondorioz, erromantikoek ez bezala, metrikan silaba gutxi erabiltzen ditu, metrika arin eta liraina egitea bilatzen du, errima gutxirekin. Liraintasun hau sinbolisten ezaugarria da. Sabino Aranek emandako arauak baliatuko ditu honetarako. Perfekzio formalaren bilaketa da ezaugarrietako bat, modelo moderno bat nahi du rasgo formal erakargarriak dituen modelo bat. Perfekzio formal eta intelektuala bilatzen zuen, sentimenduak zehatz adieraziko zituen modu bat. Poesia erromantikotik alderatzen da. Prentsan asko idatzi zuen eta bere komentario kritikoetan besteen testuak komentatzen zituen eta hauen bitartez dakigu bere zaletasunen inguruan. Estetika berri bat nahi zuen euskal poesiarentzat. Lizardik bere neurria lortu zuen baina atzetik zetoztenek bere neurria imitatzina zela erakutsi zuten, batez ere sorkuntzaren aldetik.

Bere bertsoak beti neurtuak dira eta erritmoa oso garrantzitsua da. Erritmoa ez zuen errimetan ematen, baizi k eta etenetan, beraz **musikalitatea** da bere ezaugarri nagusietako bat.

Batzuek (Aitzol eta Jauregi) bere lana abanguardista gisa sailkatu zituen, hau da berritzaile gisa sailkatu zuten. Lauaxetak ordea, klasiko gisa sailkatu zuen, bere garaiko estetikaren eredu bilakatu zitekeena dela defendatuz, Lizardiren poesia Olerkarien garaiko pentsamendua eta gaiak ondoen espresatzen dituen idazlea dela

argudiatzen du. Erromantizismotik eta sentimentalismotik urruntzen da, baita poesia garbizale aranista hartatik ere. Honek hizkuntzaren elaborazio handi bat dakar. Literatura klasikoen ereduari erreparatzen badiogu Lizardik Ohienarten tankera duela esan daiteke hizkera oso elaboratua baitute biek.

LIZARDI PRAKTIKOA

Eusko bidaztiarena (bidaiari): euskarak mundura zabaltzeko daukan saiakera renazentistaz ari zaigu. Asmo renazentista bat du munduak euskararen berri izan behar du, horretarako Etxepare aipatzen du. Beste hizkuntzen errenazimendu garaian egiten dutena euskarak XX.mendean egingo du. Unamunotat mikeli erronka bat egiten dio. Paratestuaren aldetik, Etxeparearen hitzak eta erronka aipatu behar ditugu. Hauek ez dira XIX.mendeko euskal poeta negartiak. Erasotzaileak dira, euskara kultura hizkuntza izan daiteke. Desafio bat dago eta desafio horretan jarrera, hau olerkariekin ikusten dugu. Izenburuak ikusten ditugu, honek poema estrukturatu baten aurrean gaudela erakusten digu. Izenburuak aztertuta, garbizalea dela ikusten dugu, Bidaztiar dei (bidaiarako deia). Iparraldeko lexikoa oso bereganatua du, Axularren irakurle fina denez Axularren koadernoetako hitzak agertzen dira bere lanetan, Lapurtera klasikoa ikasten jardun zuen “yoria”. Poema honen metafora edo alegoria bidaiarena da, munduri bira emango dion bidaia, subjektua poeta da. Euskal literaturaren inguruko hausnarketa bat da, hau da poema metaliterario bat da. Lehen poeman berarekin bidaiari joan dadin dei egiten dio euskarari, metafora honetan maitasun eskema bat planteatzen da. Metafora bidaiarena da baina ezkon bidaia da, konpromezua adierazten du, poetak euskararekin duen harremanaren berri ematen digu horrela. Berak euskarari maite duen emakume bati hitz egiten dion bezala ari zaio. Atzizkiak kimatu egiten ditu, “ezkon(gai)/(kide)”, ezkon ez da euskal hitza baina berak horrekin adieraziko du esan nahi duena atzizki eta deklinabideek hitzari jartzen edo txertatzen zaion zama kenduz, lizentzia poetikoen aldetik lizentzia ugari eskuratzen ditu. Hitz-elkarketak egiten ditu atzizkiak kenduz, atzizkiak kentzen dizkio. Lehenengoetan oso erritmikoa da. Euskara bidaiara gonbidatzen du. Bigarrenean lore deitzen dio euskarari, lorea maitasun poemetan neska da eta hemen ere hari beretik doa. Larre-lore gisa aipatzen du, hau da libreagoa, “silbestre”. Honek euskara landugabea dela iradokitzen digu, larre-lorea dela. Maitasunaren eta kontzeptuaren metaforak daramatza. Hirugarrenean, Oro-mintzo, poema zati hau da ospetsuena, deklarazio bat da horregatik hasten da “baina” batekin. Kultuaren kontzeptua “jakite-hegoek igoa”, bidaia hegalari bat proposatzen du, hau da, kulturaren hegoek igoa. “noranaikoa” unibertsala esan nahi du hitz honekin. Tradizioa eta euskal kultura ezagutu baina proiektu berri baterako prestatu nahi du.

Lizardi abangoardista eta molde berritzaile bezala ikusiko dugu. 3 gai nagusi jorratu izan zituen Lizardik:

- 1) **Euskal iruditeria eta sinboloaren ingurukoak** (sinbolikoki esentzialak deritzegunak, alegia = (euskal nazioaren **gai esentzialak**): aberria, hizkuntza,

euskal kulturalak. Planteamendu horien inguruan idatzi zuen, eta bere testu nagusiak horien ingurukoak dira. Hiruak pak bat dira berarentzat, eta batetaz ari denean bestea ere sugeritzen du nolabait.

- 2) **Naturaren poemak** dira Lizardiren poema sarituenak. *Urtaroak ene begietan* poema multzoa. Vivaldiren lau estazioak moduan. Azaltzen dituen gauzengatik ibilbide fisiko ezaguna, Tolosatik Urkizurako ibilbidea urtaro ezberdinetan. Paseo mendialdian naturan somatzen dituen aldaketak. Neurri batean, bizitzaren ziklo baten hausnarketa egiten du. Naturari, beraz, sinbolikoki begiratzen dio. Arbolaz ari denean bere bizitzaz ere pentsatzen du. Kanpoko gauzez ari denean bere baitako munduaren sinbolo bezala irudikatzen du. *Urtaroak ene begietan* poeman Lizardik gaixorik egotea eta heriotzan pentsatzea egiten zuen. Beraz, hemen ere bi gauzak (natura eta bizitza) pak batean. Lehenengoak gai esentzialak baziren, hauek **gai existentzialak** lirateke. Bizitza eta heriotzaren azalna naturaren bidez.
- 3) **Gai biografikoak**. Bere inguruan gertatutako gauzen hausnarketa; hala nola, bere umea urtebete betetzerako heriotza. Gai bati aurre egiten ari da, nola egin aurre haur baten heriotzari. *Agur* poeman gaitz mentalen buruzko hausnarketa (biografikoa?) ere badago. Sugeritzen du bere laguna erotu ez ezik bere buruaz beste ere egiten duela. Oso testu hunkigarria da, lagun zarauztar batena, eta testuan pertsona baten gaitzak okerrera egin ahala nola aldentzen den ingurukoengandik azaltzen da.

Bere testuak klasiko eta ikoniko bihurtu dira, batez ere gai esentzialak lantzen dituenak, eta horregatik horiexek ikusiko ditugu. Lizardi abangoardista da. Abangoardista dela esaten da aurrekoekiko zerbait berri edota hautsi egiten delako. Euskal Literaturan hausturarik ez da gertatu. Abangardia haustaileak Atxaga eta Sarrionandiarekin bai. Hauek erromantizismoa alde batera laga nahi dute, baina tiratzen jarraitzen dute, irakurlegoaren menpekotasunarengatik.

Ez du bere garai-garaiko abangoardistekin bat egiten. Aurreko mugimenduei heltzen die: sinbolismoa. Izan ere, euskal abangoardiak “*petit*”-agoak edo dira, hemen berria dena frantzian dagoeneko zaharra baitzen.

BAUDELAIRE poeta frantsesa, erromantikoa izateari uzten dion lehen poeta da. “Fleurs du mal” 1857. La nature lehen hitza, sinbolistak irakurtzen duen errealitatea. gauza abstraktuei buruz pentsatzeko errealitateko gauzeekin ulertu, sinbolikoa. Errealitatearen formak eta ezaugarriak baliatzen dira arlo sinbolikoetatik. Errealitate natural hori errealitate konfusoa egiten zaigu, ez dago argi esaten dena. Gure errealitateak modu sinbolikoan interpretatzen ditu poeta sinbolikoak, eta horretarako asko erabiliko ditu elementu fisikoak, errealitatearen pertzepzioak interpretatzeko lagun dezaketenak. Erromantikoen hizkeratik alduko dira. Poema sinbolistak elementu deskriptibo asko izango ditu (usaiak, koloreak...), eta

emotibitate moderatuagoa izango dute. Naturaren aproximazio sentibera egiten dute, eta interpretazioa egiteko obserbazio horietatik abiatuta. Ez da hain emotiboa, kontrolatuagoa da.

Charles Baudelaire:

FLEURS DU MAL 1857

La Natura es un templo donde vividos pilares
Dejan, a veces, brotar confusas palabras;
El hombre pasa a través de bosques de símbolos
que lo observan con miradas familiares.

Como prolongados ecos que de lejos se confunden
En una tenebrosa y profunda unidad,
Vasta como la noche y como la claridad,
Los perfumes, los colores y los sonidos se responden.

Hay perfumes frescos como carnes de niños,
Suaves cual los oboes, verdes como las praderas,
Y otros, corrompidos, ricos y triunfantes,

Que tienen la expansión de cosas infinitas,
Como el ámbar, el almizcle, el benjuí y el incienso,
Que cantan los transportes del espíritu y de los sentidos.

Idea nagusiak; sinbolismoak sentsozialitate handia duela, errealitate horretatik interpretazioak egin behar ditu. Baina, mezuak ez dira argiak. Sinbolismoko fenomeno nagusiak sinestesiak izango dira. Sinbolismoa hontan dago, alegia, gure bizitzako errealitatea modu sinbolikoan adierazten ditu. Horiek, interpretatzeko, koloreak... Hauek etengabeko obserbazio honetatik irdumien handia dakarte, erromanikoek ez bezala. Elementu deskriptibo asko dituzte. Usainez, kolorez... hroien bitartez transmitituko dute. Maite dituzte, konparazioak, esklamazioak, adieraztea kexua... emotibidade handi bat erromanikoek. Hauek, naturaren aproximazio sentibera, eta interpretazioak egiterakoan neurri batean obserbazio horren detaileetatik egiten dute bidaia. Jokaera ez da hain emotiboa.

Paul VERLAINE 1844 - 1896

ART POÉTIQUE

De la musique avant toute chose.
Et pour cela préfère l'Impair
Plus vague et plus soluble dans l'air.
Sans rien en lui qui pèse ou qui pose.

Il faut aussi que tu n'aïles point
Choisir tes mots sans quelque méprise :
Rien de plus cher que la chanson grise
Dù l'Indécis au Précis se joint.

C'est des beaux yeux derrière des voiles.
C'est le grand jour tremblant de midi.
C'est, par un ciel d'automne attédi,
Le bleu fouillis des claires étoiles !

Car nous voulons la Nuance encor,
Pas la Couleur, rien que la nuance !
Oh ! la nuance seule fiancé
Le rêve au rêve et la flûte au cor !

Fuis du plus loin la Pointe assassine.
L'Esprit cruel et le Rire impur.
Qui font pleurer les yeux de l'Azur.
Et tout cet ail de basse cuisine !

Prends l'éloquence et tords-lui son cou !
Tu feras bien, en train d'énergie.
De rendre un peu la Rime assagie.
Si l'an n'y veille, elle ira jusqu'où ?

O qui dira les torts de la Rime ?
Quel enfant sourd ou quel nègre fou
Nous a forgé ce bijou d'un sou
Qui sonne creux et faux sous la lime ?

De la musique encore et toujours !
Que ton vers soit la chose envolée
Qu'on sent qui fuit d'une âme en allée
Vers d'autres cieux à d'autres amours.

Que ton vers soit la bonne aventure
Eparse au vent crispé du matin
Qui va fleurant la menthe et le thym...
Et tout le reste est littérature.

ARTE POETICA

Prefiere la música a toda otra cosa,
persigue la sílaba impar, imprecisa,
más ágil y más soluble en la brisa,
que -libre de lastre- ni pesa ni posa.

Que vuestra palabra tenga un indeciso
y equivoco paso, si lo decidís.
Nada más hermoso que la canción gris,
donde lo indeciso se une a lo preciso.

Detrás de los velos, las miradas bellas.
En el mediodía, una luz que oscila.
Un cielo de otoño templado perfila
un confuso azul de claras estrellas.

Matiz, claroscuro, veladura sola.
Nada de color. Solo los matices.
El matiz compone parejas felices
entre sueño y sueño, entre flauta y viola.

Aleja de ti la punta asesina,
la gracia cruel y el rictus de hielo,
que harían llorar los ojos del cielo
con todo ese ajo de mala cocina.

Coge la retórica y amardézala.
Sujeta la rima, y dale sentido
a esa carambola de vano sonido,
que, si la dejamos, ¿hasta dónde irá?

¡Ah, la sinrazón de la pobre rima!
¿Qué párvulo sordo, qué negro mocheles,
nos forjó esa joya de cuatro reales
que suena a oropel hueco con la lima?

La música siempre, y en tono menor.
Que tu verso sea fugaz y suave,
sutil y ligero, como vuelo de ave
que busca otros cielos y otro nuevo amor.

Que tu verso sea la buena ventura
esparcida al aire de la madrugada,
que huela a tomillo y a menta granada...
Todo lo demás es literatura.

VERLAINE- Art poétique

Bere garaiko ideia poetikoak bildu eta kontatzen ditu, funtzio metaliterarioa beraz. Testu honetan pomeaz ari da. Bodelerrekiko alde bat, musikalitateari emango dion garrantzia izango da. Natura interpretatu, bere elementu sensorialak deskribatu eta haien arteko korrespondentziak kontuan izan interpretaziorako. elementua, Verlainerentzat (aurrekoaren jarraitzaile da baino berrikuntza bat dakar), poesiak musika izan behar duela da. Poesiak musika bezalako harmonia bat sortu behar du, harmonia arin eta sutil bat. Refinamendua da ezaugarri bat, eta figura delikatuak dira (Kolore delikatuak, kolore bizi eta ahulen konbinazioa). Verlaine, Espainian modernista deitzen diogun horietakoa da. Espainian modernismo deritzona Frantzia sinbolismo deritzonaren garaikide eta pareko dira (machado, adb.)

ASABA ZAHARRAREN BARATZA:

Asaba: antepasados

Nire arbasoen baratza, sinbolikoki pentsatzen, aberriari buruzko ipuinen bat kontakoa da.

1.an espazio baten atarian dago. 2.ean sartu egiten da. Oroimenak datorzkio, lehena eta oraina nolako ziren? (lehenago beti ederrako, lehenago haurrago, gazteago eta ilusinatua garelako). Iraganaz pentsatzen du. Orainaz, aldiz, laugarren atalean, eta 5.ean, etorkizunaz. Kasu honetan, aberriaren ataria, oraina, lehena eta etorkizunaz aradia. Ideia baten narrazioa egiten digu. Horretarako, ordea, ipuin konkretu bat egingo du, gure emozioak dantzan jarriko

dituena eta gero alde sinbolikotik helduko diona: *etorkizun hobe bat dugu bidean eta ekin egin behar diogu*. Bere ideiak aberriaren eraiketa izaten jarraitzen du.

Testu honetan, *agur* poeman bezala, formulazio konplexuenak egin zituen. Hizkuntzari, beraz, arreta eskaini behar zaio. Ikuspegi negatiboan sinbolikoki ikuspegi positiboa.

I – Atarian

joka nagokik → (hika) baratzari ari zaio. Baratza kanpotik ikusitakoaz deskribatzen du, sentorialki: baserri-pareta zahar bat, huntzadun hormak, baserri babestua. Paretari lehen argiak ematen zion, orain ez.

“ni” bat dago, ate joka itzultzen dena asaba zaharren baratzera. Zerbaiten balio eta estimua diola adierazten du, apreziatiboa da, hori maite zuela esateko. Kontzientzia txar batetik (hotzaldi) itzultzen da.

2. parrafoa baratzako ateari dago zuzendua, eta atea luze samar deskribatzen du. Sinbolismoaren ezaugarri bat da hori, sentorialki atearen ezaugarriak deskribatzen baititu: kolorea gorria dela, materia zurezkoa dela eta egur hori ustela dagoela. Ateak, beraz, iradokitzen du barruan ez duela ezer onik aurkituko. Barraskiloen kontuak abandonoa iradokitzen digu. Dirdaitsua dela digu, lika dela, nazka emango digula, baina kolorea gorria, dirdira batzuk dituena. Beraz, sentorialki argia, kolorea, zartatua... deskripzio bat egiten du. Estetikoki **edertasun melankolikoa** ematen dio ateari, ruinen edertasuna.

3. parrafoa oso-osorik amonari eskaintzen dio. Galdera erretorikoarekin bukatzen du sarrera, intriga sortuz, baratzaren jabearen aipamenarekin. Epiteto bat erantsi dio: *xarra* afektu baten adierazpena, palatala. Bigarren epitetoa: *baratzai* (baratza zaintzaile (<artzai)). *marrubi-lapur nenkusanetan*... Bera umea dela ikusten da marrubiak hartzen eta jaten harrapatu zuela, eta oihu egiten ziola.

Efektu sentisial asko daude parrago honetan, sentrazio hauek ikus baititzakegu: kontrolatzailea dela (*zazpi begi*), soinuak (amona bullaka), marrubia (elementu estetikoak, kolore erakargarria eta gozotasuna, umearentzat erakargarria).

Horregatik azken galdera: Bizi ote da? izan ere, bizi bada, nola egongo da ba atea hain ustel?

II - Sarrera

Figura erretoriko ahaltsuak agertuko dira.

Aurrena bere memoria arbolak betetzen dituzte, baina bera sartzean, txoriek hegan. → Errealitatearekin topo egitean, memoriak alde egiten du. Zahartzaroan umetako oroitzapenek ihes. Aditz gutxi eta hitz bakoitzak funtzio jakinak.

2. parrafoan txorien metaforarekin darrai. Oroitzapenez ari da, txoriez. *barru-muineko gauean* → metafora: bere barruan (baitan, intimitatean) iluna da nagusi, gaua da, konfusoa

da, oroitzapenak heltzen direneak, nahasi egiten dute. *su itzalitzako gar gorri...* → oroitzapen argiago bat.

Metrikaz dihardugarik, **Sabino Aranaren arau metrikoak:**

- Araua: sinalefak egin behar dira derrigorrez. Alegia, bokalak elkar jotzen dutenean elkartu. Lizardik beti betetzen du eta Lauaxetak ia beti. “h”-ek ez dute kontatzen.
- Diptongoei buruzkoa. Diferentziatu egiten dira: euskarazko diptongoak (beheranzkoak → ai, ei, oi, au, eu, ou, ui, ou) onartzen dira, eta, goranzkoak, berriz, ez dira onartzen. Beheranzkoak dira sinalefan egin behar direnak.
 - Salbuespenak: euskalkietako bariabreak. Hau da, hitz batek euskalki batean hiru silaba baditu eta bestean bi, idazleak hizkerak konbina ditzake. Lizentzia bezala onartzen dira.

Lizardik bokal luzaketak eta mozketak baliatzen ditu. Egitura sintaktikoak bihurrituak dira metrika jakin bati jarraitu behar diolako. Eta/ta. Beraz, salbuespenak erabiltzen ditu, eta horiek lizentzia metrikoak dira: apokopeak: hitzak laburtzea (eta/ta).

Ahapaldi honen egitura: **10 8 8 10 8** ; eta ahal duen guztietan 5eko etena egiten du, alegia, 10ekoa 5 eta 5. Euskal literatura kultuan mugagabearen erabilera ohikoa da, eta Lizardik lizentzia hori baliatzen du.

4. ahapaldian, lehenengo lerroan, esklamazio literarioa: (*[hau da] gauaren epela /) urte joanen zitala*). Adjektibotzat duguna guk sustantibotzat dute euskara hartakoek, izen funtzioa du (*epela* > *epeltasuna*). Forma literario oso dotorea. Egitura testu hau dago, euskara zaharraren tradizioa itsatsi nahi duelako beren testuetan. Beren garairako ere nahiko zaharkituak zeuden, baina garai honetako idazleek berreskuratu egin nahi zuten erabilera hori eta horregatik dager testu hauetan.

III - Lehena

Hemengo ardatz nagusia desenkuentroa da: amona, ez nazu ezagutzen? ni halakoa naiz. Euskal transmisioaren haustura eta galera islatzen du gaitz mentala garatu duen alzheimerrak (eta garai hartan erotze prozesutzat hartua). Dramatismoa ematen dio testuari. Lehen atala emakume horri dedikatua dago guztiz.

alderoka: herrenka, balantzaka... Subjektua da heriotza, beraz, heriotzaren fantasmak laguntzen dio besotik. Amonak heriotza hurbil daukala esateko erabilera oso poetikoa da, adierazgarria; ez da bere buruaz gidatzen, baizik eta heriotzak dakar.

Bigarren ahapaldian Apostrofe bat dakusagu, amonari hots egiten baitio. *zahar* hitzak ez du esan nahi euskaraz esan nahi duena; berak dio biloba hitza ondu egin dela, denborak ondu duela, *zaharrak* “denbora” esan nahi du. Zergatik darabil hori? Bada, silaba kopuruarengatik. Berez adj. dena sust. bezala darabil, eta gainera, esanahia desplazatu du. Behartu egin du. Fortzatua da. Funtzio morfosintatiko aldatzeari eta esanahia desplazatzeari **enalage** deritzo. Hitza fortzatuta dagoela esan nahi du.

Hirugarren ahapaldian apostrofea bukatu eta kontatzen hasi da berriro ere. Morfosintaktikoki dena aldatuta eta fortzatuta dago: hildakoei hoska hasi da. Ume bat bezala bihurtu danez keo, menpeko darabi lehenaldiak. Oso modu lirikoa. Subjetu bat dago bera baino goragokoa eta menperatu egiten du (iraganak), *heriotzak dakar besalagun*-en bezala. Amonaren pertsonaia oso ezbalitua eta ezgaia erakusten digu, beraz. *lurrak irentsi-lagunak* = hilda daudenak. Sintaktikoki, elipsi bat dakusagu: lurrak irentsi (dizkion) lagunak. Erlatibozko Perpausa da, aditza falta baita, erlatibozko egitura egiten duen -(e)n-erekin batera; eta iparraldeko egitura bat da. Lizardik ez du gipuzkeraz idazten. Euskararen morfosintaktismoaren aldetik, lizardik handik eta hemendik hartu zuen, konpresio lan handia egiten du. Esaldi nagusi trinkoak bata bestearen ondoren jartzen ditu lokailurik gabe. Efektu sintaktiko bat du: **asindetona** (honen kontrako figura: **polisindeton**): Lokailuak ez ipintzea, eta esaldiak bata bestearen ondoan apoiatu. [*haurtzaroko lurrak irentsi-lagunak...*] → **zangalatraba** (lerro batean hasi esaldia ta hurrengoan bukatu). sitsa = polilla = kalea. Denborak sitsak bezala izorratzen du adimena.

bainintzan → literaturan lehen aldiz konparaketa estruktura hauek lehen aldiz garai honetako poetek hartu zituzten hegoaldekoek. Fenomeno ezaguna: euskaldunak direnak baina urte luzeetan euskara alde batera utzita zeuzkaten pertsonak aro honetan euskaraz bakarrik egitea. Harritu egiten dio euskaraz egiten diolako.

Begiak askotan errepikatzen dira, metafora bat dira. Gorago sua, eta hemen tximista. Bi elementuen arteko diferentzia bat iraunkorra dela eta bestea segundu bat irauten duena. Tximista iragankorra. Tximistaren ahapaldia. bi ezaugarritan karakterizatu da emakumea:

- begirada. Bere enpeñua begien kontaktua lortzea.
- Mugimendu zoroa. Bere kabuz ez dala ibiltzen, amari eta aitari deika hasten dela, hildakoei deika... Heriotzaren egarri → Metafora: Hil nahiez, hiltzea eskatuz.

IV - Oraina

Milagro bat bezala ikusten du amona eta birbilloba euskaraz mintzatzea. Bera zaldun arrotza sentitzen dela esatean esan nahi du neurri batean erdaldun sentitzen dela.

Lokarri zaharra: metafora: transmititu dena amonarengandik haurrarengana, euskara. Horrek ez du esan nahi amonak bere jakintza eta ondare guztia transmititzen duena. Lokarri zaharra zehatza da, askotan agertzen da, eta euskara esan nahi du zehazki. Miraritzat du.

V. Etorkizuna

igaliak: frutuak (iparraldeko lexikoa).

ordun ordun ordun: hiru anafora horiek emozio bat sortzen/adierazten dute. bat-batean azkar gertatu den zerbait adierazten du.

Lizardik hizkuntza moldatu, moztu, aldatu.. egiten zuen poesia egiteko. Bere tamainan zenbat euskara zekien adierazten du. Garai hartan euskaraz ondo idazten zutenak 20 urte apaiztegian igarotakoak ziren. Lizardi nolabait kalekumea da, eta bihurriketa asko gaur gaiztotzat joko genituzke. Beste askok, ordea, sorkuntza askok dotorezia dute: *lehenerau, bihurrematu...*

lehen ikusi gabeko zugaitz berri bat zegoan: arbola: euskal lurraldearen eksubideen defentsaren irudia. Beste guztiak baino handaigoa. Ez da gernikako arbola, baizik eta horren ordeztako berri bat, abertzaletasunarena.

geriza: itzala. Arbola berriaren babesak (itzalak) iraunkorrak (ezin ilkorrak) egiten ditu herri baratzak. (baratza: euskal aberriaren lurraldea). *Herri-baratza:* metaforaren elementu konkretu eta abstraktua batu ditu metaforan *herri-* gehituta (irrifarre bezala, biek esanahi bera). Esan nahi du abertzaletasunak iraunkortasuna ematen diela herriari. Bere pentsamendu politikoa: ez da nahiko identitate nazionala izatea, forma politikoa ere eman behar zaio (instituzioak lortu...), proiektu politikoa erantsi behar zaio. Hori da herrialdeari iraunkortasuna ematen diona, proiektua, ideia. Eta hortara, galtzera doan identitateari iraunkortasuna ematen dio ideiak/proiektuak. Hori ez dago ezbaian.

Hirugarren ahaaldian irudi erlijiosoa tabor mendi da. Denek zekiten zer zen tabor mendia, edozeinek zekien zer mirari gertatzen zen hor, sermoietan entzunda...

Iraganaren muinak aldatu beza baratz zaharra baratz berri. Baratz zaharra berritu dadila muin zaharra eta etorkizun gazte bat eduki dezala. Eskakizun honetan biltzen du aberriarentzat duen itxaropenezko mezua. *lehenaren muina:* muinak modu figuratuan esentzia esan nahi du. Berak iraganeko muinak iraganeko baratza baratze berrira alda dezala nahi du. Tradizioa, euskara... euskal identitatearen elementu funtsezkoekin lotutako elementua da muina.

BULTZI-LEHIOTIK (Xabier Lizardi, 1929)

Naturari buruzko poema bat daukagu. Testu arin bat da, sinbolismoa, Verlaineren musikalitatearen ideia eta arintasunaren... ageri dira. Printzipio sinbolistak nabarmen ageri dira testuan. Tren baten barnetik pasiajea behatzen du. *Bultziak* trena esan nahi du. XX. mende hasieran sare ferrobiarioa egin zen Euskal Herrian. Bultzia deitu zioten garbizaleek eta Lizardik erabili. Beraz, tarteka bada garbizalea Lizardi.

Trena zoro dijoa, eta bertan bera. *Gurazko aberria:* Nahi den aberria, ideala, perfektua, paradisiakoa, desiratutakoa. Desiratutako aberria da paisaian deskribatzen dena, eta trena urrutiratzen/aldentzen ari da gurazko aberri horretatik. Ez da hirigune bat erakusten ari, nekazal giroko paisaia deskribatzen du. Lur eta soroak ikusten ditu, mendiak... hau da nekazari paisaiak. Hor ikusten dugu lehen abertzaletasunak izandako lilura, euskal herria irudikatze moduan. Abertzaletasunak indargehiago izan zuen kapital eta hiri industrialetan, baina Bilbok zuen fokoagatik kostan ere zabalkunde handia izan zuen. Idealizazio bat izan zen, paisaiak ez baitzuen bat egiten abertzaletasunak zuen masa kokapenarekin. Nekazal guneak kontserbadoreagoak izan ziren. Poema honek esaten digunak ez du ordea hipotesi horrekin, abertzaletasunaren hipotesi horrekin bat egiten. Berarentzat ideala den paisaiari agur esaten dio, lana egin behar duelako *ezin*. *Beheko behar goriak*, hau da beharrezkoa da, modernitatea aurrera doa Euskal Herrian eta hori ezinbestekoa da, urgentziatzko bete beharrak dauka. Desiratzko aberri ideala leku batean dago baina egitazko urgentzia beheran (hirian) dago, bertan eduki behar du arrakasta herria bizi dadin. Lizardirentzat beharrak behean daude, hirian, kostako hiri industrializiatuetan, ez goiko mendi dotoretan, jendea biltzen den

hirietan baizik, horregatik *agur soro, sagar, mendiak!*. Baserrietatik hiriguneetara jeisten dira langileak, beharra dagoen lekuetara.

Agur esaten dion paisai hori modu oso sinbolistan irudikatzen du. Naturaz hitz egiten duenean Verlaineren musikalitatearen, koloreen agerraldia dugu, eragin sinbolista jasu du. Paisaia horren protagonista handia nekazaria da, *nekazari gizandi bat iduri*, ahapaldi hau berari eskaintzen dio eta paisaia honen protagonista nekazaria da. Nekazariak bere handitasuna azpimarratzen du, hori abiaduraren eraginez gerta daiteke, efektu optiko bat da. Honetaz gain, bere postura ere azpimarratzen du, *zut*, honekin trenari begira dagoela adierazten du. Gizonak trenari begiratu dio eta seguru tren horri buruz pentsamendu bat eduki du. Trena Euskal Herri moderno baten metafora gisa hartzen da, modernitatearena. Beraz, Euskal Herriaren transformazioaz pentsatuko du gizonak. Nekazariak trenari mezu bat bidaltzen dio, animoa, *bejondeizula zuri!*, errekonozimendua ematen dio. Emozioa adierazten da, *Oi, lur, oi lur!* bezalakoekin miresmena adierazten du. Goiza pertsonifikatuta dago, *Oi, goiz eme parre gozoz ernea!*, hau da goiza emakume bat bezala esnatzen da. Paisaian artoa, mendia, baserri zaharrak... izendatzen ditu, enumeratu egiten ditu baina ez ditu luze deskribatzen bat bestearen ondoan izendatzen ditu aditzik gabe. *Oro laino mehe batek estalia, urre oro egizkuak jantzia...* goizean paisaia laino batek estalita agertzen da, lainoaren kolorea, eguzkiaren urrea, kiasmoa dago (paralelismo gurutzatua). Ni ez naiz lurralde horretakoa, ez naiz bertakoa, ezin duela hor geratu dio.

Verlaine poetaren sinbolismoaren ezaugarriak nabarmenak dira.

Lizardiren lau testuak:

- Euskal pizkundera (mugimenduaren himnoa)
- Eusko bidaztiarena (gaia, estruktura eta lehenengo 3 ahapaldietako esaldi esanguratsuenak), Euskararen unibertsalizazioa Etxeparerekin lotu.
- Asaba zaharren baratza: balio sinboliko aldetik euskal aberriaren formulazioa testu honetan dago.
- Bultzi leihotik.

Lizardiren gai nagusiak (euskara, euskal aberria eta biografiak)

- **Euskararenak eta euskal aberriarena** (azaba eta eusko.). Eusko Pizkundera gai hauekin lotuta dago.
- **Gai biografikoak** (semearen heriotza, amonaren galera...). Gai hauetan ez gara sartu, amona sinbolikoa da.
- **Gai filosofikoak/existentzialak**: ez ditugu ikusi (bizitzaz, heriotzaz, naturaz...).
- **Naturari buruzko ikuspegi sinbolista**, funtsean aberriari buruz ari da, aberriaren modernizazio beharraz (bultzi leihotik).
- Bere testurik ospetsuenetako batzuk natura eta bizitzaren ingurukoak dira baina ez ditugu landu.

2.2 ESTEPAN URKIAGA, LAUAXETA

Beste tonu eta estilo batekoa da, nahiz eta mugimendu beraren barnean kokatzen den: Euskal Pizkundera. Olerkarien arauak betetzen zituen, sariketetan parte hartu zuen (Eusko Olerki Jaiak, lehen saria berak irabazi). Euskaltzaleak elkartekoak, militantzia kultural eta politikoa aldiberean. Zentzu horretan, antzekoak. Testuak ikusita, ordea, Lauaxeta eta Lizardi oso desberdinak. Lauaxeta kultoagaoa da, referentzia literario aldetik akademikoagoa. Lizardik badauka autodidaktatik, ez zituen modelo akademikoak eskolan ikasi eta libreago jokatu zuen. Lauaxeta, alde horetatik, kultura literario handia duena, formakuntza handia duena da. Ezaugarri honetan aldentzen dira bien jokabideak, Lizardirena eta Lauaxetarena.

Datu biografikoak:

Estepan Urkiaga da bere izena, Laukiz herri txikikoa da. Lizardi baino 7-8 urte gazteagoa da, baina garaikide dira aktibitate literarioa dagokionez. Obrak 19 - 19 artean. Beraz, belaunaldi literario beraren parte. Olerkariak taldearen parte. 1905-1937 datek oso gazterik hil zela dioskute, 33 urte eskasekin, Gerra Zibilaren testuinguruan.

Elizaren baitan formakuntza jaso zuen, baina jesuiten ordena alde batera utzi zuen geroago. Loiolako instituzioaren baitan kokatzen dira XX. mendeko olerkari nagusienak: Lauaxeta, Aitzol (euskaltzaleak elkartearen promotore nagusia, nahiz hau Loiolatik egotzi zuten ideia nazionalistengatik, Lauaxeta bezala 36ean fusilatu zuten)... Zentzu horretan, Lauaxetak gune baten parte bezala jokatzeko du. Nikolas Ormaetxea Orixek lortu zuen ihesi ateratzea Ameriketara eta gerora itzuli egin zen euskal kulturgintzan jarraitzeko. Loiolan talde euskaltzale garrantzitsua eratu beraz. Lauaxetak grekera, latina... ikasi zituen han baina baita hizkuntza modernoak ere (Frantsesa...), eta bere garaiko autoreak irakurtzen zituen. Formakuntza akademiko handia, bera, 21 urterekin Jesuitak utzi zituenerako. Ateratzean kazetari izatea erabaki zuen *Euzkadi* egunkari nazionalistan (Bilbon). Kirikiño egon zen egunkari horren buru, eta Lauaxetak berak ordezkatu zuen. Euskal idazleak XX. mendean, beraz, elizaren barrauean (Loiola...) eta Euzkadi egunkariaren inguruan sortu ziren. Lauaxetaren zeregin nagusia euskarazko prentsa idaztea izan ziren.

Bere heriotza Gerra Zibilarekin lotuta dago. Gernika nola geratu zen erakustera joan zen periodista frantses batekin batera, eta dirudienez herritar batek salatu eta tropek detenitu egin zuten. Lauaxeta izugarri ezaguna, mitinetan hizlari ibiltzen zen. Bere erretrato asko zabaldu ziren prentsan. Militantzia politikoaren ondorioz gertatu zen bera errekonozitu eta salatzea. Gero, fusilatu egin zuten udara hasieran Gasteizen. Bere militantzia politikoa oso lotua dago EAJ-ri, militante erradikala zela dirudi EAJren barnean: Independentista. Horren adibide da *Mendigoxaliarena* kantua. Mendigoizaleak ez ziren euskaltzale mendizale soilak, baizik eta EAJ-ren barruan independentismoa sustatzen zuten azpitaldea, eta haiengatik kanta eginda ikusten da bera haien aldekoa edo zela.

Lauaxetaren alderdi nagusiak: literaturaren aldetik berak egin nahi zuena bere bi liburuetan ikusten da:

- *Bide barridak* (1931): europako korrante modernoek egiturak ekarri nahi dituzte, eta euskaraz garatu. Horregatik izan zen determinantea bere formazio akademikoa, honek segurtasuna eman baitzuen bere proiektuan. Euskal lirika berri nahi zuen inspirazio zituen literatur ereduak birstortuz. Bestetik, estetika ez ezik euskara ere landu nahi zuen, malgutasuna... Bere lehen liburu hau liburu arraro samarra da. Inpaktu handia izan zuen EHko kulturaren, oso ezberdina zelako aurrekiko kulturarekiko; tituluak berak horixe iradokitzen du. Poema nagusietako bat “Maitale kutuna” izan zen irabazle atera zena Poesiaren Lehen Eguna zeritzanean. Aitzolek gorazarre egin zion Euzkaltzaleak elkarteak lehiaketara aurkeztutako poema onenekin egindako lehen alean. Lehen liburuak prentsa arloko debatea izna zuen; hau da, kritika zorrotzak egin zitzaizkion, eta Lauaxetak espero zuen gaizki hartua izango zela. Batez ere, bere izaera “rompedore”-arengatik. Lauaxetak bazekien hori gertatuko zela, liburuaren atzekaldean idatzi baitzuen bazekiela jendearen oniritzia ez zuela izango.

Ezaugarrietako bat hizkuntza, bi zentzutan.

- Euskara: bizkaiera, oso garbizalea. Aranazalea. Horrek ortodoxia politikoaren bidean kokatzen du, nahiz ez hain normala izan (oro har olerkarietako tradizio literario ezarriari jarraitzen baitzioten, eta ez Aranaren hizkera berriari). Horregatik, bi tradizioei (gipuzkera osotua eta mendebaldekoa, kirikiñorena jarraituz) oso ortopedikoa iruditu zitzaion.
- Hizkuntza literarioa: oso kultua, lotura gutxi euskal literatura tradizionalarekin.

“itxasora” testua. “maitale kutuna”-rekin konsagratu. Irakurtzeko gaitasuna zuen, testuak hizkuntza originalean irakurtzen zituen eta horrek beste ikuspuntu eta nagusitasun bat ematen zion gainerakoekin alderatuta. literatura nazio eraikuntzarako konpromiso bezala dauka, modu erradikal eta intentsoan gainera; deklaratu egiten du. Gure nazioak bide berriak behar dituelako. Unamuno gogorarazten digu adierazpen honek: *olerkari nazala agertutari enago, izkuntza onetan be gogai batzuk azaldu daikeguzala erakustuari bai, ostera*. Euskara ez da literatur hizkuntza dio Unamunok, ez duela tradizio literarioa, eta Lauaxetak frogatu nahi dio baietz (eusko bidazteak-en bezala Lizardik).

Onartzen du ez dabilela testu berriak sortzen. Baizik eta irakurri dituen testuen euskarazko berridazketa edo direla bere lenengo liburuko testuak. Ez direla bereziki originalak, beste autore batzuek ekarri dituela. 1981ean Sarrionandiak “*Izuen gordelekuetan barna*” liburuarekin gauza bera gertatzen da: hor-han irakurri dituen testuak euskaraz bere filtoetik pasata adierazten ditu. Honek egitura bat dauka, eta urrundu egiten da Lauaxetaren planteamenduetatik, baina garaiko literatura berritzearen propositoak berdina dira. Paralelismoa dago bi lanen artean. Proposito banguardistak, berritze nahia kanpokoak ekarriz, paraleloak dira. Maitasuna, aberria eta erlijioa (= “*uskurtza*”) dira bere gai nagusiak eta munduan gai kutunenak. Ezin da nabarmenago adierazi nun kokatzen den. Aberriarekin, partidoarekin eta euskararekin konpromezua hartzen du. Neurri batean, konpromezu ezarri horiek hartzen ditu,

konpromezu poitikoa hartzen du. Amaieran abixua ematen du, gustatzen ez zionari bidaltzen dio mezua. Lanaren zailtasuna soilik lana probatu duenak dakiela dio. Modu zorrotzean hitz egiten du, karakterra du. Testu honetan bere konpromezuak azaltzen ditu eta horri erantzuteko egin duen ahalegina azpimarratzen du. Lexikoa kenduta, oso hizkuntza zaindua dela ikusten da, bizkaiera zaindua. Lexiko garbizaleak zikintzen du. Literatur ereduak aldatu zioten.

Bere testu hau testuen bilduma bat da eta bilduma honetan poemen estilo desberdinak nahasten ditu. Ensaio moduko baten antza hartzen zaio. Maitale kutuna poemarekin hasten da, saria jaso zuen poemarekin. Baina amaitu, *Itxasora* poemarekin amaitzen da. *Bide Berriak* liburuaren azalean ikusten dugu liburu elebiduna dela. Edizio elebiduna argitaratu zuen (Bide-barriak nuevos rumbos): honek adierazten du badakiela eus. bakarrik argitaratuta jendeak zailtasuna izango zuela irakurtzeko, irakurle sorta txikia zuela bazekien euskaraz soilik eginez gero, euskaraz alfabetatutako oso jende gutxi baitzen garai hartan. Alfabetizazio literario baterako tresna izan zen liburua, Lizardik egin zuen moduan. Bazekiten eredu berritzaile eta zaharra proposatzen ari zirela eta jendea trebatu egin behar zela euskarazko poesia irakurtzera. Gainera, hitzaurre literarioak erantsi zizkioten (hemen Aitzolek, eta Lizardiri Orixek).

Portadan bere izenari garrantzi handiagoa eman zion ezizenari baino. Hori izan liteke prentsan ezizena zerabilelako (zentsura ekiditeko) eta hortik bereizteko. Bere izen abizenak adierazteko molde sabindarra: *Urkiaga'tar Estepan*. Irudietan bi marinel ageri dira, gerritik gora arropa kenduta, oso fuerte, gorpuzekera magnifikatuak... Irudi epikoak dira beraz, mezu epikoa daukatelako barruan. Garaiko moda zen hori. Gorputzaren exhibizioak ideologiaren mezu osasuntsua transmititzen dute. Bat seinalatzen dago eta bestea begira dago. Lur berrien bilaketa adierazten du, nabegante esploradoreak dira. Portada lotuta dago poemarekin.

2.2.1 “*Itxasora!*”

bildumako azkena da eta liburuko testurik errepresentatiboena da. -ts eta -tz ez dira bereizten. Sakoneko esaten bada itsasoari buruz ari dela badakigu, kasu honetan itsaso sakoneko marinelei egiten die erreferentzia (*sakoneko*). *lemazaina*, barkuaren lema (timon). *Sakoneko lemazain* esaten digunean itsaso sakonean itsasontzia gidatzen duten marinelez ari da. Bera marinel horietako bat da, *nua* bere burua horren parte da. *Zidor ezezaunen gain* itsasoaren esplorazioan doazela adierazteko esaten digu, bide berriak bilatzen ari den marinela da. Besteak gonbidatzen ditu berarekin bidaiatzera. Utzi hondartzak, kostak eta leku berrien bila doa. Lurrean arrisku bat dago beraientzat askatasun bila doa itsasora. Lur berriak deskubritzeko ametsa eta ilusioa dute. *lihorreko*, lurreko esan nahi du. *Lihorreko lokatzok geure malkoz eginak*, metafora bat da, hainbeste sufritu dute lurrean, non, lurra lokatz bihurtu duten, hau da euskaldunen errepresioa eta negarrak irudikatzen ditu. Hori dela eta lurretik itsasora joan nahi du, itsasoan baitago askatasuna, lurra ordea loturarekin lotzen du. Lizardi

bezala kontzeptista da, ez dago lokailurik, esaldiak lotuta daude bata bestearen ondoan... hau da bi poeten ereduak gertu daude. Ez dago konpletibarik... asinetonez betea: baieztapenekin. Hizketa literario erreferentea: epika. Iliada edo Odisea bezalakoetako hizketa erreproduzitu nahi du.

Epika antzinateko hizketarekin lotu nahi du. Bere garaian motorrezko ontziak zebiltzan, baina berak lehenagoko garai bat irudikatzen du. Liburuaren izenburua, ildoak, poemarena eta esaldi honena (*bide barrijak nahi dauz abendaren kezkeak.*) alineatuta daude: Aberriaren kezkek lur berriak eskatzen ditu, proiektu berriak. Lauaxetak proposatu: literaturak ezin du egon lotuta, akonplejatuta... espainiar literaturari. *lar lurrari egon da* → ez dezagun gehiago itxaron horiek baimena eman arte. Euskal literaturak horizonte berriak bilatu behar ditu. Hemen ere sinbolismoa: itsasoa=euskal literaturaren askatasuna eta bide berriena.

Lehen zatia eta azkenekoa elkarren ispilu: lehenean etorri nerekin askatasun bila, eta bukaeran, Lauaxetaren esaldi hoberenak: *ontzipuntan soinutzik*. Paralelismoa dakusagu, horrekin hasi eta buka. Irudi lirikoekin amaitzen du *Axe oron mosuba i bijotzak zabaldurik*. Ez du soilik bizkaierako lexikoa erabiltzen, literatur tradizioan integratutako lexikoa ere erabiltzen du, flexibilitatea badu lexikoa apur bat aldatzeko. *Ibilaldi hau ez da bizitzan amaituko*, hau da hemen hasten dena itzulerarik gabeko bidaian doa, bizi osorako proiektu bat da. *Behin ontziratu danik barriz ez da itzuliko*, behin berritzen hasita ez duzu atzera egingo. Bizi osorako konpromezu batean ontziratzen dela azaltzen du. *Minak lurrean itxi*, literatur abanguardien bidean minak alde batean utzi behar dira, tristeak ez ditu behar, melankolikoak. *Begoz itun diranak*, azaleko marinelen jarrerak ikusten dira. Giro optimista bat iradokitzen du, errepublika bat ezarri denean, partidoa legalizatu dutenean... elementu baikorrak ditu erronkak hartzeko, ilusioa du. Munduko berri euskararen bitartez ematea da bere helburua, hemen Lizardiren ideia ikusten dugu. Ideia bera da, baina modu desberdinean esaten da. Gogaia = pentsamendua. Metonimia, aparra eta indarra, itsasoan aparra itsasontziak sortu dezake, orduan eta indar gehiagorekin gainera, orduan eta apar gehiago ateratzen du.

Bide barrijak idazteko, **gaztetasuna**, oinarria berak badaki zer den literatura **formazioa** eta

Obra aurreratuegia, zailegia... debatean berrizaleak eman zieten Lauaxetaren obra defenditu zutenei. Deklarazioa: manifesto poetikoa. Bere kasuan manifestu politikoa da. Batetik abertzaletasunarengatik egiten du eta bestetik, badaki, egiten duen saio abangoardista hori gaizki ikusita egongo dela. 31-32an debatea bizi-bizirik egon zen. Debate bat egin zuten, eta Lauaxeta apoiatu zuten batzuek, Lizardik zuzenean apoiatu zuen. Bera ere berrizalea zela, eta Lauaxetak egindako ausardiarekin ados zegoela esan zuen. 1932an Lizardik Bihotz begietan liburua argitaratu zuen, eta hor ikjusten da ados zegoela Lizardi Lauaxetarekin. Horien artean, Lauaxetaren lanen segidak argitaratu zituen. Bere proiektu abangoardista apoiatu behar dela adierazi zuen ber elanetan. Orixek ikuspuntu tradizionalagoa izan zuen arren, idazle berrizaleagoak apoiatu egin zituen, berrizaleagoak Lizardi eta Lauaxeta. Debate hori serioa izan zen, eta posizioa hartu behar izan zuten zuten gero, berrizaleen taldea osatu zuten. Neurri batean, abangoardia bat euskararen gizarte kondizionaletik liberatu nahi zutena.

2.2.2 *Arrats beran* (1935):

Hurrengo emanaldia, *Arrats Beran*, titulua ez da aurreko bezain esanahitsua. Ez du aurrekoak bezala haalko manifestu aire hori, ea zeinek erantzuten zion ez zen propositoa. Hemen poesia bateratuagoa ageri da, urte horietan, Lauaxeta estilo propioagoa sortzen saiatu zen, harmonikoagoa, elkrren artean testuok zerikusia zuten. Originalagoak ziren. Idea politikoak bildu. Poesta bezala, autonomia hartu propioa, eta hori antzematen da poemek, maila kalitate berdintasuna, oreka bat, homogeenagoa da. Ezagutzen ditugun Lauaxetaren poemak, Itxasora kenduta, liburu honetakoak dira. Beraz, arrakasta asko izan zuen. aURREKO OBRATIK HONA, lizardik esaten du herri lirikatik tradizionalaren ezaugarrietan oinarritu zela. Erromantze espainolak ere eragina dute bere poemetan. Federico Garcia Lorcaren *Romancero* liburua, neopopulismo deitzen zen. Lauaxetarengan antzematen dugun joera hori, erabateko eta besteko influentziak batuz. Eragina, liburu honetan, hispanikoa da. Federico Garcia Lorcaren, eragina, *Romancero Gitano*. Nondik dator joera hori? Garcia Lorvcaren liburu horrek garai batean ospe handia izan zuen, neopopulismo deitzen den horretan bi ezaugarri; populismoa, herri lirika. Eta *romance*-a, erromantzea deitzen dioguna; poema herrikoia da, herri literaturaren ezaugarriak ditu, kantagarria izan behar da, kantatzen da instrumentuen laguntzaz edo ezer gabe, baina, kantuen ezaugarriak ditu. Beraz, estribilloa izan behar du. Egitura finko bat izango du hasieratik bukaeraraino eta tartean estribilloa edo leloa izango du. Hori da, herri kantuen ezaugarria, baina herri kantuen artean erromantze deitzen diegunek, ahapaldi kantitate jakin bat dute: ia beti 8/8 eta ezaugarri nagusia da **narratiboak** direla (kontatu egiten dutela istorio bat). Ezaugarri hori, guztiz determinantea da liburu honetaz hitz egitean. Lehenengo liburutik bigarrenera aldaketa tematiko nabarmena dago; izan ere, Lauaxetak bere lehenengo liburuan gai abstraktuez hitz egiten zuen. Bigarrenean, istorioak narratzen dira, eta hori erromantikoen ezaugarri da, erromantzeen estrukturaren kutsuaz landa. *Romancero gitano*-n (1928) ijitoen istorioak, eta horiek izandako gora beherak guardia zibilekin, euren arteko borrokak, edo maitasun istorioak, Istorio odoltsuak (puñalak). Maitasuna, ohorea, lehia... bezalako gaiak (honra-ren kontzeptua). Euskal literaturan erromantze deitu izan zaie horrelako poema narratiboei, Lauaxetak bi iturri erabiltzen ditu, batetik, erromantzetik datorkion eragin hispaniko hori eta bestetik, eta baladak bestetik.

Euskarazko erromantzeei balada deitzen zaie. Artzain baten herijotzean, estrukturaren aldetik eta ezaugarri poetikoen aldetik, balada eta erromantze gisa har daitezke. Liburu honetan, hainbat balada moduko poema sartu zituen Lauaxetak. Batetik, maitasun tragikoa.. erromantzeen ezaugarriak. Bestalde, euskal baladen ezaugarriak daude, eta horiek nabarmenki errepikapenak dira. Beraz, testu horietan ikus daitezke halako ezaugarri tradizionalak, portagonista baldin bada ijitoa guardia zibilekin arazoa duena, Garcia Lorca ijioten alde plantatzen zen. Baina, poema hauek idatzi zituenean, bera fiktizioki, haalko poemak egiten ari zen. Poesia garaikide ??.

2.2.3 *Mendigoixaliarena*

Euskal baladen errepikapen elementuak eabiltzen ditu, enfasi dramatikoa hartzen du. Horretan Garcia Lorcaren eragina ikusiko dugu. Arrats beran dauden testu esanguratsuenak, testu narratiboak dira, narratiboak dira garai hartan zegoen korrante neopopulistagaitk. Federico Garcia Lorcake gindakoa Lauaxetak euskaraz egin zezakeela konturatu, eta euskal herrian tradizioa eta modernitatea elkartzea bururatu zitzaion. Horretarako dohaia zuen, eta hor erakutsi zuen bere gaitasun hori, kantu erromantze erakoak kontatzeko. (Romantze hitzak, kantugintzan eta zineman maitasunarekin duen loturak eta hemen deitzen dioguna ez datoz bat, romantze deritzogu kontatu egiten duelako.) Bi ahots seguru, batetik protagonistaren ekintzak eta bestetik kontalari bat. Kontalaria somatu egingo dugu zeinen alde dagoen (Artzain Baten Herijotzean, artzainaren alde dago). Ezaugarri horiek, estilo erromantzetik datorzkio. Modernismo edo sinbolismoa gehitu behar zaio, batez ere, bi horietatik hartzen duen sentsorialismoa (kolorea, kontrasteak, argia, sentsazioak...). Mundu sentsorialaren azpimarratze sendo hori, da gehien bat modernismotik edo sinbolismotik hartzen duena. Neopopulismoaren formula eta tradizioarena dira horiek.

Baladez gain, koplak zaharrak dietzen ditugun generoko elementuak ere inkorporatzen ditu. Euskal Pizkundeak ekarritako gauzarik garrantzitsuena euskal folklore horren berreskurapena izan zen. Koplak zaharrak ere agertuko dira testu hauetan. Olerkarien artean proposito abertzalea dago, tradizionala berreskuratu, mantendu eta berritzekoa. Lorca populistatzat hartu zen, klase baxuetan enkatatu zuelako baina ez klase altuetan, eta EHan, Katalunian, Galizian... onespina jaso bazuen ere, ez zen horrela izan Madrilen eta beste hainbat tokitan. Gerora, Generación del 27an integratu zen eta hobetoxo hartu zen, baina, halere, gainerakoak baino gazteagoa zenez gutxi izaten jarraitu zuen, nahiz pixkanaka utzi egin zuen joera neopopulista hori. EH-an, nolahi ere den, ekarpen handia egin zuen, eta Lauaxetak eta euskal literaturak asko edan zuen berarengandik.

o

Aitzolek 32tik aurrera poeten gogo abangoarditak mriesten zituen, baina, euskal literaturak irakurle gutxi zituela zion eta beste ildo popular bat egin beharra zegoela zion. Lauaxeta ados egon eta bide herrikoiago bat hartuz uen ber epoesian. Herri kantuetatik edo baladetatik hurbilen dauden poesia eginez, kantuetatik edo baladetatik hurbil dauden ezaugarri metriko eta erritmikoa dituzte. Horietatik hartzend ituzte baliabideetako asko, elipsiak. sintagmen errepikapenak, efektu erritmikoa sortzeko. Herri kantuetan batzuetan dauden errepikapen estrategiak “din dan balendan” (umeen jolas baterako dekorazio elementua, efektu hori, onomatopeien bidez), ahapaldi laburra.

Ze gai lantzen dituen:

- Ideia nazionalistak (konpromesu politikoa oso garrantzitsua)
- Amayur gaztelu beltza, amayurren egiten ari ziren gazteluaz. Hori karlistek pentsatu zuten, eta horren ignuruan nazionalismoak ere aintzat hartu nahi izen zuen Nafarroako azken batailaren sinbolo hori.
- Mendigoixaliarena testuan aurretik aitatutako ezaugarriak argi ikusten dira.
- Erljioa, berak formakuntza rlijiosoari uko egin bazio ere bere sinesmenak hor zeuden.
- Erantzuik gabeko maitasuna (Artzain baten herijotzean)

Dotoreago dakartza biagrrren liburu honetan, protagonista mota ezberdinen gertaerak kontatzen ditu, horietako gai batzuk euskal erromantze zaharretako gaiak berritzen ditu. Horien trataera egiten du sensorialismo eta sinbolismotik. Metafoertan, bere irudimen sensorialagoa nabrmentzen du. Liburuan herri kutsua da nagusi, batzuetan gai arinak hartzen dituenean ikusten a hori (neskatxen edertasunari egindakoak...) poema alai eta anakreotikoek (peosia mota horri, poesia arina, geenro horri deritzo, ondo jan eta ondo edan). Literatura zentzu serioan, sorkuntzaren ideia, literatura jostetak. Nartzisori edo kupidori (maitasunarne gaia) dedikatutakoetan hro antzematen da dibeistsfikazioa eta ondo ezagutzen dituen estiloak probatzen dituela.

2.2.4 LANGILE ERAILDU BATI

Mendigoxalia estuarekin batera, Lauaxetaren testu ospetsuenetarikoa. Lauaxetaren testu ospetsuenak abertzaletasunarekin loturikoak dira, puri-purian zegoen gaia zelako, baina beste gauza anitzez idatzi zuen, Lizardiren moduan. Lauaxetaren testuetan ez dago intimitatearen agerpenik (Lizardirenean bai, bere familiaz, mundu intimoaz... idazten baitzuen). Lauaxeta beste modu bateko poeta da, literaturaren barietate berriak ezagutzen ditu eta hona ekartzen ditu. Berari gehien unkitzen dioten gaiak militantziari loturikoak dira, baina ahalegina egin zuen euskal literaturako gaien abanikoa irekitzeko.

- ***Itsasora*** testua Euskal idazleari egindako mezu edo deia da, bide berriak egitera animatuz. Euskal literatura eramatea orain arte eraman ez den tokietaraino. Mezu nagusia: euskal idazleek askatasuna hartzea gai berriak, molde berriak hartzeko.
- ***Jostailuba*** dibertimendu bat da, jolasean dabilelako bere artearekin. Emakume baten aurpegiak eta ezpain-inguruez hitz egiten du, desiraz betetako erretratu modukoa da, maitasunaren ingurukoa; alabaina, gaur egun oso gogor hartuko genukeen adierazpen batez bukatzen du: emakumeak hitz egitean tonua polita da, baina bere esana ez zaio interesatzen, kasorik egin gabe entzuten dio. Bere edertasunaren elogio/goraipamena legoke, baina zer esaten duen ez zaio inporta. Garaiko ikuspegiarekin oso lotua.
- ***Zelaian*** testuan ikusten da ze dohai zeukan kantuak egiteko. Doinuan leloak kokatu eta musikaltasun arina kokatzen zuen. Abesti modukoa da. Lelo bat du. “Ene maitia...” kantu bateko lelo bezala jokutzen du esaldiak. Maitausnaren inguruko tema bat da, maitasun zapuztuarena. Neska gazte baten ingenuitate zapuztua, maitasun frakaso baten inguruan. (Testuak, aurrekoak bezain beste edo gehiago flatatzen duela esan daiteke gaur egungo ikuspegi batetik behintzat).
- ***Artzain baten herijotzean***. Errose Bustintzeren testuan oinarritua, literatura kultuaren testua.
- ***Begijen omenez***. Lauaxetaren tematika amodiozkoa bere espezialitatetzat hartzen zen. Maitasuna eta emakumearen edertasuna era batera eta bestera tratatu zuen. Hemen

maitasuna oso esterozipatua da, Cupido (maitagar, euskarazko bertsioan) pertsonajea hartzen duelako. Irudi estereotipatua ematen du, antzinatek datorrena, eta maitasunaren magia sortu nahi du. Ikusten dugu testu honek ere badituela kantu baten ezaugarriak: *galai-galaitxu-rekin* ahapaldiak hasten ditu. Kantuaren formula errepikatzen du, bertso laburra, eta modu batean, naturak inguratzen duen ustekabeko gertaeraren (maitasunaren) magia. Kasu honetan, gainera, pertsonaia mitologiko bat hartuta bitartekari: Cupido. Oso antzinatekoa dirudi gaur egungo ikuspegitik.

- ***Bihotz donea.*** Azken testu hau jadanik kartzelan zegoela (Apirilean gernikan detenitu zutenetik uztailean fusilatu arte espetxean egon zen Gasteizen, eta bitarte horretan testu batzuk idatzi zituen). Horietako bat *Agur Euskadi* da, eta badira 7-8 testu. Horietako bat da ***Bihotz donea.*** Bihotz donea deritzo, baina gehiagotan aipatzen da *Goiz eder honetan...* Askotan ikusten da gerra testuinguruan idatzia dagoela, badakielako fusilatzera kondenatua dagoela eta kanpoan gerra hotsa entzuten duelako. Testu hau ezaguna da bere ezinegona, tristura... adierazten duelako, eta bere tristura ez da bakarrik heriotzagatik, baita beste gudariekin batera gerra egiten ezin duelako egon ere. Egun eder baten atarian hilko dutela dio, gertatzen ari zaionaz hitz egin nahi du negarrik egin gabe. Gerraren berri ematen du eta gerran dauden gudariei zuzentzen zaie. Berak ez du horrela hil nahi, nahiago du gerran hil. Hau idatzi zuenerako gernikakoa gertatuta zegoen.
- ***Langile eraildu bati. Testu oso inportantea. Bere testu konplexuenetako bat da.*** Lauaxetaren erreportorian bakarra da gai honi buruz idatzitakoa. Testua langile eraildu bati buruzkoa da, hau da Lauaxeta euskaldunaren bukle abertzaletik ateratzen da langile klasearen tokian jartzeko. Bilbon bizi zen eta han oso garrantzitsua zen ideologia abertzalea baina horrez gain langile klaseak ere garrantzia zuen. Sindikatuak zeuden eta grebak konbokatzen zituzten hauek, greba kontestuan gertatu zen heriotz baten inguruko testua da. Bere garaiko poetek ez zuten tematika hau inoiz hartu beraz, ohiko paramentroetatik irteten den tematikagatik eta lanketaren konplexutasunagatik da garrantzitsua.

Testu honetan bi zati garbi daude, eta hori Lauaxetaren poemagintzaren estruktura landuaren froga da. Estruktura metriko hertsia da, bi apartadu garbirekin. Baditu kantuen ezaugarriak hemen ere: estribilloak, errepikapenak, elementu anaforikoak... testuari erritmoa ematen diotenak, baina gaiaren edukiaren menpena askoz gutxiago antzematen dira besteetan baino. Hemen edukiak (gaiak) dauka pisu handiena. Estribillo egitura dauka, elementu erritmiko asko. Marko bat eransten dio egiturari, lehenengo zatiko “Ene Bizkaiko...” hasiera eta bukaera bera. Erromantzeen egitura, balada. Efekto solemne bat eragiten dio entzuleari. Bigarren zatiaren azken bi lerroak esaldi bera dira, “ene miatze gorri...” esaldiak hasieran, erdian eta bukaeran kokatzeak, erromantze gisako zerbait da, eta ideia bat finkatu/iradokitu nahi du: Nola hil den langilea, detaile horiek kontatze horretan hango langileei buruzko informazioa ematen digu, mehatzeetako lana gogorrenetariko gisa sailkatuz. Bizkaiko mendietan irekitako mehatzeak ditu gertaleku, horrek drama sugerituz. Beren lan gogorraren

kondizioetatik datorren drama. Espazioek, langile baten gertaera kolektibizatu eta talde baten izenean jartzen du. Langile guztiei zuzenduz.

**“Ene Bizkai’ko miatze gorri,
zauri zarae mendi ezian!”**

Meatzeak gorriak direla dio metalarengatik. Bizkaiko mendietatik ateratzen den material guztiz baliotsua. Mendiak berde dira, baina meatze lanak egitean azpian ateratzen den lur gorria burdinarengatik da gorria. Horregatik: *Ene Bizkaiko miatze gorri.* Gorri koloreak, ordea, odola eta zauria irudikatzen du. *Mendi eze*-ko heze-ak, ordea, berdea. Metafora bat dago: Gorputzean zauri bat egiten dezunean, odola ateratzen da eta gorria. Bizkaiko meatzean gorriak zauriak dira. Lurraren berdetasuna eta gorritasuna izaki bizidun bat bezala irudikatzen du. Bizkaiko lurra izaki bizidun gisa erreprezentatzen du. Irudi honek, modu erraldoiean, meatzearen eta langileen zauriez hitz egiten du. Zerbait indibiduala unibertsal bilakatzen du, erraldoi eta handi, eta hori epika da. Testu honen estrategia nagusia hori da.

Kontestua meatzarien greba da, baina literarioki hori epiko bihurtzen du, Bizkaiko lurra bizidun bezala tratatzen duelako: Bizkaiko lurra zauritua da, eta bere zauriak dira odola, mina eta sufrimentua eragiten dituena. Zentzu horretan, bat egiten du meatzarien sufrimendu eta eskakizunekin,

Poema hau balada edo erromantzeen estilokoa da: **narratiboa delako**. Izan ere, meatzaria nola hiltzen den eta zergatik kontatzen du. Hori da tema, eta hortaz nola hitz egingo duen: kontalariak. Poema narratiboa. Enuntziatioak baldintzatzen du. Horregatik, erromantzeen zera jarraitzen duelako, epikotasuna espero dugu, eta epikotasun horrek **esklamazioak** espero ditugu, baita **hiperboleak** egotea ere. Konparazioen eta metaforen bidez kontatzen ari dena anplifikatzea ere espero dugu. Figura erretorikoak ikusiko ditugu, eta oso sensoriala dela ere bai, adjektiboen bidez emandako **epitetoek** protagonismo handia hartuko dute. Hori da erromantze eta baladetako estiloaren prototipoa.

Kontalaria, erromantze ta baladetako tipikoa, enpatikoa ere bada. Kausa hartzen du, kasu honetan langileena. Biktimaren aldeko kausa hartzen du (langile grebalariarena), eta beraz, erasotzaileek epitetorik txarrenak dituzte. Hortaz, badaude erasotzaileka (txapelokerrak) eta biktimak (meatzari grebalariak). Meatzaria “handituta” ageri da, epikak hori eskatzen duelako.

- **Lehenengo zatian** agertzen da meatzari grebalaria, badator greba dagoen lekura eta txapelokerrak (trikondioen formagatik, garai hartan termino ezaguna) agertzen zaizkio. Plano orokorra aurrena, zinean bezala plano zabala eta gero zentratuko da langilearen planoarekin. Hurrengoan zuzenean protagonista.

Estilo epikoa apostrofez norabidea aldatuz meatzariari zuzentzen zaio: *hator*. Detalleetan sartu da: *hator pikotxa lepo-ganian*. → Hau da, etor hadi hire

lanerako tresnarekin, dela grebarako dela lanerako. Etorri badaezpada zerbaitekin. Kontua da detaileetan oinarritzen dela: pikotxean (metalezko partean) egingo luke dirdira eguzkiak. Zinematografikoa da, edo behintzat sensoriala, begien sentsazioari begiraten dio, fokua arma (tresna) horretan ari da jartzen, brillua/argia horra bideratzen du, hori erabili beharko lukeelako. Bere lan tresna enfokatzen du, langile klasearen ezaugarri nagusia baita lan tresna. Argia pikotxan kokatu du, berau delako langilearen tresna. Lan-tresna da bere defentsa bakarra, eta bertan jarri du fokua langilea ez zailako indibiduo bezala interesatzen, baizik eta kolektibo bezala, langile klase bezala. Figura errepresentatiboa da, eta berarengan baino gehiago ofizian jartzen du. Horren adibide belztuta etortzea. Aipamen fisiko horiek asko gogorarazten digute Federico Garcia Lorcaren ijitoa deskribatzeko modua, helburu berarekin egiten du: protagonistari reliebea emateko, bere tresnak (ofizioarengatik) eta ez da indibiduo interesgarria, baizik eta errepresentazio kolektiboan dagoen pertsonaia.

Lantokia (fabrika edo ola) keak karakterizatutako leku ilun bezela irudikatzen du. Balore positiboak (goiza, brillua, eguzkia) langilearengan kokatu ditu eta fabrikan, aldiz, beltza eta iluntasuna. Antitesia ezarria gelditu da.

Opor=lan uztea (greba). hikaren erabilerarekin gehiago azpimarratzen du langilearen alde dagoela. (e)txaide= etxe multzoa. Fabrika erraldoia, beraz, eta greba inportantea. *Ukabil sendo* → partidu komunistak egiten duen adierazpen borrokalaria. *Soinazki urdin* → langileen janzkia. Irudi honetan ere zinematografia dago: fabrikara hurbiltzen ari da eta soinuak entzuten dira, eta bi elementu sueltu, kamarak korte azkarrak egingo balitu bezala: ukabilak eta janzkiak. Halako detaileak kolore eta formen bidez adierazten du opor-otsaren materia (greba batean espero ditugunak, alegia, oihuak, gestuak eta langile jantziekin desfilatzea).

Kontraste bat dago langile eta jaubi ('jabe'). Orain arte lokailurik ez dago, lehenengoa oposizio horretan: *barriz*. Telefonoaren erabilerak bertan ez daudela erakusten du, poliziari deituko lioke, langileak gelditzeko guardia zibilei deika ari zaie lasai asko, presiorik gabe, lasaitasuna posturak adierazten du. Kontrastea bere lasaitasunean dago. Hemen agertu dira lehenengo bi antagonistak. Orian arte langileari hitz egin dio eta orain, telefonoari ari zaio. *hi* esatean telefonoari zuzentzen zaio. Garai bateko literaturan apostrofe hauek franko erabiltzen ziren, nahiz gaur egun arraroa egin. Telefonoari bizkaiako lurrari ematen dion tratamendu bera ematea guretzat arraroa da.

Gero berriro meatzariarengan jartzen du fokoa, oso azkar aldatzen da fokoa eta azkartasun honek arriskua iradokitzen digu, egoera arriskuan jartzen ari da. Berriro meatzariarengana bueltatzen da, eta esaldia errepikatzen da. Deika ari

direla esaten du, guardia zibilari deitu diotela. Esklamazioak iradokitzen du dei horren bitartez guardia zibilak badatozela. Guardia zibilen txapelak egiten du brilloa, txarola izeneko materialez egindako txapelak dituzte, brillodun materiala da. Gorroak txarolezkoak direla eta dizdira egiten dutela aipatzen dute, dizdira horrek pikotxaren zantzua ekartzen dute, bien arteko lotura/konekxioa eraikitzen du, bi hauek baitira antagonista nagusiak. Antagonisten berdintasuna borrokan eta dueloaren iragarpena da. Kontalaria, ordea, meatzariaren alde dago. Bidexkan doaz bi antagonistak, beraz duelo batera doaz, arriskuaren elementua iradokitzen dizkigu. Hortik, sentorialitatearen garrantzia. Elementu bisualetan jartzen du harreta gehien lehen zatian. Lehen zatiko azken esklamazioan ikusten da langilea modu heriokoan ikusten du, protagonista onaren paperean kokatzen du. Eta guardia zibilak, ordea, gaiztoaren paperean kokatzen ditu, gaizkile moduan. Kontalari enpatikoak oso garbi seinalatzen ditu protagonista eta antagonista, hori epitotoekin egiten du. “Luzia” epitotoak daramaten arma peligrasoagoa dela adierazten du. “Lepagainean” berriro agertu da, hemen ikusten ditugu ispilu jokoak, dueloaren preparazioa ispilu eran antolatzen du, paralelismo batzuk eraikitzen ditu batzuen eta besteen artean, antzekotasunak. Ez du frogatzen gaizkileek zergatik daukaten gaizkile itxurak, baieztatu egiten du, epitotoa. Dueloa prest utzi du, gertatu beharrekorako prest uzten gaitu, honekin itxi du lehen zatia eta halako aktu teatral batekin itxiera ematen du, zauriaren ideia iradokitzen du.

Metonimia, zer da? “hartu dezagun kopa bat” kopa bat ezin duzu hartu, barrukoa hartzen duzu. Poemaren kasuan nagusia bere postura eta mugikorrarekin adierzten du baina gero, telefonoa bera hari bitartez aipatzen du. Elementu metonimikoak garrantzia hartzen dute, figura oso bat aipatu ordez, LANGILEA, bere tresnen bitartez izendatzen du langilea.

- **Bigarren zatia:**

Langilea hil egingo da zati honetan, guardia zibilak hil egingo du. Lau guardia zibil zirela jakiten dugu, hau da bi bikote. Bi zatien tartean zerbait gertatu da (elkar topo egin dutela eta topo egin dutela) ez dakiguna, elipsi narratibo bat dago. Ez dakigu zergatik doazen bere atzetik eta ez beste baten atzetik. Elipsi narratibo hau baladetan oso ohikoa da, zure irudimenaren esku uzten dute gertatu dena ondoiroztatzea. Baladari ez zaio inporta zergatik eta nola, alderdi emozionalena kontatu nahi du, irakurlearengana iristeko, langilearen kausarekin bat egiteko, sentimenduak piztea da helburua. Emotibitatea elipsiaren bitartez egiten du. Bigarren zati honetan dagoeneko atxilotuta dago. “Arpegi beltzdun” epitotoa da, epitotoen erabilera errekursiboa da (behin eta berriz). “Txapel okerrak” izendatu soilik egin ditu, baina izendapen honek mespretsua dakar, okerra esan nahi du, gaiztoa, barrenean, izenak okerraren konnotazioak dakartza. Eszena ez da lehen plano bat, plano ertain bat da, pertsonaiak soilik enfokatzen ditu. Hikako tratamendua langileari egiten dio. “Hesija” metaforikoa da, hesia eskapatu ez daitezen jartzen da, beraz, kasu honetan langile honen hesia

guardia zibilak dira, ezin baitu haiengatik ihes egin. “Sastakai” hitzak puñala esan nahi du, amorruez betetako begiak dituela esan nahi du. Begietako amorruek ez du inolr hil, ez da hesia zatitzeko gai. Galdera erretorikoak ditugu, pentsamendu figura gisa: *noruntz haroe esku lotuta burni margodun gorputz gogorroi?* Epitetoak langilearen gorputzari buruzkoak dira, eta epiteto horrek bi gauza iradokitzen ditu. Iluntasuna, metal kolorea, urdin-beltz kolorea, bere jantziaren kolorea, batetik; bestetik, burdinaren gogortasuna. Kolorea eta bere gorputzaren metafora epiteto baten bitartez azpimarratzen du.

Galdera erretoriko ondoren. Langilearen amorrua iradokitzen ari da. Iradokitzen du lotuta daramatela baino ez dagoela etsitua, amorruez betea baizik. Figura hauek (bat-bestearen atzetik) iradokitzen dute borroka desiguala dela, berak bere amorrua besterik ez daukala eta besteak lau direla, eta langilearen inpotentzia nagusitzen da. Kontalariak espresatzen du, kontalaria langilearen bozeramaile da. Zinean bageunde, foko urbilean langilearen begietan, kokotzean... dagoen amorrua behatzen egongo ginateke. Protagonistak bere baitan duen inpotentzia adierazten da, lehen planoan erabiliz.

nerbioi-ertzok esatean plano hurbilekotik plano zabalera salto egiten du bat-batean. Plano aldaketa oso azkarrak daude, eta efektu bat lortzen du: gertaera bat dena berak epiko bihurtzen du, langileak guardiazibilekin duen borroka/listarra, paisaia guztian dagoen adierazle bihurtzen du. Tentsio hori tranbiaren dardararekin adierazten du. Paisaiaren bitartez egiten du hori dena: goiza, ..., eta tartea ntranbiaren zarata.

Parte honetan (4-5lerroetan, tranbi-tik aiotsak (min adierazpenak)-arte). Eszena honetan: zarata gehiegi dagoela bere ohiak entzuteko. Eszena, beraz, bisualki baino gehiago auditiboki transmititu du.

Hurrengo eszenan (sispa...) benetan gertatu dena adierazten du; ihes egin du ziurrenik eta tiro egin diote. Bi planoetan adierazten du gertatutako: alde batetik, grebalariai oihuka, eta, bestetik, bere aiotsak eta tiroak. Alabaina opo-zaratekin (grebalariaiekin) ez da entzuten. Suaren bidez iradokitzen du tiro egin izana. Beraz, gertatutakoa gertatu da fondoko zaratak estalita. Eszena pelikuleroa, beraz.

Aurpegi balzdun miatzarijoi igeri hadi eure odolana...! → Guardia Zibilen pentsamendua balitz bezala kontatzen du. Adierazpen hau kontalariak kontatuko balu modu trajikoan kontatuko lituzke. Etsailaren doilortasuna iradokitzen da adierazpen horren bitartez, hi hire odoletan igeri ta gu zelebratzea.

Soinuak hartzen du garrantzia bigarren zatian eta horrek estaltzen du... Koloreek ere bai, usaimenek bat ere ez. Formaren aldetik zerbait. Ezaugarri epiko bezal protagonista-etsai antagonismoa azpimarratu beharrekoa.

2.3 Nicolas Ormaetxea Orixe (Orexa, 1888- Añorga, 1961).

Berezitasuna: bera da idazle bakarra gerra gainditzea lortu zuena. Ez zuten gerran akabatu bai, bai harrapatu (iruñean entzerratuta eduki zuten hainbat hilabetez, baina atera egin zen elizarekin kontaktua zuelako eta hari esker libratu zuten). Berak eskarmentua hartu zuenez gero, Orexara itzuli eta muga gainditu zuen berriz, ez baitzen fidatzen, eta horregatik exilioko idazletzat hartzen da.

Olerkarien maixu izan zen. Olerkarien ondarea, pizkundeko ildo atzerrian mantendu zuen. Atzerriratu zenean, **Euzko-Gogoa** aldizkari gogoangarriaren buru egin zen. Guatemalan sortutako aldizkaria. Euskal literatur sistema ahuldu egin zen gerraren ostean, euskarazko argitalpen, aldizkari... guztiak ez zirelako zentsuratik pasatzen. Atzerriratu egin zen, oinez, Frantzian zegoelarik alemanak etorri eta kontzentrazio-zelaian sartu zuten, eta sartu behar zutenean, ertamerikara joan zen (Guatemala...). Euzko-Gogoa aldizkariko arduradun literario bezala ibili zen, gogoa hitzak testuinguru horretan “arima” esan nahi du..

- 3 egunkari: El dia, Argia eta Euzkadi.
- Jakintza aldizkaria.

Gerra ondoren berriz ere ahuldadea etorri zen, ordea, eta aldizkarietara itzuli ziren (?).

3.GAIA: GERRAONDOA (1937-1963)

1937an jartzen dugu epea, gerra bukatua ez bazen ere, Euskal Herriko territorioan gerra bukatua zen. Gernikako bonbardeaketa apirilean eta handik hilabete batzuetara Bilboko setiotzea gertatu zen. Espainiako gerra, ordea, 39an bukatu zen, bi urte gehiago iraun zituen. 37an hasten da euskal erbestealdia, lehenengo iparraldera joaten dira, aldi motz baterako doazela pentsatzen baitute (aurreko diktaduren ereduengatik), baina aldi horretako diktadura indartsuagoa zela ikusi zuten eta europako indar faxistekin bat egiten baitzuen garaiko diktadurak. Hori dela eta, iparraldetik ertamerika eta ipar amerikara joan ziren.

Gerra osteko atzerriko/erbesteko aldizkari ezagunenak:

- **Gernika** (Iparraldean, 1945-1953. Erbesteratuek bertan argitaratzen dute)
- **Euzko Gogoa** (Guatemala eta gero Donibane Lohizunen errotu. 1950-1959. Kazetari eta idazle finkoak zituen)
- **Igela** jarraitu Parisen, 1959-63. Euskal kulturaren modernizazioaren data (1959) Mirandek idatzitako aldizkaria da, aire moderno bat dauka planteamenduan. Euskal kulturaren eraberritzea aldizkari honen hasieran kokatzen dugu.

Garrantzitsuak dira, euskarazko editorialik ez zegoelako, eta orduan kostu oso gutxiarekin aldizkarietara bidaliz argitaratzen zuten gehienek. Ez zegoen euskaraz argitaratzeko aukerarik. Nostalgia ondo izan daitezke, gerraren ametsetako memoria iraurazten duena urteetan. Euskal kulturari eragindako minak bi hamarkada eragin zuen. Behin 60 ezker, beste aire berri bat etorri zen bai Igela-n bai beste toki batzuetan. Horregatik, 59 arte irauten duengarai bat dago, garaietara egokitzen eta asmo berrietara moldatzen behar dutena. Euskal kulturak galdu duena pizkundearen utopia eta olerkariak, hauetatik recuperatzeko bi hamarkada behar dituzte. Ordurarte ez dituzte momentuan ari den gaiak tratatzen. Filosofikoki existentzialismoa nagusitu zen European 50etan, baina euskal kulturaren ez zen sartu, halako bukale dramatista batean zegoelako. Aldatu zen 59an Igelan, Mirandek bere ikuspegi moralizatzailea mamitu zuelako. Berehala etorri zen **Harri eta Herri (1963, G. Aresti)**. Miranderen igela aldizkariak eta Arestiren Harri ta herri-k espirtu berri baten hasiera emango dute, 25 urteko etapa ilun eta negatibo bati amaiera emango zaio.

Mirandek bere obra gehienak 1950-1959an idatzi zituen, eta ez zen iritsi liburua ateratzea. Hor ikus dezakegu euskal literatur sisteman ezin zirela liburuak egin, kostuak handiak zirelako.

Arestik guk dakigula 1959 inguruan egin zituen bere lehen ekarpenak, eta bost urtean plazan nagusitu zen. Mirandek garai zailtan idatzi zuen baina euskal gerraostean Aresti izango da garrantzitsuena. Aro ilun bat eta aro ilun horretan pertsonalitate desberdin bat deskribituko dugu, hau da, Jon Mirande.

Gerra ostean Euskal Herrian argitaratu zituen aldizkariak:

- **Egan** (hasieran ez zuten euskaraz argitaratzen)

- **Olerti.** Egan baino garrantzitsuagoa, euskal poesiaren berritzearekin koinziditzen duelako. Igelarekin batera Amorebieta-Etxanoko konbentu batean sortu zen, fraile ausart batek lana egin zuen euskal poesia argitaratzeko. Euskal literaturaren foko garrantzitsu bat kokatzen da hor, zentsuraren aurka sortu zuen aldezkaria. Garai hartan Euskal Herrian argitaratu nahi zutenek bertan zuten aukera. Ibilbide oso luzea izan zuen aldizkaria da, Santiago Onaindiari zor zaio iraupen luze hau. *Mila euskal olerki eder* (1955) idatzi zuen Santiago Onaindiak, euskal poesiaren historia egiten du. Onaindiak *Olerti* egin aurrekin egin zuen *Mila euskal olerki eder*.

Euskal Herriaren barruko, hau da erbesteratu ez zutenen artean figura nagusia da **Santiago Onaindia**, Mitxelena ere garai hontako figura garrantzitsuenetako bat izan zen. Mitxelenak sortu zuen Egan aldizkaria.

Exilioan daudenen izen nagusiak Telesforo Monzon eta Jokin Zaitegi. Telesforo Monzon, Erresponstasibilitate askoko gizona. Jokin zaitegi, berriz, Guatemalan *Eusko-gogoaren* finantzaketa eta estruktura bultzatzen dituen.

Telesforo Monzon-en zenbait poemek arrakasta handia izan dute, baina libururik ez zuen. Erbesteratutako poeta zen neurrian, horregatik izan du garrantzia eta ez poetagatik.

horregatik **-Jokin Zaitegi**-rengana joko dugu. Zaitegik *Eusko-Gogoa* sortu eta mantendu zuen. *Eusko-Gogoa*-k subskripzioz funtzionatzen zuen. Mezenas figuratzat har dezakegu (Antoine d'Abbadie (lore-jokoen bultzatzaile) eta Julio Urkijo filologo eta euskal testu klasikoen editatzaile bezala). Aberatsa izan gabe bere dirua horretan jarri zuenez gero, merezi du mezenas izena eta aitortpena. Esan moduan, garaiko idazleek zeuden tokian zeudela hara bidaltzen zituzten beraien testuak, eta horri esker ezagutzen ditugu. Mirandek berak ere 1950-1959 bitartean egindakoak bertan argitaratzen zituen. Guatemalan hasi zuen edizioa, baina 1955 inguruan Donibane Lohizunera ekartzea ekarri zuen sedita, eta hor bizi izan zen berak ya aldizkaria bukatutzat emanda Hegoaldera etortzea erabaki zuen arte. Orixe kontratatu zuen berarekin batera aldizkari arduratzeko. Zaitegi kolegio baten zuzendari zen Guatemalan, eta irakasle-lanengatik ezin zuen dena egin. Bigarren laguntzailea **Andima Ibiñagabeitia** da: euskal itzulpenaren inguruan izen esanguratsua, testu klasikoen itzulpena egin zuelako euskarra. Gainera, Kritika literarioaren esparruan kritikagile nagusi izan zelako Euzko Gogoan. Izen horiek oihartzuna gaur arte: Zaitegi saria, Ibinagabeitia Proiektua (euskal aldizkari historikoak biltzen dituen web-orriaren izena). *Euzko gogoan* harrera kritikoa egiten zuen, sartzen zen testu guztiena, eta horregatik darama bere izena web-orriak.

Salvatore Mitxelena EH barnean sorkuntza literarioaren aitzindaria. Gerra osteko urteetan frankismoak ezarritako ereditik nolabaiteko disidentzia ideologikoa adieraziko dute.

Hasieran hizketa erlijiosoaren bitartez, Arantzazuko prailea zelako. Urteekin, ordea, Kuban bizitzen bukatu zuen, bere konpromisoak geroz eta urrutiagora eramane zuelako. Bere testu bilduma hil eta geero argitaratu zen, bera gazterik hil baitzen. Gogorarazten da urte horietan EHan poesia sortu eta disidentzia erakutsi zuena zelako.

Nemesio Etxaniz eta **Juan San Martin** izen aipagarriak, batez ere bigarrena, elizarekin zerikusirik ez zuen poeta zelako. Bere lehen obra *Aberrri Min* izenekoak euskararen urterik zailenetan idatzi zuen, bere disidentzia ideologikoa ere bazelako: ez zen abertzalea, sozialista baizik; alabaina, lan asko egin zuen Euskaltzaindiaren barrutik. Poesia sozialaren lehen lanak egingo ditu. Halaber, bera da Arestiri bere obra ezagutaraztera eraman zuen kidea. Ideologikoki bi hauek antzekoak (Aresti eta Etxaniz). Poesia sozialaren inguruan ere antzekotasunak dituzte. San Juan Martin-en ezizena Otsalar zen.

JON MIRANDE

irakurgai gomendatua:

http://jonmirande.gipuzkoakultura.net/jon_mirande_pentsamendua.php

Jon Mirande, Parisen jaio zen, 1925ean. Umetan Paris inbaditua eta gaztetan tropak ezagutu zituen. Ez zuen ikasketarik izan, langile klase apalekoak ziren gurasoak. Inteligentzia handia zuen arren egoera ekonomikoagatik eta situazio politikoagatik ezin izan zuen ikasi. 16 urte zituela bulegoan hasi zen lanean eta lan horretan bertan hil zen, hau da, ez zuen anbizio profesionalik izan. Lanetik kanpoko bere denbora ebasiorako erabiltzen zuen, irakurtzen eta literatur munduan sartzen, literaturak eta mundu imaginarioak txoratu egiten zuen. *Igela* aldizkaria sortzean hitzaldi bat idatzi zuen, manifiesto bat. Manifiestoa besteen aldean hobea zarela azaltzeko egiten da. Mirandek gaitzetsi egingo ditu euskararen mendio abertzaleetan zabaldu diren diskurtsoak... manifestu hauek oso modu sarkastikoan egingo ditu. Bere lehen alearen izenburua: *Heterodoxoen xede era egingai bereziak*. Euzko-gogoaren inguruan dauden euskaldun abertzale, zintzo, sinistun... ortodoxoak izango dira. Hizkera sarkastikoa.

Bere obra nagusiak 1950-1959 artean idatzi zituen. Hau da, faxismoaren gorakadaren artean. Data zehatzak ez dakizkigu, berredizioetan... argitaratu zirelako, baina kontestua hori da. Ez daukagu Miranderen libururik; edo daukagun bakarria Larreak erreproduzitakoa, Honen edizioka arazo bat dauka: izugarri exigentea zen obrarekin, eta ez zituen testu guztiak sartu, berak onak zeritzotenak bakarrik baizik.

Aginabeitia eta pertsonaia honen artean (hain ezberdinak) lotura afektibo handia sortu zen. Mirande euskaldun berria zen; ideologia oso eksuindarra, baduena loturarik nazismoarekin, zeinak indarkeriaren erabilera politikoa onartzen duen. Ez talde armatu batek estatuaren kontrakoa, baizik eta estatuak herritarren kontra eginikoa, hori baitzen nazismoa. Indarkeria Miranderen ideologian lotu behar dugu nahitaez, neurri batean bere egitura psikologikoan indarkeriaren presentziak garrantzia eta funtzionalitatea hartzen du. Bere testuetan indarkeriaren lekukotza hainbatetan ikus dezakegu, eta bere denboran ezagutu zuen indarkeriaren errelejo bezala, gazte-denboran ezagutu zuen indarkeriaren parte.

Frantzia dauden beste minoriarekin elkartasuna adierazi zuen, baita bretoiekin ere. Euskal gizartean ez zegoen ideologia bat hartu zuen. Hizkuntza minoritarioen zale amorratua zen, bretoiera, irlandesa... ikasi zituen. Mundu zeltikoen kultura eta erlijioarekiko miresmena sentitzen zuen. Niilismo iluna da bere ideologian dagoen, niilismoak etsipena dakar eta

komponente honek osatzen du bere obra. Maitasuna badago ere ensainatua da, iruzurrez betea, ez dago betetzko maitasunik.

Ideologia nazia eta ultraeskuindar antidemokratikoarekin bat egin zuen. Hori aukeratzearekin batera euskal nazionalismoarekin topo egin zuen. Miranderen rebelamentuak rebelamentu romantikoarekin du zerikusia. Bere poesia sinbolista da; sinbolismoa sentsorialitatean bai, handia, baina ideologia aldetik ez du zerikusirik Lauaxeta eta Lizardirekin. Hasteko, beste ideologia bat du, Mirande frantsesa delako, Frantzian hazi eta hezia. Sensuala zen, erotikaren adierazpena Mirandek lehen aldiz Euskal Literaturan. Ordurarte, beti gorputza filtro batekin traspasatua; Miranderenean filtrorik ez. Sentsorialitatea eta sensualitatea. Gorputz eta sexuaren aipamen asko. Baudelaireren eragina nabarmena da, zentzu honetan.

“Larunbat arrats”. Jon Mirande. *Ilhun argiak*

Sensualitatea badago, baina distantziatik egin (nolanahi ere, hegoaldeko edozeinek egingo zukeena baino nabarmenago). Pariseko larunbat arratsalde bat kontatzen digu, jendeak zer egiten duen... guztiz ezberdina den kokatze mentala: hiri (moderno) batean kokatzen da, eta hirian gertatzen diren konportamentuak ez dira eredugarriak. Bere begiek hiriko “mounstrotsitatea” ikusten dute.

Garai hartan latunbat goizean lana izaten zen, horregatik larunbat-arratsa.

Jendea terrazatan daudela, famili giroan. Bitartean, atzean infernua. Gurasoak daude terrazetan. Umeak zaintzen, baina deskantsuan. Biktima posible batzuk ematen dute (haur legunak).

- *haur lagunak lagun* → aire karsastikoa. Gurasoak zaintzen, baina deskantsuan daude, kasu handirik ez die egiten. Haur legunak biktima posibleak dirudite, bere begiradak perbertsio pentsamendua erakusten baitu: ume horiek giro ilun baten haur erasogarriak, defenditugabeak dira (gurasoek ez dituzte zaintzen).
- *hirihanditarzunez gainezka soak i* → kritika bat dago: hiri handiko jende elegantea bezala konportatzen direla gurasoak, “que van de finos”, elegantetzat, kosmopolitatez.
- *iragaileei ongi nahian* → paseatzen ari direnei superioritate batekin begiratu, giro kortesanoan, terrazetan. Parodiatzen ari da. Beraiek hor dauden bitartean beste gauza asko pasatzen baitira hirian.
- *thu margodunak dizdir ederkiro* → ezpaineak margotu dute edalontzia, baina ederkiro utzi du dirdiratsu: estetikoki begiratu duen irudia, baina morbo puntuarekin. Inplizituki hizketa horrek giro ez oso txukuna iradokitzen du.
- Heri baratzak: parkeak. Jente lizuna egongo da. Errepikapena, parkean daudela neskak. Dolu hipokrita bat da. Agure lizuna neskatxei begira dago.
- Hirugarren ahapaldian → “seguru mozkor bat dela!” Poeta suizidaren ideia interesgarria da, Atxagaren Etiopian, sarrera guztia horri baitago dedikatua. Ideia morboso horiek hamarkada horretako tematika literario dira.

- 1. agure lizuna 2. poeta suizida eta hurrengo ahapaldian hirugarren mailara igo da: pederastak (hauek umeak behar dituzte).
- Gartzen: indartzen (suaren garra)erotismoarekin lotura suak
- *nonbait markisa xahar bat...* → perbersioa maila goragoko batean. iratxo lotxatuak = haurrak, umetxoak. *bil eta hili* → sadismoa. Markismoa eta sadismoa aipatzen baditu, practes de sade : praktika sadikoen aipamena egiten du, haurrak eta neskatxak direnak, eta iradokitzen ari da hil ere bai.
- Jokoak egiten ditu: bil eta hil, so eta jo, oinak soinak
- Pariseko irudi honek ez ddauka sinbolismo lauaxetar edo lizardirenaren antza. baina sinbolista da.
- Pariseko giro ilunak erakutsi dizkigu.
- Ezkutuko paris aipatu ondoren, Paris ona edo jende zintzoaren Paris erakusten digu.
- Igandean presentable egoteko garbitzen direla esaten digu.
- “Txerriak ezkurak amets” esapidea aipatu.
- Bigarren zatiko jendea ez zaio lehenengoa baina hobea iruitzen. Ironikoki aipatzen ditu.
- Amaieran: Paris horrelakoa da, eta ni ere banoa ohera. Iluntzean denak goaz ohera eta horrek berdintzen gaitu.

Mirande kritikoa da, eskandalo pixka bat jarriko dio. Ikuspuntu burges kritikoa bat izango du. Garai hartako euskal gizartea kontserbadorea zen, elizaren ondorio izan daiteke hori. Mirandek ez zuen ikuspegi burges komodo hori babesten. Bere testuetan asmo probokatzailea dago, Euskal Herria aldatu egin nahi zuen, ez zuen maite momentu horretan zeukan perfila. Bere testuetan (larunbat arrats) hiriaren perspektiba bat erakusten digu eta berak ere horien ondotik aurkezten du bere burua, baina hiriaren begiratu kritikoa aurkezten du. *Epate* → Burgesak harritu eta probokatzera da asmoa. Alabaina, ez zen jokatzeko ezkerreko, baizik eta eskubira. Burgesiak amorrarazten zuen, baina ez proletarioaren eskubideen ildoetatik zegoelako, baizik eta burgesiaren gaineratik dagoen jende aukeratuaren (“aristokrazioaren”, gutxiengo aukeratu, intelektualki burgesiaren gainera) ikuspegian kokatzen zen. Nazismoarekin ondo ezkontzen da hori: giza-talde batzuk beste batzuen gaineratik sentitzen dira. Beraien ustez beraiek gehiago balio dute besteek baino, eta erabakiak ez dituzte guztiak hartzen, gaineratik dauden intelektualek baizik.

Eresi poeman dagoen protagonista gudari moduko bat da, goren mailako eredu bezela planteatutako gudaria da. Beren asmoen alde bizia ematea da gudariak egin dezakeen gauzarik handiena. Eresia deritzogun poeman nazismoak hedatutako protagonista nagusia dago: bere taldearen izenean denean inplikatzeko den pertsona hori. Soneto bat da, Sonetoko rimak kruzatuak egiten ditu, honek zailtasun gehiago du. Testu honek, beraz, elaborazio metriko handia dauka. *Oroituz*-en bezala, hemen ere gerlaria dago, eta gerlariaren goraiamena. Europako XX. mendeko lehen erdian egon zen faxismoarekin desarrollo handia izan zuen. Gerlariak egin litekeen ekintzarik handiena egiten duelako perspektiba dute. Esentzia bihurtzen dute, gizakiaren helburua gerlari izatea, horren gorifikazioa da testukoa. Heriotza glorifikatzen da.

Eresi hitza euskaraz termino teknikoa da, kontaketa bat esan nahi du. Hau da, testu bat, non narrazio bat egiten den. Kontaketa epiko tankerakoak dira. Kasu honetan, ez daukagu kontalaririk protagonistaz aparte. Beraz, protagonista da kontalaria. Bera da bere buruaz hitz egiten duena. Lauaxetaren poeman langile eraildu baten inguruan hitz egiten digute kanpotik, baina oraingoa, berak hitz egingo du gertatzen zaionaz, berak kontatuko du.

Berez heriotza sekula ez da polita, ezta heroena ere. Hau, gudariaren heriotzaren estetizazio ariketa bat da. Kasu honetan, ez dago biolentziaren erabileraren glorifikaziorik, *oroituz*-en ez bezala. Alde horretatik Mirandek debateak bultzatuko ditu, indarra daukanak bestek suntsitzeko ahalmena duela landuko du.

Bere testurik garrantzitsuena eta ezagunena da. Poema honekin Oskorrik egin zuen bertorio bat, oso famatua. Fran Lasuenen ahotsean. Gerrari buruzko testu bat da, gerrari buruz hitz egin daiteke modu epikoan edo modu lirikoan; lirikoan hitz eginez gero, gerra heriotza eta sufrimendua da. Sentimenduez hitz egiten du, ahots lirikoak hitz egingo du horretaz. Gerlari batek ebzala planteatzen du egoera. Gogotsu. Lehenengo pertsonan, enuntizazio aldetik autodiegetikoa da: modu epikoan eta 1. pertsonan hitz egiten du. Epikoki ari bazaigu gerlari buruz, ez da beldurrean sartuko; hiltzearena, maiteena... elementu horiek deskartatu egiten dira. Sentimendu naturalak dira? Erdizka, badira beldurtuta daudenak eta badira gerra egin nahi dutenak. Hemen, alderdi bati buruz bakarrik hitz egingo du, esentzian kokatu du errealitatearen parte bat bakarrik, gerlariak gerlan hil nahi du, gerra egitea da bere esentzia.

Bestalde, normalean gerlariak asmo bat dauka, zerbaiten alde borrokatzen du, testu honetan motibazioez (zergatik egiten duen gerla hori) edo motiboen ukazioa ikurrina aipatzen duenean, otoitza erlijioak dira. Berak, motibo patriotikoa ukatzen du. Ez du banderengatik egiten. Berak esaten du ez bata ez bestea, bera, ezin dezakegu identifikatu alde horretatik. Bandera eta intsigniak ukatzen ditu, beraz gerla ez du egiten motibo patriotiko batengatik ere, ezta erlijio motibazioagatik ere (otoitzik ez). Orduan, soldadua motibazio aldetik jantzi gabe uzten digu. Bere motiboa beste nonbait dago. Badago motibo bat, motibo aski abstaktua, ezin dezakeguna gerla konkretu batean koka; hori *Euretzako* esaten duenean ikus dezakegu, lurrarentzat. Gainera, hika hitz egiten dion zerbait da, motibo bat seinalatzen du baina ez da benetako jainko bat baizik eta idolo bat (jainko faltsuak *jainko-aidol* baten alde ematen du bere bizia. Ez dauka ejerztiroik, bera bakarrik ikusten da. Akiles bezalako gerlari bat. Gudari hau ez da mendigoxaliak agertzen diren gerlariak bezlakoa, kolektiboa. Hemen indibidua da, bera da protagonista. Bere heroikotasuna berea da, bizitza eman nahi du lurraren alde. Halako heroe esentzial bat izango litzateke. Idea hori, supergizonaren teoriarekin lotu behar da, Nietzsche-rena,; neurri berean, lotuta dago baita ere nihilismoarekin: ez dago printzio bat edo helduleku bat mundua esplikatzeko, beraz, ez dagoenez deus, ahal duen gehiena atera behar du bere bizitza aukeratik. Halaber, reenkazioaren teoriaren kontsolamendua egiten du Nietzchek; “eterno retorno”-ren ideiarekin, nahiz gudari bezala dena eman, eternoki bizi etae hil etengabe egingo garenez, itzuliko da. Testu honetan reenkazioaren ideia argi ikus daiteke bukaeran: *berriz sor aiduru*. Beraz, bizi bizitza, gizakiaren destinoa borrokatzea, berarekin ateratzen saiatu.

Testu honetan sinbolikoki eguzkiak halako triangelu perfektu batean jokatzen du: batetik lurra, bestetik eguzkia, eta hirugarrenik, mendia. Elementu horiek gudari esentzial (akiles epiko) eszenario berezi batean kokatzen du: Espazio mitiko batean, naturaren erdian, ehriotz perfektua gerta daitekeen tokian. Naturan ere ez edonon, goian, mendian (mendia beti da aszenzioa, espiritualitatearen tokia). Bi aldiz, *mendia* aitatzen da. Mendiguda, sinbolikoki leku elebatuetan gertatzen da, horrek halako sublimatasun bat ematen dio. Hor gertatzen da gudari honen heriotza.

Nazismoarekin lotzen da; izan ere, nazismoak propaganda latza egin zuen bi gauzetan oinarrituz

1. **Superioditatea:** Beren nazioa besteen gainetik zegoela, eta horregatik gailendu egin behar zutela, besteei agindu eta lidergoa hartu. Arrazaren printzipioan oinarrituta. Konbikzio hori propagandaren bitartez lortu zuten, beharrezkoa nazismoa itsasteko eta hedatzeko, eta onartzeko arrazaren ahuldadearen elementuak ezabatu egin behar zirela (ume atzeratuak, elbarriak...=garbikuntza genetikoa). Besteak menderatzeko ejertzitza behar da, eta ejertzitza soldaduak, bere bizia emateko prest daudenak bere lurraren alde.
2. Gudari hautatuak, soldaduen glorifikaziorako propaganda handia egin zen; diskurtsoetan hori zen helburua, soldaduak glorifikatzea, pentsa zezaten supergaitasunak zituztela. Idealizazioa.

Testu honetan dakusagu garbizalea dela. Ikurrina darabilenean, ez da gureaz ari, banderaz baizik, orokorrean. Beraz ez dugu klabe euskaldunetan irakurri behar testua. Gainerakoan, testuak baliabide oso nabarmenak ditu.

Oroituz:

Oroituz poema ere gerlariaren gorasalea da, zaldiz borrokatzen denez erdi aroan koka dezakegula pentsa dezakegu. Baina *Eresirekin* antzekotasun formalak dituzte, esaterako, sonetoak dira biak. Biolentziaren erabilera glorifikatuta dago, hau da gerlariak maitatu behar du erasotze hori. Sonetoak: 4-4-3-3. Euskaraz hamalauduna ere deitzen zaio. Bere zailtasun handiena lerro bakoitzean dagoen rima da. Sonetoak egiten dituen poeta kultoa da, molde zaila baita. Lauaxeta eta Lizardik soneto guxti egin zituzten, Mirandek ordea, euskal sonetorik hoberenatarikoak egin zituen. Miranderen poema gutxi ezagutzen ditugu baina erreztasun handia zuela erakusten duten lanak dira denak.

Miranderen beste ikuspuntu bat agertzen da, orain arte miranderen hiri ikusi dugu. Miranderen gai nagusiak:

- Lehenengo, hiri baten atzean dauden bizimodu desberdinak agertu zaizkigu. Baudelaireren ereduak gidatzen du hiriaren gaian. Sinbolismoaren lehen eredu nagusia Baudelaire izan zen, hiriaren transondoetan zauden bizierak ikusten ditugu beragan. Gaiztoan/txarrean ere edertasuna dagoela defendatzen du. Ez da kristautasunaren ideologia, beraz. Eder eta gaizto-aren arteko sinbiosia egiten du,

erakargarri egiten zaizkigula zinez okerrak eta gaiztoak diren gauzak. Hori da baudelaire-ren *Las flores del Mal* liburuaren gakoa. Horren oihartzunak daude Miranderen poesian, eta batez ere hiriari lotuta, Pariseko airea Baudelaireren tesuetan oso presente baitago. *Flaneur*-aren ideia: begiratzaileria, paseantea, besteak behatzen ari dena. *Flaneur* hori figura literario. bezela lehen aldiz Baudelairek sortu zuen, eta hiriko bizitzaren detektibea da. Horrek hiriaren bizitzaren interes estetikoa ekartzen du (nolakoa da hiria?), ordurarte ere egiten zen hiriaren obserbazioa, baina soziologikoa zen interesa. Dickens-en edo Galdos-en nobeletan dago hori. Honek, ordea, interes estetikoa. Hiriaren alderdi estetikoari asko begiratzen die.

- Bigarrena: Gerra, gerlaria, indarkiaren erabilera eta ideologia.
- Hirugarrena: Neskatxa gazteekiko interesa. Haur Besoetakoa nobelan tratatzen zuen tematikaren hildokoa. **Lolita** deritzegu neska adolezente bat ohikoa baino erneago dagoena sexualki edo gizonari hala dagoela iruditzen zaiona. Nagocov idazle errusiar (baina Frantzia hazitako) baten nobela da. Eskandalagarria da. XX. mendeko erdiparean idatzi zen nobela hau arte bazeuden lanak horri buruzkoak. Gai hori askotan tratatu da. Ninfula deitzen zaie (ula minutiboarekin): ninfak pertsonaia mitologikoak dira, eta basoarekin, urarekin lotzen ditugu, eta euskal ninfulak lamiak dira. Ninfulak izaki mitologikoak dira, baina ez dira zuzenean errealitateko neska adolezenteekin lotzen. Eufemismo bat da hitza, gizon helduen neska oso gazteetiko interesa ezkutatzeko modu bat.

Edgar Allan Poe-ren obretan ere antzeman dezakegu hori. Poek eragin handia izan zuen Miranderengan. Poe interesatzen zitzaion narratibaren aldetik, beldurrezko gaiak tratatzen zituelako, eta Mirandek horiek itzuli zituen. Atsegin zuen bere unibertso tenebrosoa. Poe bere hamairu urteko lehengusu batekin ezkondu zen, eta gai horren inguruan idazten zuen. Beraz, Mirandek badauka eredurik gai honetaz idazten duenean.

Planteamendua eresi-ko antzekoa da, baina garaia beste bat, II-III mende atzera eginda, zaldizko gerlak ordukoak baitira. Indarkeriaren glorifikazioa dago, indarkeria eta etsaiak lurperatzea zilegi da bere ustez, indartsuagoa bazara eta gerra irabazi baduzu, ez dago zertan damutu.

LARRAZKEN GAU BATEZ (“the mad pride of intellectuality”) *Magdalanae dilectissimae meae*

Izenburuaz: Poe-ren hitzak dira ingelesezkoak. Intelektualen harrokeria zoroa esan nahi du. Pertsonaiarengan zerk agintzen du, arrazoimenak ala sentipenak? Arrazoimenak aginduko duela pentsatzea harrokeria da, sentimenduak menderatzen baikaitu. Poetak desira handia izango du hamairu urteko neskarekiko, baina arrazoimenak ezinezkoa dela esango dio. Sentimentu eta arrazoien arteko disidentzia klabea da testuan. Bestalde, eskaintza bat dago, latinez formulatua: Magdalena ene maitea.

XIX. mendean Poek normaltzat zuen horrela ezkontzea, baina Miranderen garairako (XX. menderako) arrazoimenak esaten dio hori ezinezkoa dela. Ehun urtean emakumearen kontsiderazioak aldakuntza izan zuen. XIX. mendetik XX. mendeko erdirarte asko aldatu dira, ezkontzarako baimenak... Antonio Machado (bere 45 urteekin) 15 urteko Leonor-ekin ezkondu zen. Gerra aurretik zen, 1920 baino lehen. Beraz, kasu horiek hor daude.

Testuaren azterketa:

- Lehen ahapaldian: Bakardadean jende artean isolatua dago, gogotzarrez, melankoliaz. Jendearekin ez dago gustora, jendea hildako fantasmak bezelakoak zirelako.
- Bigarren ahapaldia: arreta erakartzen dio nerabeak (ez aspaldi haur zena). Hau da, Haur Besoetakoan dakusagun Teresa. Bere tristurak lokartu ziren (metafora bidez esana) konturatu zenean haur izatetik emazte izatera igaro zenean. Ez ditu tarteko estazioak bereizten: haur izatetik emazte izatera.

Phindarra: suaren inguruko terminoa (pasioa). Phindarra piztu: pasioa piztu, erakarmena. Lehenago hotz aipatu digu, eta orain suaz. Beraz, antitesiak joku garrantzitsua du. Izarrak isladatzen du neskaren begirada. Begi zohar: neskaren begiradaren argitasuna esan nahi du, argitsu. Ilunaren eta argiaren arteko jokoak garrantzia du, semantikoki antitetikoak. Lehenago hotz eta orain sua, iradokitzen du poeta ez dagoela hain hotz dagoeneko, suak hori iradokitzen du.

Arimaren hizkuntzak transmititzen dio berak bere nahia ere. Gero, ikusoko dugu ezetz, fisikoa ere badela kontua (*ahoa ezitia zuen* → musuak egon dira, kontaktu fisikoa egon da).

Lehen zatian erakartze momentua adierazten du, Lehenik bera bakrrik htoz eta iluntasunean sentitzen da, eta gero, suaren inguruko lexikoarekin pasioa ematen du aditzera. Gaiari beti ematen dio espiritu mistikoa, arimaren hizkuntza hitz egiten diola esaten duenean. Bere barreneko desirak ezagutzen dituela neskak iradokitzen duenean.

Lehen zatian gertaera sentimental/emozionala ari da kontatzen. Gustatzen zaio begiratzea eta sorgindu egiten du horrek. Lehen ahapaldian hotz eta ilun, gero bero eta argi (phindarra, sutoia., begi zohar...). Elementu horiek esaten dute gaizki zegoela eta argi bat piztu dela bere baitan.

Bigarren zatian arrazoimena agertuko da, “the mad pride of intellectionality”, *arrazoimena*.

- Hirugarren ahapaldia: odolak bereizten ditu baina odolez bat dira. Hau da, familikoak dira. Gizartean nahi gabeko araua zen, are gehiago Miranderen garairako, genetikari buruzko legeak (gaixotasunak...) ezagutzen baitziren. Modalizatzaileak garrantzitsuak: *hargatik*. Baina / Hala ere-ren baliokidea da, sintaktikoki asko iradokitzen du. Paradoja hori (odolarena) Miranderen adierazle da.

emazte-haurra → hitz konposatu bezala sortzen du, nerabe hitza beharrean. Beste paradoja bat, ez da berarentzat baina bere izanaren zati da. Paradoja figurekin jokatzen du, enfasia jartzea da helburua, intensifikatzea.

Arrazoimenaren agindua ikus dezakegu: odolak bereizten zaitu, emazte-haur hori ez da zuretzat, pasioa ez da zilegia (gizartearentzat),. Baieztape oso reasonableak egiten ditu, modu oso literarioan (paradojak). Baina galdera erretoriko batekin egiten du protesta: asmatuko ote dut hori gabe bizitzen? Ahaztuko al dut? Atal hoenetan bere borroka inteligentziarekin eta arrazoimenarekin dago. Gizarte arauak debekatzen diona onartu behar du. Zati hau, gainerako hirurak ez bezala, ez da relatoaren parte.

- Laugarren ahapaldia: Amaieran adieraziko du nola gainditu egoera hori. Berrito argitasunaren aipamena egiten du. Arimaren-gaua metafora. Arima triste dagoenean gauetz dagoela esaten da literaturan. Triste zegoen baina iraun egiten zuen argiaren ilusioak. Arrazoimenaren jakintzak neskarekin zerbait edukitzeko zerbait itzali dio, argi hori, kandela hori. Metaforikoki arrazoimenaren eta desiraren pertsonaiak sortzen ditu, eta beraien artean zeloak sortu. Gure desirak arrazoimena baino gehiago direnez, zeloengatik egin du argi hori. Borroka abstraktoa. Borroka zeloengatik hiltzen du. *Otezko jainkoa*, beste pertsonaia bat agertu zaigu, balizko jainkoa. Iradokitzen du moral kristaua dela debekatzen diona. Ez dago beraien sentimenduen aldeko balizko jainko hori. Beraz bere baitan arrazoimenak irabazi du eta hil du bere baitan sortutako ilusioa. Borroka intelektual gisa interpretatzen du sentimentua eta arrazoimenaren artekoa. Tartean bi elementu horiez gisan, erlijioa ere badagoela esaten du.

Agindu arrazionala dago, baina horrek ez du bere desira itzali. Bere gorputza ideala bere ametsentzat.

Bi esklamaziorekin bukatzen du, protesta adierazteko erabiltzen dira. Ze nazka sentitzen dudan arrazoimenaz hitz egin beharraz bera hain sentimendu zale izanda. Arrazionalak kontrolatzen ditu bere ekintzak, baina nazka ematen dio, bera pertsona bihoztoia baita. Duen hotzaz ari da, berrito hasierara itzuliz. Ni ez naiz arrazionala, sentimenduetan bizi den pertsona bat naiz, arrazoimenari jarraitzeak nazka ematen dio. Antitesi baten adierazpena jakintzaren arabera jokatzen dut baina pertsona sentimentala naiz eta horregatik sentitzen da hotz.

Testu honetan hobeto mintzatzen da sentimenduez Haur Besoetakoa-n baino. Noblea horretan ez da jakin-ara mugatzen, jakintzak aholkatzen diona baino haruntzago joaten da. Nobelan fikzionalizatu zuen harreman horren jarraipena, hemen eten egiten duena. Bere barruko borroka, ordea, oso ondo dago adierazia.

Metaforak ugariak dira. Irudiak: hotz eta argia, izarrik ez eta beroaren inguruko tematika. Pasioa literarioki suaren inguruko terminologiarekin jartzen da (piztu, argia, phindarra, ezkoa (=argizaria)). Gauza konkretuez hitz egin beharrean, jakintza, arima, gaua bezalako

terminoen bitartez adierazten du sentimenduen eta arrazoimenaren arteko borroka. Testua, literarioki, horregatik, ondo egituratua dago.

Dauden lokailuek pistak ematen dizkigute testua nola egituratua dagoen. Egitura narratiboa daukagu, bere baitan gertatutako borroka kontatzen digu. Borroka horretan momentu dezberdinak daude: hasierako egoera, aldaketa eta bukaera. Hirugarren ahapaldian hausnarketa bat, zeinetan ez den aurrera egiten narratiboki; alabaina, hor dago kokatua borrokaren muina. Narrazioak, beraz, 1,2 eta 4. Amaieran borroka bukatu da, eta melankonia eta hoztasuna geratzen zaizkio. Beraz, zatitu behar izanez gero, korapiloa hirugarren ahaoaldian, Hasierako zatiak eta amaierakoak antzekotasunak, berriro ere hotza gailentzen delako.

ez-ez-ez → ezezko horiek, paralelismoak iradokitzen dute debekua eta zentsura.

OHIKO JAINKOARI

Kristautasunaren kontrako eraso zuzenaz ari da. Euskal eremuan testu honek izandako itzala aztertuko dugu. Naziek kristautasunaren aurkako jarrera nabaria izan zuten, baina ez ziren zuzenean elizaren hierarkiaren kontra zuzenean egin. Erlijioak asko molestatzen zien. Alde horretatik hartu zezakeen kristautasunaren amorrua, baina baita bere ustez euskal gizartea kutsatuegi zegoelako kristautasunaren moralarekin. Helburua euskal moralistak eskandalizatzea zen. *Ohiko* hitzarekin, jainko kristauari egiten dio erreferentzia. Arameo hizkuntzan idatzitako testua ageri da hasieran, *Eli, Eli lamma-sabakthani?* urtero-urtero kristau guztiek aste santuetako ostegun santu guztietan entzuten zuten esaldi hau. Eli jaungoikoari izena. Eszena, Jesus detenitu orduko da, berak badaki zer datorkion, tortura. Angustiaz bete dago Jesus, bere kideei berarekin egoteko eskatu zien, berarekin joateko al monte de los olivos, bera apoiatzeko. Jainkoarekin hitz egiten zuen Jesusek. “jainkoa jainkoa zergatik abandonatu nauzu”. *Eli, Eli lamma-sabakthani?* esaldi honek zergatik abandonatu nauzu esan nahi du, jaunogikoak leku traketsean utzi zuela eta tratu txarra emango ziotela esan nahi du. Jesusen hitzak hartzen ditu Mirandek, anibalentzia batek kokatuko da poeta, erlijio kristauak bera abandonatu duelako. **Abandono sentsazio** hori da testuan inportanteena. Kristau bezala, abandonatua sentitzen da, galderak zituen eta ez zizkion erantzun. “zuk utzi nauzu.. Zergatik arren?” esaldi hori *Eli, Eli lamma-sabakthani?* da euskaratuta.

Erlijio kristauarekin ez dagoela ados ikusten da, baina batez ere abandono sentsazioa: fededuna zen, baina fedea galdu du abandonatua sentitu delako; ez dizkiote zeuzkan galderak erantzun.

Ahapaldi guztiak Jesus-en euskarazko izenarekin hasten dira, garai hartako kodigo garbizalea (Josu). *Josu bar Joseph* → josu hijo de (bar) joseph. Juduen filiazio sistema da. Daukan enpeinoa josu hijo de joseph esateko (zeina ez den testamentu berrian esaten) filiazio sistema judua ari da nabarmetzen. Judu-seme ari zaio deitzen, joseph-en semea dela nabarmetzen

du 7 bider gutxienez. Jesusen judutasuna azpimarratzeko enpeinoa du. Insultoaren edo akusazioaren mailan hartu dezakegu. Zazpi bider bere judutasuna akusatzen du. Faltadatzat hartu behar da.

Lehenengo ahapaldian, esaeten da, Jesus ea zergatik ez zuten umetaz hil. Jesus templora joaten zen sermoiak ematen, eta ea zergatik ez zuten judu zaharren batek umetan hil. Umetan hil balitz Jesus Mirandek abantaila, kristautasunik ez. Umetan hil balute arazo gutxiago. Juduei gutxiespen edo ebraien inobleziaren akusazioa. Judu zaharrek judu gazte bat jota mztotu? Herrialde biolento bat. Judu zaharrek judu gaztea hiltzea gustoko ez dutelako. Juduak inongo printzipiorik gabe bezala deskribatzen ditu. *Nazare* aitatzten da, Belenen sortu baina, Nazareten bizi baitzen Jesus. *Judu, Judu...* errepikapena. Zuhaitz gaztea, umetan erraza izango litzateke zu hiltzea. Lehenengo pasartean juduen kontrako adierazpenak, baita mroalki ere edozer gauza egiteko gai direla sugeritzen baitu.

Bigarren ahapaldian, esaten du ibili dela elizetan kandela horien artean sua, pasioa eta fedea sentitu nahian. (Kandela ('ezkoa')→ fedea). Rabbi ('maisua') termino judua mantentzen du, insistentzia egiten du juduarena. Komentatzen du sinisten duela jainkoetan eta baita aingeruetan ere (ironia). Ironia, *eresi*-n inon ez dakusaguna, asko ageri da hemen, estrategia intsultanteak, asmo eraskor eta sarkastikoz.

Niilismoaren printzipioa errotzen ari da. Frantzian urte lehenago, hegoaldeko idazleetan 60eko hamarkadan.

Komentario bat egitekotan, ideien aldetik hau azpimarratu:

- Abandonoaren ideia: bere amorrazioaren erdigunea da.
- Gorrotoa edo mendekatze biolentoaren gogoia: bukaeran (guruzifikatzearena) eta hasieran (jo ta mztu)
- Jesus judua zela azpimarratzea (filiazio sistema (bar)-n oinarritua). *Rabbi* hitzaren erabilera. Arameo hizkuntzako hitzetan inplizituko mezua: Jesus judua da.
- Erljioaren insistentzia hasieran dauden anaforekin egiten da hain enfatiko. Rosario errezu bat bezala, ez eskatzeko, ezpada akusatzeko eta erasotzeko. Bokati-boaren erabilera.
- Bere ahaleginak fede hori mantentzeko. Eta baita gerora dezepzioa ere. Saiatu da, baina erantzunik ez, hoztasuna, zuhurtasuna... bueltan. Kontraste hori izan daiteke testuari berezitasuna ematen diona. Izan ere, badira erlijioaren inguruko beste testu batzuk, baina hemen haina ez da inon esaten saiatu dela.
- Umore exaltatu eta amorratua. Ironian ikusi dugu (ondikitz!), biolentzian (guruzifikatzean)
- Estructura antitetikoa: bera saiatzen entzuten eta bestetik ez diote erantzuten, ero deitzen diote... azkenean zaputz/dezepzioan bukatzen da.

Literarioki, bestalde:

- Anafora: *Josu bar-Joseph*, zazpi aldiz.

- Metaforak: Irudi metaforiko bezala kandelen ideia itsasten zaigu, kandlek beti adieratzen digute fedea. *Ezkoen suan, argizaria makhur, argizaria ezpain hertis parrez zegoen* (burlaz). Argizariak poeman zehar duen eboluzioa, bere fedearen erantzunak nolakoak diren adieratzen du modu horretan. Kandela sinbolo gisa. Fedearen sinbolo gisa kandela. Knadelak gaur eun ere, fede kristaua sinbolizatzen du.
- Konparazioa: *zuk ereitean nola gari goi-elheak* gariaren aipamena egiten duenean, elizaren elementuekin jokatzeko ari da. Garia, gururtzea, kandela.. ritualaren barruan jolasten dutenak.

***NIL IGITUR MORS EST...* (ezer ez da orduan heriotza → heriotza ez da ezer)**

Eresi testua bezain ezaguna hau. Nil horrela idatzirik ageri bada ere, gehiago ikusten dugu Nihil bezala, eta ezer ez esan nahi du. Nihilismoaren pesimismoan kokatua da. Korrante filosofiko horrekin lotzen da. Politikaren adar bat ateratzen da hortik: ezer ez badago, berdin da zer egiten dugun gure hleburua lortzeko. Kasu honetan, bere bertiente politiko-soziala ez du hartzen ordea, existentziala baizik; bizitzaren zentzuaz hitz egiten du.

Nihilismoa sentimendu bat da, XX. mendeko filosofia: ez dago jangoinkorik, ez dago mundua antolatzeke lege orokorrik. Gero, existentzialismoa mende erdiko mugimendua da: nihilismoa hartzen dute baina positibo bilakatzen saiatzen dira. Testu hau nihilismoa da ez existentzialista. Baina bai existentziala, bizitza eta heriotzaren auzia tema zentrala delako. Lizardik berak ere tema existentziala zekarkigun, naturaren zirkuloan kokatzen zuen.

Hemen, beraz, bizitzaz eta heriotzaz ari da pentsatzen, maila existentzialean. Bere testurik konplikatuenetarikoak da. Nihilismoaren printzipioa da izenburua: heriotza ez da ezer ze bizitzare ez da eta ezer.

Hasierakoa girote pasartea da. Mometnu melankonikoan bizitzaren zentzuaz pentsatzen jarri. Bizitzak zentzua duela dirudi maitasunarengandik, baina berak ez dio zentzurik hartzen. Bizitzaren ideiak (umeak jolasten, maiteminduak) harra barruan duen sagar ustela iruditzen zaio, galdu egingo dela dena.

Maitasunaren liluraren gezurrean dago zentratua bigarren ahapaldian dakusagunez. Beleak hildakoak jaten ditu. Sagarraren barruan harra dagoen bezala; maiteminduak uste dute zoriontsu direla, baina beleak zain daude. Munduko honetan gauz guztiak galkorrak dira.+-

Silogismoa.

4. gaia: POESIA SOZIALA eta SINBOLISMO BERRIAK

GABRIEL ARESTI

Helburua aldatu: mezua helaraztea izango da guztiz inportantea; alde horretatik, Mirandek eta lauaxetak giten duten saiakera kultifikazioaren aldean, oraingoek mezua dute xede, komunikatzea. Kodifikazioa.

Alabaina, eragozpen bat dago: diktadura baten gainean egindako literatura da, eta intelektualak pentsatzen duena ezin du argi eta garbi esan; entenditzeko eran esan behar du, baina zentsurak ez harrapa dezan egina, aldi berean. Zailtasuna, beraz, hortik dator: zentsurak enmarkatzen duen egoera batean egiten da literatura, eta hori da poesia sozialaren ezaugarria. Horregatik Aresti argi eta garbi mintzatzen dela dirudien arren, badakigu nahi zuena ezin zuela esan. Berea kamuflaje artea da, zentsuraren eragina nabarmena da. Bere posizioa ez da Lauaxetaren edo Lizardirena bezala giroko ideiak zabaltzen ari, positibismotik. Miranderena, guztiz kontra dagoen egoera. Arestiren kasuan, ez bata ez bestea.

Gabriel Arestik egin zuen literaturak gainditu egiten du poesia sozialak hain zuzen ere. Bere garaiko egoeretara egokitzeko premia. Arestik poesia soziala egin zuen, baina ez hori bakarrik. Mezuari garrantzia eman zion, egiten zuen literaturak jendearengan eragin behar zuela uste zuen, eta horregatik egin zuen poesia sozialerako norabidea.

1933-1975 gazterik hil zen. Lizardi eta Lauaxeta bezala gazterik. Gibeledko gaixotasunez hil zen. Bizitza osoan diktadura ezagutu zuen. Bilbon gerra hasi zen 1936an eta beraz nazionalak egindako ?, Bilboren erorketa... frankismoaren lehen urteak ezagutu zuen. Urterik gogorrenak. Umetan bere zeregina zen zaku bateaz ibiltzea zen ea zerbait biltzea lortzen zuen (fruta, ikatza...). Umetan eskuratu zutrena lapurtuz eskuratu zuen. Kultura ere lapurtu egin zuen. Neurri batean debekatuta zegoen esukal kultura ere lapurtu. Euskara guxti Bilbon eta bere kontzientzia euskalduna hartu zuenean Bilboko Bidebarrieta liburutegian euskara irakurriz ikasi zuen. Autodidakta zen, eta gerora elkartu zen euskaltzaleekin. Berarentzat, autodidakta, oso garrantzitsua izan zen Axularren Gero. Bidebarrietako liburutegiko urteak dira Aresti euskaldundu zutela, nahiz gerora besteekin elkartu eta sartu zen giroan.

Bere lehen lanak *Euzko-Gogoan* (1954-1956) argitaratu ziren, oraindik Guatemalan zegoen garaian. Beraz, Arestik Bilbon idatzi, sobrea sartu eta Guatemalara bidaltzen zituen. Han zuzendu eta inprimatu eta zabaltzen zen. Kontestua, beraz ulertu bejar da: zaila zen bai idaztea eta bai idatzitakoa argitaratzea. Lehen lanak *Egan* (1956-)-en ere argitaratu ziren, Donostian. 1959-1960 urteetan bere poema garrantzitsuenak argitaratu zituen. Orduko testuak oraindik ez ziren poesia soziala, esate baterako *Maldan Behera*, baizik eta poesia sinbolista zen. Jon Mirande zen bere erreferente. Mirandekin bat egiten zuen abertzaletasunak moldatutako mundu tradizionalarekin, baina inolaz ere ez dugu ideologikoki Miranderen multzo berean ikusi behar. Literaturaren aldetik, ordea, Miranderen ildotik tira zuen.

Arestiaren Poesia sinbolista.

Sinbolismo europarra, anglosajoa zen bere modeloa: T.S. Eliot-en *La tierra valdivia* influentzia nabaria izan zuen. M.Gainera, egiten dituen aipamenengatik badakigu Espainiako poeta batzuen miresle zela: Pedro Salinas eta 27ko belaunaldikoak (Juan ramon jimenez eta garcia lorka).

Intelektualitate maila altuko irakurleentzat egin zuen fase honetan.

Aldi berean urte berean *Bizkaitarra* izeneko poema argitaratu zuen, guztiz ildo diferentekoa. Bertsolarien ezaugarriak bereganatzeko ahalegina eta hizkeraren bitartez irakurlego zabalagoarengana iristeko nahia ikus ditzakegu. Hori idaztean Jose Ignacio Barrutia idazleak idatzitako *Gabonetako Ikuskizuna* lanaren ergainpean zegoela pentsatzen da. Berak ikasi zuen euskara lapurtera izan zen, eta hortik egindako ahaleginari esker iritsi zen Bizkaitar idazleetara; baina bere oinarria literatura idatzia izan zen, tradizionala, gramatikoen bitartez ikasi zuen euskara. Bere eredia literaturaren oinarritik etorri zen. Ordea, *Gabonetako Ikuskizuna* (antzezlan bat, euskara oso bizian idatzia) ezagutzean (50-60etan), flasheatu egin zen horrekin. Ohartu zen bazegoela euskara literario bat apaizen hizkeratik ez zetorrena, antzerkian oso bide herrikoietik literatura oso ona egiten zuena. Erregistro literario horretara hurbiltzeko ahalegina egin zuen, eta horren fruitu da *Bizkaitarra*. *Gabonetako Ikuskizuna*-ko pasarte batzuek oinarri.

Beste faktore bat, elementu sistemiko: sari literarioak, bere fortuna. Berak ez zuen dirurik, bulegaria zen, kontable bat fabrikan. Liburuak argitaratzeko bide nagusia garai hartan sariak ziren, sarietara presentatu, irabazi eta dirutxo bat lortzea. Horri esker argitaratu ziteun bere lehen 3 obra nagusiak: harri eta herri, harrizko herri hau (eta maldan behera. Euskaltzaindiaren sarietara presentatuta lortu zuen.

Ikuspegia aldatu zitzaion ordura arteko literaturaz. Abertzaleen artean zegoen, baina ideologia soziala nagusitzen ari zen. Langileen eskubideen kontzientzia nabarmenagoa zen eta industrializazio basatia. Fabriketan egiten zuen lan, kontalaritzan, eta beraz jakitun zen ze egoeratan, zein soldata zuten langileek... Kapitalismoaren irabazien margena. Pixkanaka, beraz, gune abertzale horietatik aldentzen da Bilboko tertulia sozialista eta komunistetarantz, beti ere literaturari dagokionean. Blas de Otero da horietako bat. Bilbon bizi izan zenean oso harreman hurbila izan zuen berarekin. Euskal Herrian zeuden bi idazle bagenitu Blas de Otero eta Gabriel Celaya poesia sozialean puntako idazleak ziren. Berarentzat aitzindariak dira, lehenagotik eginda baitzituzten obrak Celayak eta Oterok, 50etarako. Bera, beraz, gazte bezala hurbildu zen. Haiengandik ikasitako ezaugarriak nabarmenduko ditugu bere obran.

Garai hartan egindako obren artean, poesia sozialean, *bizkaitarra* horretarantz doa baina oraindik ez da guztiz poesia soziala; bertsolari bezala hitz egiten du, pobrearen kexa da nolabait *bizkaitarra*-n dakusaguna, herritarren ezinak, beharrak... espresatzen ditu, bertsolariek egin ohi duen moduan, eta ez gerora bezala langile subjektu bezala hartuta eta bere ideologia komunista agerian utziz.

Poesia sozialak indar handia zuen, baina ordurako 10 urteko ibilbidatea zuen. Horregatik, nahiko kontsolidatua zegoen, hizkuntza periferikoetan batez ere: Katalanez (Salvador Espiu), eta Galizieraz (Celso Emilio Ferreiro). Bien arteko harremana (Aresti eta gailegoa) oso estua izan zela uste da. Celso gartzelan egon zen, beste guztiak ez.

Gabriel Arestiren obrak tesi garrantzitsu hartu ditu: Aurelia Arkotxak (1993) *Maldan behera* aztertu zuen. Iñaki Aldekoak *Harri eta Herri* bezalako obrak landu zituen, poesia sozialarenak, alegia. Bi horien artean, aipagarria Ibon Sarasola (1976) ere. Bera izan zen Arestiren obra garrantzitsuena *Maldan Behera* zela aldarrikatzen.

Sinbolismo aldetik elaboratuak dira bere testuak. Danteren *Divina Comedia* obraren gainean egindako estrukturazio bat dela esaten du Arkotxak. Sinbolismo mediecala. Jesukristoren mitoa errepresentatzen da Maldan Behera obran, Arkotxaren arabera.

Miranderentzat ez bezala, Arestirentzat literatura EHan zeuden herritarrentzat egin behar zen.

Euskal poesiaren eszenategi berriak: hiriaren errepresentazioak.

Arestirentzat paradiso galdu bat da EHa, Euskal Herriaren eraketa autonomo baten proiektua. Bestetik, euskal gizartean gertatzen ari diren aldaketak: industrializazio aski basatia, eta horren ondoriozko migrazioa, eta bien arteko fusioa; bertakoen eta kanpokoen norabide politikoaren konfliktua.

Errealitate asko errepresentatu zituen obran, baina gehienak hiriaren errepresentazio dira, hiri proletarioaz, eta ez Parisko Miranderen hiria.

Longa noite de pedra (Ferreiro, 1962)-k eragin asko Arestiri, eta harria elementu sinboliko bilakatu zitzaion. Tragikotasun handiz hitz egiten duen testua da, eta Arestiren obrak ere hori adoptatzen du: hizkera tragikoa. Hau da, bere obra kexa, kexa eta kexa da. Sufritzen duen intelektual bat, baina baita fisikoki ere sufritzen duela esaten duen pertsona bat. Bere tragikotasuna askatasun faltagatik da, argi adierazten duen moduan. Hizkera emotiboki oso exlamatiboa, hitz gogorrekoa da poesia soziala, eta poetaren sufrimendu intelektual, moral eta fisikoaren adierazle ere bai. Maila berean ikusten dira hiru gauza horiek.

Bera momentu horretatik aurrera (p. soziala egiten hasi zenetik) poesia librea egin zuela esaten da. Liberatu egiten da metrikaren zorrotasun eta molde itxietatik. Hau da lehen poesia librea arrakastatsu dena EHan (lehenago ere bazen, eta lehenik liberatu zzenekoa S. Arana (ustez trebetasunik ez zuelako), eta Miranderen Larunbat Arrats ere metrika librea, baina Mirandek nahi zuenean bazuen gaitasuna). Gabrielelek ere bazekien metrika egiten, baina poesia soziala egiteko bertso librea, bere kide guztiak bezala (Blas de Otero, Ferreiro...). Gogoan hartu behar ditugu hiru obra, denetan harria. Harriak gauza asko esan nahi ditu, harri poliedrikoa da.:

- ***Harri eta Herri* (1964).** Harriaz hitz egiten duenean EHaz ari da, harriak herria esan nahi du, nolabait.

- ***Euskal Harria (1967)***. Metaforarekin segitzen du, baina harria ez da harria bakarrik, baizik eta euskara ere errepresentatzen du harriak. Nazioaren auziak kezkatzeaz gain, hemen jada euskararen auziak kezkatzen uzela dakusagu. Elementu identitario agusi bezala euskara hartzen du. Euskararen egoeraz fetxa horretan. Kontuan izan behar da garai hartan Arantzazuko Bilerak zirela, debate horietan oso barrenean ibili zen (nolako euskara batua...). Eragin handikoa zen bera, Bilboko talde euskaltzaleen artean bera bisagra zen. Obra honetan berak debate horretako bere usteak botatzen ditu: euskarak hartu behar dituen erabakiak, elementu garbizaleak babesten dituztenak etsaitzat hartzen ditu, euskarari kalte egiten diotela uste du.
- ***Harrizko herri hau (1970)***. Hemen ja iradokitzen da egoera politikoak nolako aldaketa ekarri duen. 70ean jadanik gatazka armatua indartsua zen, eta gizarteko debate ideologikoa nabarmena da. Radikalizatu egin dira posizioak EHan, eta liburu honetan antzematen da bera margen batean sentitzen dela. Euskaldun bezala minorian sentitzen da.

Obra hauetan denetan Arestik sekula ez zuen ahoa itxi. Debate guztietan sartzen zen. Harri eta Herri literatura ereduak da, Txillardegiren Leturiaren egunkari ezkutua bezala. Euskaldun askok literatura (euskara moderno funtzional-dun hori, ez hain jatorra) arrotz ikusten dute. Hizkera berri hau erabiltzeak garrantzia eman zien bia autore hauei. Euskara modernoaren kanonak dira bi autoreak.

Euskara modernoaren proposamena da, ez dio beldurrik izan behar gaztelaniazko edo frantsesezko maileguak hartzeari. Jatorrismoa moztarra iruditzen zitzaion. Lexiko ez-jatorraren jatorrasuna aldarrikatzen zuen (letu, eskribitu..., denak hola esaten badugu, zertarako idatzi "idatzi"? Bere helburua mezua publikoari helaraztea zen, ideologiaz betetako mezua, kontzientzia politiko baten mezua. Horretarako aukeratu zuen hizketan adituek (Aldekoak eta Atienza eta AScunce-k) antzeman zuten bere hizkeran profeten estiloa zegoela. Badaukate hizkera bat etorkizuna iragarritz, estilo erritalaria, hau da, jendeari abisu larria emanaz zer egin behar duten. Horri ahots biblikoa deritzo. Publikoaren atentzioa erakartzea zen helburua, publikoa piztea.

Bibliako mezua aplikatu zuen Arestik. Mirandek zuen arazoa ez du Arestik. Arestirentzat bibliako kontuak hizkera mitologiko dira, literaturatzat hartzen ditu. Gabriel Arestiren publikoak oso ondo ezagutzen dituen bibliako mitoak erabiltzen ditu. Komunikaziorako oso baliagarriak zitzaizkion. Zentsurari buelta emateko bide bat ere bazen: itxuraz erlijioaz ari zen, baina buelta bat ematen zion, beste zerbait zuen atzean mezuak.

BETI ESANEN DUT ... (Harri eta Herri)- GABRIEL ARESTI:

Kasu honetan ez du hizkera biblikoa erabiltzen, beste kodigo bat baizik. Baieztapen horiek ni baten izenean esaten ditu, eta ni hori hiru fazetatan ageri da: bere emozioen mundua, bere moral/etikaren mundua eta baita bere mundu fisikoa ere (gorputza bera). Hori poesia sozial

guztiari ezar diezaiokegun araua da. Sufrimendu horiek lerrokatuta daude, hirurak adierazten dira batera. Egia esango ud, eta egia esateagatik sufrituko duena maila guztietan sufrituko du.

Beti horrek ez da errealitatearen mailan egiten den baieztapen bat bezala, baizik eta jurmendu bat bezala: juezaren, autorearen, apaizaren aurrean egiten diren baieztapena. Asertibitate hori dauka, non konpromiso maila bat duen. Akto bat da, konpromiso hartze moduko bat, juramentu mailakoa.

Bigarren lerroan ez du ezer erantsi, baina baieztapena errepikatzen du, berretsi egiten du lehenengoan esandakoa. Baiezkoan esan duena ezezkoarekin esaten du. Errepikapenak, gainera, zentraltasuna errepikatzen duen hitzean jartzen du, egia-n. Erantsi duen beste hitza ere garrantzitsua da: ahoa. Zeren ahoa darabilelako egia esateko, ondorengo ondorio edo kalteak nozituko ditu. Poetaren gorputzak (fisikoak) parte hartzen du bere baieztapen ideologikoarekin.

Egia eta gezurra, balio intensifikatuak dira, eta baita ahora ere. Poesia sozialaren kontestuan, zentsurak esaten uzten ez duen hori da egia eta gezurra. Ez dagoela askatasunik, ezin dela sindikaturik eta alderdirik sorut, ezin dela bozkatu, emakumeek... Zentsurak eta poliziak debekatzen dutelako. Erregimen diktatorial batean esan ezin diren egiak daude, eta egia horiek dira berari poema honetan ondorio horiek ekarriko dizkietenak. Kontestuak ematen digu klabea testu hauek ondo interpretatzen. Zentsurak esaten uzten ez dion egiak esateko prest dagoela juratzen du.

Erreferente biblikoa: hiru aldiz gauza bat ukatzea, eta gezurra bada, monumentala da falta. Hemen hiru aldiz baieztapena egitean, bere juramentuaren sendotasuna finkatzen da, hiru aldiz egitearekin. Hiru aldiz esaten du, baina hiruetan diferente.

Oso hitz sinpleekin egina dago, baina korapilatua dago: egia-ren esanahia ondo ulertua gera dadila nahi du. Zein da egia Arestik sekula ukatuko ez duena? nabarmendu egiten du, eta sufrimendu posiblearen aipamena eginez.

Argi dago ahoa-rekin elementuarekin lotuta daudela geroko torturak. Esatearen lotuta daude ahoa eta mihia, eta horren inguruan biltzen dira. Poesia sozialaren kodigoan oinarrituko elementuak ziren ahoa, gezurra, ahoa, eta ahoa tapatzea ala ez tapatzea (hau da, zentsura).

baina adbersatiboak jarrera erresistentea erakusten digu, eta zentzu horretan *nire aitaren etxea*-ren paraleloa da. Hitzak banakatu ditu, eta hori enfasi ariketa bat da. Lerrotik lerrorako atsedenek asko iradokitzen dute. Jendaurreko irakurketan luzitzeko ere bada.

Lehenengo partean, beraz, baieztapenak dira inportanteenak.

Bigarren partean, aldaketa bi daude oso garrantzitsuak:

- *beti* vs. *inoiz*: adberbioak ez dira berdinak. Kontradikzioa da, eta berak demostratu nahi du kontradikzioa posible dela helburua ona bada. *Inoiz* harrapatzen banazue

gezurren bat esaten, arrazoi on bat daukalako izanen da. “*juramentu*” hitzak baieztatzen digu aurrekoa juramentu bat dela. *izanen da*-ren ondotik, motiboen zerrenda bat egiten du. Eta zerrenda ez da aurrekoaren maila berekoa; hori da zentsurak egiten dion presioaren aurrean erabiltzen duen ilogikotasuna. Diskurtso logikoa zentsuratzen badidazu, diskurtso ilogikoa erabiliko dut, ta halare jendeak ulertu egingo du. Berak aipatzen dituen gezurrak (motiboak) deskolokatzea dute helburu; nolana ere, deskolokatze horiek metaforikoki interpreta ditzakegu. Orain arte, plano errealean hitz egin du (poesia sozialak ei duen bezela), eta orain, berriz, metafoikoan, eta hori modu libreagoan interpreta dezakegu.

- *eguzkia ilundu eztadin* → esperantza irudikatu nahi du. Itxaropena, hitzaren indarrean sinestegatik
- *ilargia argitu dadin* → gauza bera. Gure hitzek ez daukate indar magikorik ilargiari eta eguzkiari agintzeko; beraz, bi horien bidez hitzarentzat ezinezkoak (inposibleak) zerrendatzen ditu, eta hitzaren indarra azpimarraatzen du. Bi esaldiak paraleloak dira sintaktikoki (bat baiezkoa eta bestea ezezkoa). Subjektua + aditza subjunktibo eran. Gainera, eguzkia eta ilargia, bi astroen kidesun gertua. Esango genuke biek mezu bera: hizkuntzarentzat imposiblea dena posible egiteko gezurra esango nuke.
- *arrosak orriren bat irabaz dezan* → iradokitzen duena: kolorea dute, eta orri bat gehiago badute,
- *krabelinak usainik gal eztezan*: biak loreak dira, eta estimatzen ditugu. Krabelina usainarengatik estimatzen da.
- orria usainarekin dago parean. Larrosa ederra da, eta bere orriarengatik, koloreagatik, orri bat gehiago badu, edertasunean irabazten du. Krabelinak, usianearn irabazten du.
- Hau da, edertasunak irauin dezan, eta inkrementatu dadin, merezi du gezurra esateak. Edertasuna, kasu honetan, balore positibotzat du, horren alde gezurra esateko prest dagoelako gezurra esateko. ABesti bat badago bi hitz horiek dituen, eta Arestiren memorian dago. Bere testuak entzunak izateko idatziak zeuden, eta ahozkotasan maila bateko lite. da berea. Beraz, arrosa eta krab. ez daude kasualitatez. Munduaren edertasun eta alaitasuna iradokitze dute.
- *Haurra beti ditiaz goza dadin* → jakinda nolako kontestuan hazi zen bera, goserik ez dezala psa umeak. Denontzako jana egon dadila.
- *dontzeiliari birjindadea joan dakion / nobleziaz* → bi hitzak (dontzeila eta noblezia) banatzen ditu, beste lerro batean, garrantzia emateko. Emakumearen eskubideen aipamena egiten ari da, eta konkretuki eskubide sexualez, birjindadeaz hitz egiten duenez gero. Neskak eskubidea eduki dezala nahi duenean eta nahi duen bezala birjindadea galtzeko adierazten du, baina metonimikoki zerbait zabalagoa ere bai: *nobleziaz* hitzak iradokitzen du emakume gaztearen inguruan dagoen aprobetxamentu eta erabilera mota bat bere garaian oso zabala ezagutu zuena: prostituzioa, ezkontza interesatu eta behartuak... Beraz, esan dezakegu, benetako arazo sozial batez diharduela.

noblezia, donzeilla, juramentua → zaldun baten juramentua dela iradokitzeke hiru hitz horiek.

Poesia sozialaren esparrura aldatu zen, konpromiso handi bat da aldaketa honen arrazoia. Poesia soziala egin aurretik *Maldan behera* bezalakoak argitaratu zituen. Baina poesia sozialera pasa zen, mezuak helarazteko asmoz, diktaturaren kontra egin nahi zuen, langileen borroka defendatu... Poesia sozialaren kasuan, askotan poetak subjektu kolektibo bat erabiltzen du, kolektiboen eskubideen alde hitz egiten dute. Arestik askotan kolektiboaren izenean hitz egiten du eta horregatik idazten du mitinlari bat bezala, profeta bat bezala. Arestiren ahots biblikoa esatea da profeta bezala hitz egiten duelako, badaki zer den zuzena eta zer den okerra; haserreko hitz egiten du, etsaien kontra oso gordin eta gogor. Beraz, aski dikotomikoa izateko joera du: ona eta txarra, zuzena eta okerra. Hori guztia enuntziazioa da. Ahots agintaria, zuzena zer den dioena, profetikoa, Gabrielen testu batzuetan oso nabaria da.

Testu-iruzkina egiten trebatzen:

Estiloa epikoa denean, gerta daiteke “ni poetikoa” (enuntziatua egiten duen ni-a) enpatikoa izan daiteke kontalaria protagonistarekiko. Hau da, aurrean daukan pertsonarekin (bere emozioekin...) bat egiten duena: enpatikoa. Horregatik, kontalariak maiz bereak bailiran esaten ditu emozioak.

Beste enuntziatio mota bat: ni lirikoa (bere emozioez diharduena). Ikusi ditugu, halaber, enuntziatio oso sarkaristiko eta ironikoak egiten dituztenak. Ez dute zuzenean hitz egiten, buelta bat emanez, bihurrituta, kritikoa gaiarekiko normalean (Miranderen kasua).

“beti esanen dut egia” testuaren iruzkina (egelan)

3 ENUNTZIAZIO MOTA:

- **Ethos:** argumentuen bidez ideia defenditzen dutena. Ethos-ek etikarekin du zerikusia, alegia, argumentu etikoak, zer da zuzena? zuzena da egin behar dena adierazten duena berak. Eredu bezala. Norbere balio sinbolikoa edo erakarmena erabiltzen denean eredu etiko bezala. Adibidez: “egin zuen ni bezala, eta ...”
- **Pathos:** emozioak sartzen dira (patetiko), sufrimendua, emozioak adierazten ditu. Positibo zein negatiboa izan daiteke diskurtso mota hau.
- **Logos:** argumentu razionalak elkartu (diskurtsoaren enuntziatio logikoa).

Diskurtsoaren helburuaren arabera. Diskurtsoan etengabe dugu; ethos, pathos edo logos.

Egia bat esateagatik (Aresti):

1. multzoa: isotopia bat osatzen duena. *alabak, andrea eta etxea.*
2. multzoa.: eskua eta mihia → ahoarekin lotuak, esatearekin.
3. multzoa: *inun, inola inoiz.*

Egia bat esateagatik hau, hau eta hau gertatuko bada, ondorio bat. Ondorio enfatikoak. Horrelako angustia bat gehitzen badiote eta kaltegarirak badira, baieztapen oso enfatikoak izango da; enfasi hori zerrenda homofonikoarekin lortzen du: *inoiz, inola, imun*.

NIRE AITAREN ETXEA:

Adierazpen etiko bat, (ethos handia); gabrielek ahots gora hitz egiteko tonoa hartu zuen, autoritatea eta esan zuen *nire aitaren etxea defendituko dut*.

Lehenago ere beste poemetan emaztea, alaba... aipatuak ditu. Lehenik inportanteena aipatzen du, lehenik emaztea eta alaba, edota kasu honetan, etxea. Beraz, eskalada deszendentea. Literatura, gorputza eta familia, alderantziz. Inportanteena aurrena esan ohi izan du orain artekoan. Enfasia (klimaxa) bilatzen du.

Hitz bera hainbeste aldiz errepikatzea (defenditu nire atiaren etxea (9 bider)) gogoan iltzatzekeo estrategia.

Estrukturak paralelistikoak dira; zerrendak ez ditu beti homogeneoki egiten, baina hemen, kasu honetan: *kontra* (x4). Zerrenda nahiko kaotikoa da, baina ...ç

- otsoa eta sikatea baserritarrarentzat dira etsai. Protagonista baserritarra da; poeta maskara batez ari da hizketan. Kalte objektibo eta fisikoak.
- lukurreria (lujuria, bizioa) eta justizia: justizia aipatzean entenditzeko modu zuzena poliziarena da: pagatzen ez duelako, desauzioengatik... justizia polizia ejekutiboa da, pagatzen ez zaituelako baserritik bidali. Baserritarraren edo norbere etxean bizi nahi duenaren kontra doana da. Aitaren etxea, beraz, baserri bezala irudikatzen du; beraz, horregatik esa nderake aitarena dela, bera herritarra (kaletarra) baita. EH historikoaren baloreen defentsa hartzen du, eta horregatik ulertzen da aberri gisa. Tradizioz aitarenetik dator kion etxea, ondarea (kultural, linguistikoa...) esan nahi du.

Etxea beraz, sinboloa da: EH-rena. Asaba zaharren baratzaren antzekoa. Iraganetik (historikoki) datorren baloreen defentsa. Aitaren ez dugu literalki ulertu behar, baizik eta EHren kolektiboaren ondare gisa.

- Baserritar batek moduan defendituko duela dio; beste lista baten bidez zer duen galtzeko: aziendak, soroak, ounurdik, korrituak (kontu korronea), errentak, interesak (banku kontuk)... baserritarra da protagonista. Baserritarrak zer galdu asko du bai plano fisikoan bai finantzieroan ere. Galtzen dituen zerrendak koherenteak dira beren artean, horregatik. Testua ,horregatik, hurbila da, ez delako lista kaotikoa.
- *armak kenduta eskuarekin defenditu, eskuak ebaki eta besoarekin defendatu, besorik gabe sorbaldik gabe utziko naute* → Xoxoaren kantua entzun dezakegu. Desmembrazioaren, gorputzaren desegitearen prozesuan dihardu. Zerrenda hain

koherenteak dira, ezen ez baitago desbiderapenik, ez dago interpretaziorako lekurik. Xoxoak bezala, hala ere kantatu egiten du, defendatu.

Nire aitaren etxea:

Pragmatika:

Arestiren orain arteko 3 poemetan denetan enuntziatio epikoa. Ni eredugarri naiz gai honi dagokionez eta niri jarraitu behar didazue. Profeta bat bezala hitz egiten du. “egia” esaten du berak, baina zein egi? Enuntziatioak ez digu ezkutatu behar kontestu pragmatikoaren baitan kokatzen dela edozein mezu. Kontestua zentsuraren eta diktaudrarena da, eta beraz, ondo kalkulatzeko ari zen ea nola egin. Erregistroa eta enuntziatio modua garrantzitsuak dira, baina kontestuaren barruan neurtu behar dira.

Erregistroa: ahots biblikoa, Arestiren hitz egiteko modua, Hobe esanda, profetikoa (biblian modu askotara hitz egiten baita, baina profetek badaukate modu espezifikoak): erritalaria, haserrea, mezu bat beseenen gainera igortzea... Formulazio hori Arestiren karakteristikoa da.

Nire aitaren etxea-k mezu soziala edukitzeaz gain mezu nazionala ere hartzen du. Bakarrenetakoa da euskal munduaren barruko aurrekariei egiten diena erreferentzia. Horrela irakurri, interpretatu behar da, horretarako pistak dakarzkigu. Enuntziatio epikoa: *kosta ahala costa*.

Testuaren azterketa:

1. formula batzuk behin eta berriz errepikatu. Horrek dakar errekurrentzia bat, errepikapen sentsazioa. Ezaugarri nabarmenena da: lelo bat moduan errepikatzen dela.
2. Enumerazioak (=zerrendak) duade: lauzpabost. Modu ordenatuan edo desordenatuan egin daitezke, eta efektua desberdina da.
 - Ordenatuan bada, harmonia modukoa dakusagu, zerikusian daukaten gauzak, ordenamendu logiko edo semantikoki homogeneoa. *kontra kontra kontra*
 - i. Paralelismoa
 - ii. Epiforarekin. (bukaera berdina.
3. Baserritarren ahotsetik hitz egiten du. Ni-aren gainean egindako enuntziatio, ethos, baina Aresti baserritar batean sartuta. Fikzionalizazio badago, beraz. Nekazari bat bailitzan hitz egiten du. Nekazari behartsu baten paperean. Horretarako zerrenda harmoniosua da, nekazari baten arazoez mintzatzen delako, semantikoki homogeneoa.
4. *galduko ditut / galduko ditut ...* hiru eta hiru agrupatzen ditu zerrendak. Elementu desberdinak ditu, nahiz eta elementu baten zati bezala ulertu. Lehen hirurak baserritarren baso, lur eta aziendak. Bestetik, errentak... diruaren inguruaren lexikoa. Esango genuke hiruak sinonimotzat dugu: bankuko diruak ematen duen dirua. Hiru hitz diferente horiekin enfasia jartzen du esaten: jabegoa (materialak) eta DIRUA galduko ditut.

5. sufrimendu fisikoaren bitartez adierazten du poetak, desbremamientoa bezela irudikatuz: gorputzeko atalak galtzea. Erreferentzia nagusia Xoxoaren kantua dela pentsatzen da. Behin eta berriro darabil errekurtsu hori: **gorputz atalen galtzea, sufrimendu fisikoaren adierazgarri**. Nolabait, azkartu egiten da zerrenda, enfasira doalako, klimax-eruntz doalako. Tontor enfasi poetiko bateruntz: gorputza bukatzean, arimarekin defendituko du.
6. Azkeneko baieztapena (*Ni hilen naiz, nire arima galduko da, nire askazia* ('ondorengoak, jendia, arestitarrak, bere kasta') *galduko da, baina nire aitaren etxeak iraunen du zutik*). Gabetze progresiboa da, erabat gauza gehiago galtzen ditu, **gabetze hori** gorputzetik harago dora, arimara eta baita askaziara (familiara edo) edo ere. Sintaktikoki, elem. horiek nagusi dira. Mezuaren aldetik, indar gehiena **baina** esatean hartzen du. Baina-ren ondoren datorrena da berak baieztatu nahi duena. Bi baina horien ostean esan dezakegu dagoela mezuaren modulazioa.
7. Beraz, testuaren zatikatzeari dagokionez, dena eraikuntza bat da. Nonbait zatitzeko estrategia jarri ezker, baina horien tokian jarriko genuke.
8. Testu honen indarra bukaeran dago: dana galdua ere, iraun. Paradoja bat da: dena galduko dut, baina etxeak iraungo du. Sakrifizioaren ideia oso sakon eta garrantzitsua dago, sakrifizioa etxearen alde. Horrek *Beti egia esango dut*-eko kaballeroaren ideia dakargu burura. Linajearen defentsa. Kontestua Erdi Aroa baino berandugoko eresietan (bereterretxe)-ko situazioaren antzekoa da. Diskurtsoa erabat ethos-etik eginga da; sendotasun handia ematen du, erresistentzia gaitasun totala. Horrek, kantu hau himno bilakatzen du.

MAREA-GORA BIZIA

MAREA-GORA BIZIA

Irrikitu guztietatik
 ura sartzen zaion
 onzia,
 nola gobernatuko da?
 Gauzez eta egunez
 hordirik dagoen
 kapitainak,
 nola pilotatuko du?
 Zororik dagoen
 haize-orratz
 batekin,
 nola agoantatuko ditu
 enbat, mendabal eta ifar
 ekaitzak?
 Nola eramanen ditut
 portu seguru batera
 karga preziatu hau,
 kristau errege batzurekin
 ezkontzeko
 Orienteko printzesa
 enkantagarriok,
 euskaldunari gezurrik ez diotsan
 liburu batetik
 hartutako
 jakituria hau?
 Itsu eta maingu.
 Itsaso nekatsuan
 nabilen
 hau.

Aitaren etxea bezalako betebeharrak nazional inposible bat dauka. Galdera erretorikoen bidez adierazten du sufrimendua, larritasuna eta inposiblea: *nola gobernatuko da?*

Nola nola nola errepikapenak Xoxoaren kantua dauka oinarri.

Darabiltzan argumentuek egoera desesperatua irudikatzen dute, baina baita betebeharrak duen "ni etikoa" ere. Zerrendak galderak... darabiltza.

Errepikapenen bidez mezua atxikirik utzi burmuinean irakurleari.

MUNDUAREN NEURRIA

Munduaren neurria

Nire buruaz mintzatzen naiz, naizelako
munduaren neurria.
Barka bezaidate.
Nork bere begiekin ikusten ditu gauzak.
Eta nork diost niri Laudioko kanpandorreak
eztakusala? Nork?
Nire buruaz mintzatu behar dut, hura delako (ni naizelako)
hobekien ezagutzen dudana.
Nire bularra labirintu bat da, dedalo bat,
eta bertako kale kantoï guztiak ezagutzen ditut:
Bertatik ibiliko naiz nola komodatik ohera,
arimaren begiak itsutzen dizkidaten egunean ere.
Dena dela, ni naiz mintzatzen naizena,
eta *mundua* diot,
nire zihorraz neurtu behar dut mundua,
beste neurririk ezin baitarabilket.
Nire bularraren gainean zer dagoen,
hori bakarrik jakin nahi dut.
Mintzatzen naiz nire buruaz.

Zarautzen gizon bat dago, gerra aurrean
egunero komekatzen zuena.
Orain urtero bakarrik,
protestatu behar baita, ze demonio!
Hogei urteko alaba bat daduka,
pianoa, pintura eta alemana estudiantzen duena;
datorren urtean ezkonduko da, norekin eta
zubi injinero batekin!
Gizon horri etzaio gustatuko
nire buruaz mintza nadila, baina
hura ezta konturatzen ni naizela
mundu honetako gizonik jakintsuena.
Eztago jakitun, urrikaria.

Testu honetan beste erregistro eta enuntziario modu bat. Modu ironikoan hitz egiten du. Enuntziario ironikoa. Ironikoki bai besteei bai berari buruz. Munduan zer den zuzena eta zer den ona bere burua dela dio (ironia eginez). Ikutu umoreskoa ikusiko dugu.

Bi zati garmi samar: “ni”-ri buruz diharduna eta “zarauzkoaz”.

Txistea: mundua (guk errealitate objektibo gisa ulertua) berak zentzu anbiguoan darabil:

- bada mundu bat denok ulertzen dugun moduan
- Berak sortua poetikoki.

Munduaren ikuspuntua denok ez dugu berebera. Gure errealitate konkretetik begiratuta mundua ulertzen dugu. Gaixo batek eta guk ez dugu berdin ikusten. Pertzepzioa diferentea da egoera batean edo bestean egon.

barka biezadate → ironikoki barkamena eskatu. A Jrretik esan du munduaz hitz egingo duela, bere ikuspuntutik. Arregura bat dago barkatu horretan: nitaz gaizki esaka dabilta, baina nik

nere buruaz hitz egiten dut. Besteek pentsatzen dute ez naizela ari benetako munduaz, nireaz baizik. Ba bai, nireaz ari naiz, barkatu.

boutade bat: pertsona batek argumentu bat botatzea berak ere badakienean txorakeria dela baina probokatezko: *eta nork diost niri Laudioko kanpandorreak eztakusala? Nork?*

Laberintoaren metafora: izugarri garrantzitsua XX. mendeko literaturan, Asko zabaldu zen Jorge Luis Borje-ren literaturaren bitartez. Bere literaturan laberintoak zentzu guztiz larrigarria hartu.

→ zihorra: neurgailua (zinta metrikoa) bezala darabil. Subjektibitatearen aitortzen erabatekoa.

Lehenengo atala aitortza humanista da. Erretorika etiko ni etikoa hemen alderantziz: bere laberintoaz dihardu, poetak ezin du hortik ihes egiterik, eta hortaz, ezin zaio munduaz hitz egiteko eskatu: bere munduaz dihardu.

Esapide ironikoa: Zarauzko gizona ez dakgiu zein den ez dakgiu, baina ziur zerbait esan duela Arestiri buruz. Oso modu pertsonalizatuan zuzentzen da. Arestiren estiloa eta defektua da hori: oraindik bizi den jendeari buruzko kritikak geratu baitira bere poemetan. Elizarekiko harremanean irudikatzen du.

Gerra Zibilean gerrak egindako zerbait dugu tartean: elizak gerra aurretik portaera bat du, gerra ondoren beste bat (frankisten alde). Fedearen praktika elizaren aurrean murriztu zuela pentsa genezake. Astero edo urtean behin. Urtean behin gutxienez arau hautsiezina zen. Arau hori bete egiten du Zarauzko gizonak.

PROTESTA RIDIKULO (PARREGARRIA) da gizonarena. ELizaren hautuari egiten dion protesta barregarria. Bere mandamentua (urtean behingoa) bete egiten du, baina ez igandero, protestatu behar baita.

Abertzale kristauen protestarne ahuldadea/ridikuloa kritikatzeko ari da. ABertzaleen artean elizaren inguruko pertsonaren bat seinalatzen ari zen beraz. Bere protesta barregarritzat hutsaltzat du. Hori da bigarren zatiaren hasieran erretratatzeko duen pertsonaia.

Familiarekin jarraitzen du. Piano bat dauka... Karikaturaren territoriora garamatza. Heziketa burgesaren pertsonaia sortzen du zeharka. Alemana den horretan komertzio arloko familia baten seinale da: itsas-komertzioko hizkuntza alemana izan delako.

Ironia alde guztiz markatu enskarekin: adina, ezkontza, estatus burgesa... detaileek kronikoa sozial/rosa baten parodia egiten ari dela ematen dute. Gizona beharrean, zergatik alabaren bitartez? Zeharkako eraso garaiko errealitatearen ikuspegia dago; garaiko ikuspegi patriarkala oso argia, *egia bat esateagatik*-en bezala (*emaztea bortxatuko badidate* → ez zuri, bortxatuko dute). Ikuspegi patriarkala dakusagu, Zarauzko gizona atakatzeko alaba baitarabil.

Berrero ere mundu hitzaren anbibalentzia. Anbibalentzia horrekin dago egina poema guztia. Harrokeria dirudi, baina hori baino gehiago esan nahi du: zuk eta nik modu desberdinean dakusagu mundua. Zure mundua (burgesa) eta nirea desberdinak dira.

Aresti sarkastikoa eta ironikoa da, eta besteetan mingaina lotuta dauka; pertsona bat hartuta dauka eta mezu bat dauka. Aresti erreala hau da, bihurrikeriekin, hitz-jokoekin, polemika oso gaiztoekin estrategia. “todo vale” dakusagu. Debatea da bere artea, eta debatean denak balio du.

BILBAOKO KALEAK:

Enuntziatio ez-etikoa eta ez-ironikoa. Lirikoa da, bere barrengo sentimenduez dihardu, Bilboko kaleetan dabilela zein pentsamendu datorkezion. Lirikotasun hroretan pentsamendu politikoa oso argi adierazten da: bilboko kaleak ikustean Frankismoko kaleak irudikatzen dira. Bilbo nolakoa den industrializazio basatiaren ondoren. Industria hain astuna, oso kontaminantea... martxa bizian zegoenean didatzia. Bilbo oso kaltetu bati buruz dhiardu. Horren errua autoritate politikoei ematen die. Desallorismo frankistari. Ez zegoen begirada ekologistarik ezta humanitarorik ere. Kaotikoa da bere perspektiba. Kaosa dakarkigu.

1. partean: gogaikarria zaio. *Bizioz ta bekatuz / karitatez eta kriminez...* ez zaio moralaren aldetik nolako biziera dagoen gustatzen, eta uler daiteke jendea behararen beharrez krimenetara bultzatua sentitzen dela, eta horren ondoan karitatea dagoela: elizak eskaintzen duen borondate onezko laguntza. Bilbo humanoa da hori, gizakien bizitzaz diona..

Beste elementu bat ere badago: nolana eginga. *gora eta behera, errekatik mendira* →kontrako elementuen aldiberekotasunak disharmonia sortzen du: KAOSA.

Bilbo gainezka beteta dagoela irudikatzen du: *etxez eta makinez*. Ikusten da elementu humanoak, transportekoak, urbanoak... anabasa gisa. Kaosa: elementu desberdinen aldibereko interakzioa, mugimenduaren bidez gainera (leku batetik bestera). Erletegi bat bezala ikusarazten digu.

Enumerazioak: hirian mota askotako espazioak, difer. forma aldetik: *biribilak zabalak...* Halako barietate handia. Balorazio negatiboa transmititzen du.

2. partean: kaleei hitz egiten hasten da, eta akusazioren bat dakarrela dirudi. Bokatiboak dira, **apostrofeak**. Bere diskurtsoa kaleei begira egina dago. Enumerazioak, zuek esatean, kaleekin hitz egiten ari da.

Kaleei akusazioa izen hori eduki arren horiek ez direlako betetzen: ez dago autonomiarik, adiskidertasunik, bakerik, libertaterik... Hori gezurra da, hipokresia.

Beraz, desarrollismo garaiko bilbo ez zitzaion gustatzen (1. partean) baina haserrea beste leku batetik datorkio> frankismoaren pean ez dagoela adiskidetasunik... maite ditu, baina bilbon ez daude. **(sugerituta ikusten dugu) → zentsuraren torea argi dakusagu.**

Beste zerrenda bat, bere ikuspegiaren arabera. Batzuk maiatatu eta besteak higuindu:

- Urkijo ministroa
- Gardoki kardinala

...

Bost izen: Bilboko kaleen izenak. XIX. mendeko izenak. Ondo jarri zituen izenak, ez ditu frankistak seinalatzen. Izenen ondoko estamentuak bai akusatzen ditu ordea. Estamentuengana zuzendua dago kritika, horiek direlako frankismoari eutsi diotenak. eliza, ejertzitza, administrazioa... zeharka seinalatzen ditu frankismoari eusten dioten gizarte estamentu guztiak.

Bilbori buruz baino gehiago ari da bere filiak (maite diteun gauzka) eta fobiak (gorrotatzen dituenak) adierazten.

4. zerrenda: enfasi batera garamatza. Enumerazioa azkartu egin da, errepikapenak daudelako. Klimaxera doa. Nazka eginda dago, eta nazka hori adierazteko darabil: *hemendik handik edonundik* seriea.

Klabea azken lerroetan dago: zergatik ez den gorbeira joaten: milagro + egunero bizarara kentzeari uzteko (komodoia naiz). Pequeño burgues horretan gustora bizi da. Ametsetan egingo luke euskararen aldeko kanpaina gorbeira joanda, baina ez du korajerik.

Garai hartako kontestuan ulertu bhear da. Bizarra → bizardunak →Kubako iraultza egin zuten bizardunak. hori iradokitzen da. Fidel Castro eta bere jendea (El clan de loss barbudos) eta kasualidadez beren iraultza mendian antolatu zuten. Bizardun izatea bizarraari kentzeari uztea da. Iraultza egiteko korajea behar da.

organizatu eta salbazio hitzek ere iraultza iradokitzen du, gerrilla horretan, sist. frankistari kontra egingo dion ekintzan parte hartzea. Buruan duena Kubako urayltza da.

Garai hartako testuetan ikurrina euskadi, eusko jaurlaritzza, lehendakari... agertuz gero zuzenean zentsuratu. Ezin zuen EH-ri buruz ezer esan, euskarari buruz bai. 60etan atera zen zentsuratik euskara hitza. Horregatik badakigu Arestiren poemetan euskara esaten duenean ez da horretaz soilik ari, baizik eta metonimiaz euskararen esparru kultural...-a iradokitzen du. Euskararen salbazioa hiritik sortuko zela garbi ikusi zuen, etzela gorbeiatik behar egingl. Alde horretatik, kontzientzia soziolinguistikoa aparta zen.

Testu hauetan beraz bere burua irodikatzen du korajerik ezpalu bezala, baina zeharka esaten du: bere ideario guztia. Zer gorrotatzen duen, zer maita duen, eta zer egingo lukeen, nondik: bilbotik. Testua oso lotua dago kontestuari.

Ricardo Arregiren heriotzagatik ahuenez ilustratua:

Testu honen kokapena egiteko esango genuke poema rezitatu bat dela, hau da, berak bere laguna Ricardo hil zenean 1969ko uztailaren 10ean auto-istripuz Mendaron, elizkizunetan emandako poema rezitatu da. Arrekitarrak oso famatuak ziren, oso inplikatuak eta Ricardo auto istripuan hiltzean, herri guztia elizan inplikatu. Elizan toki altu batean esaten Aresti testu hau.

Idazlea, kazetari eta kultur eragilea. Euskaltzale eta gau eskoletako eragilea zen, bultzatzailea. Bere izena oso lotua dago gai horri. Bestetik, kazetaria zen, egunkariak ez eman arren tokirik euskarari, aldizkarietan lan: Jakin aldizkarian. Ideologikoki progresista sozialistatzat har dezakegu bere liburuen gaiengatik. Euskal kulturaren promesa handia zen, eta 27 urterekin hiltzean, “palo” handia.

Euskara batuaren sustatzailea eta helduen alfabetatze eta euskalduntzeko mugimenduaren aitzindaria da. Kazetaritzako promesa handi bat zen, hori dela eta gaur egun arte bere izena daraman sariketa dugu.

Ricardorekin batera auto-istripuan Ramon Saizarbitoria zihoan, baina hau (gidari) bizirik atera zen. Gazte hauekin Arestik zuen hartu-emana editorial bat zen: Lur editoriala. Hori sortzeko diru-kapital bat behar zen aitortu, eta horretarako, auto hori saltzera zihoazen, Donostiatik Bilbora, eta tartean (Mendaron) istripua. Kurba bat zegoen eta kotxe bat aurrez aurre etorri. **LUR argitaletxea** sortzen ari ziren eta honen fundatzailea Aresti zen, Saizarbitoria, beste zenbaitekin batera argitaletzeko kide zen. Poeman honek sortzen dion damua eta pena agertzen da, gertakariaren atzean zegoen pertsona nagusi eta helduena bera baitzen.

Poemak bi atal ditu; 1969an gertatu zen istripua, eta gertaera horren ostean Andoaingo elizan irakurri zuen poema. Gero, *Harrizko herri hau* liburuan argitaratu zuen 1970ean. Liburuan agertzean, atal oso baten hasierako testua da. Handik aurrera, euskal kulturari buruzko hausnarketa gehiago, poema gehiago daude atal horretan.

El lamento → genero literario bat zen. Horrelako gertaerak gertatzen direnean. EUskaraz, **ahuenek**. Genero literario bezela, **elegia** da bere izena: hil-kexua (lat.). Lehen hil-kexua Oihenartek. Genero klasikoa da. Arestik ahuenea deitzea erabiki zuen.

Liburuan argitratzean, letra larriz gauza batzuk. Hasierakoak (letra.larriz) sarrera edo. Eta gero, lehen atala. Sarrera hori titulo enorme gisa uler dezakegu.

Lamento de ... → Federiko Garcia Lorca dakargute gogora horrelako esaldiek. Paresntesian komentarioa, haserrea adierazteko (ez da lirikoa izango, ze pena, baizik eta amorruez idatzia). Adjektiboetan dakusagu intentzioa. Inntzentzionalitatea ematen dio garizuma delakoari.

Deitoragarria eta gaizki pentsatua, hitz horiek adierazten dute zergatik dagoen haserre. Badirudi norbaiti errua egozten diola.

garizuma (cuaresma) → gutxigora-behera dio 40 egun deitoragarri izan direla. Gertaera tragiko bat, iradokitzen duen bezala garizumak. Jesukristoren berpiztea arte. Sufrimendua. Garizuma hitzarekin dena azaltzen du, sakrifikatutako gizon bat daukagu. Modu imaginatiboan bakarrik pentsa dezakegu zer sentitzen duen. 30 egun gaizki pentsatua eta 10 ongi sentitua. Presentimentua kdituela iradokitzen du zerbait txarra gertatuko dela. Negozioa ixtearekin lot dezakegu.

Numeroak darabiltza, dirudienek kazetariak ematen dien zentzuaren alderantziz. Kazetaritzak oso maitatua datuak ematea eta numeroak (12 pertsonas se han...); egiazkotasuna eta fidagarritasunaren berme dira zenbakiak eta datuak. Bera hemen ere zenbakien erabilera egitena ri da, baina asmatzen dihardu guztiz.

Berak esango duen guztia imaginatiboa da baina hizkera kronista batekin egiten du, horregatik numeroek esanahi ironiko bat dute. Garizumak garai bateko euskaldunentzat garai iluna eta tristea esan nahi zuen: aste santua dator, kristoren heriotza, eta horregatik aurretik inauteriak. Garizuma garai iluna, heriotzaren prestakuntza zorrotza. Bakarrik aste santuak eta gero ospakuntza guztiak, pizkunde igandea eta gero.

Agian Aresti fortuna txar horren (fatalidadearen) aurkako amorrua adierazten ari da. Hitzak lehertzea hiperbolea da. Elegia hori 10 egunean barruan pentsatzen eduki du eta azkenik Andoaingo elizan bota. **Sarrerarekin motibazioa eta kokapena egiten du. Tituluak dira, baina hori baino gehiago MARKO BAT ondorengo hitzetarako**

Testu oso enfatikoa da, solemnea eta tonu oso jasoarekin eginda. Tono solemnea. estilo hanpatua.

Testuaren egituraketa:

- **Sarrera edo introito**
- **Lehen zatia:** *Aurten uztaileen...*

Aurre-sentipenak, presentimentuak zerbait txarra gertatuko dela. Presentimentuen aldia da. Metafora sinbolistak: formak eta esanahiak korrespondentzia. Korrespondentzia plano errearen eta metaforaren artean. Subrealista bihurtzen da konexio hori egiteko oinarri formalik ez dagoenean.

Sorginak eta lamiak izaki mitologikoak dira, magia gaiztoa egiten dutenak. Beraz, tximeletak ere horiekin batera jarrita daude, rango berean. Zertarako? arestiren auresentipen ilun negatiboak metaforikoki adierazteko. Fenomeno estrainoa da tximeleta beltz andana lehioaren kontra. Irudi subrealista da. Barruan dituen auresentipien ilunak kanporatu behar ditu eta metaforaren bitartez kanpoan gertatzen diren zerbaitetaz kontaktzen du. Gertaera atmosferiko gisa kontaktzen du.

Prestatzen ari da fatalitatea deitu dugun horren etorrera. Sorginak zernahi egin dezake zure kontra jarriz gero, baita lamiak ere. Izaki mitologikoen ahaltasun magikoa txarrerako iradokitzen ari da, fatalitatearen esku gaudela, eta aurretik mezuak igortzen ari dira.

Elkarrizketa dramatiko hasten da: tximeleekin hitz egiten du. Tximeletak mezulariak dira, zerbait iluna esatera. Errimatuak hitz egiten dute, eta hizkera errimatu koherentea da hizkera motarekin: mitoetan, pertsona mitologikoez errimak eginez hitz egiten dute. Barandiaranen testu batzuetan ikus daiteke hori. Hitz oso gutxi eta rimatuak behini baino gehiagotan.

Heure denbora guziko → denboraren aldetik eternoa. bizi guztian ez duzu ahaztuko, beti gogoratuko duzu, eta hori mehatxua gehitzea da. Bizi guztirako kaltea izango da gertatuko dan hori. Erantzuna bortitza da, misteriosoaz landa. Orduan arestik komentarioa: “Aita Kristobal... gosea”. Zati honetan iragartzen ari da gertatuko dena. San Kristobat kotxe gidarien santua da. Fatalitatea numerikokin isladatzen du. Heriotzaren pertsonifikazioa daukagu, ama izenez interpretatua “ama heriotzea”. Ama heriotzea haragijalea da, bere semeak jan egiten dituen irudia (jupiterrek bere semeak) dakar berak ere honetan. Kasu honetan Kronos edo Jupiter ez dira haurrak jango dituen, heriotza izango da. Orain arte fatalitatea deitu dion horri hemen dagoeneko bere izenez agertzen da, heriotza, Ricardo Arregi jan egingo duen heriotza. Heriotza modu mitologikoan isladatzen du. Lehen kexua da hau.

luzea, asea, gosea → ERRIMA: elkarrizketa mitikoan ari delako tximeleekin eztabaidatzen.

Lehenik ikusi eta gero aditu. Desafioetan euskaraz, *ikusikoek* (hiri irabazi eta paliza emangoiat), aditu (desafio egiten dio): telefono-deia izango delako eta aditu egingo duelako albiste. Gerturatzen ari da istorioa, eta preparazio bat dago: albiste ilunerako prestatzen. *eta gainera damuko* → erru sentimentutik dator, kulpabilitatea gehitzen dio kasu honi berari.

Lehen parte, beraz presentemientuen adierazpena, modu dramatikoan, eta dramako estiloa elkarrizketaren planteamentutik: batzuk mehatzatzen eta bestek pentsatzen ze izan ote daitekeen etoertzeke dagoena.

ALusio erlijiosoak: beaderatzi hurrena, Aita San kristobal. Horrekin oradokitzen du auto-istripu bat izango dela.

- **Bigarren zatia:** ...*eta donostiatik Bilbora*

Lehenengo ta bigarren zatietako desberdintasunak: 1.zatian presentimentu txarra du eta 2.zatian konfirmatu egiten diote gertatzen dena. Horregatik, zatiak, narratiboko eta kronologikoki daude. Hemen dago benetako kexa. Ikusiko ditugun metaforak surrealistikak.

Lehenengo parrafoan: norbaitek deitu dio, nola izan duen albistearen berri dakusagu. Modu tragiko batean. Zer gertatu den jakin baino gehiago haren ondorioak dira agertzen: garrasiak. Modu indirektoan adierazten da ricardo hil dela: negar egiten duen andrearen garrasiaren

bitartez. *Mater Dolorosa* bat irudikatzen duela dio Aureliak, Arregiren amak deitzen duela edo familiko andre batek deitzen diola, eta notizia esan baino gehiago oihu.

ebaki → mingarria izan zelako oihua,

Tragediaren handitasuna irudien bitartez ematen digu. albistea metonimikoki ematen digu, zeharka ari zaigu esaten, guk sentitzen dugu drama baina ez digu gertatu zena zehaztasunez eta zuzen kontatzen, modu inditektoan kontatzen digu. Garraxia, negarra... bezelako hitzak erabiltzen ditu guregana iristeko.

Esaldi paraleloak erabiltzen ditu, estruktura erritmikoa emateko eta morfosintaktikoki berdinak dira.

Erruaren sentimendua da, gaztearen heriotzaren aurrean. Pertsona gazte bat hil da. Inkrepazioa: *zuk dezu kulpa!*

Metonimia: ez du esaten gorpua ikusi duela ez du hilotzai aipatu nahi. Hori aipatu ordez, zapatak aipatzen ditu, heriotzaren irudia ez du aipatu nahi. Bere anaia balitz bezala maite zuela dio. Figura erretoriko desberdinak erabiltzen ditu heriotzaren irudia deskribatzeko.

Errua sentitzen du, haren tokian berak egon beharko lukeela uste du, “zapata hauek eneak izan zitezela eta odol hura enea izan zedila”. Arregi ikustean lotsa sentitzen du Arregiren lekuan berak egon beharko lukeela uste du, lotsa erru sentimendutik dator.

Metafora bitartez adierazten du sentimendua “kezko bola batek itotzen zeuzkidan birrikak”. Honek bat egiten du aurreko poemetan dagoen ezaugarri batekin, somatizatu egiten baititu sentimenduak Arestik.

Predestinazioaren ideia agertzen da, “Sasiolako orena Ricardo Arregirena”, honekin onartu egiten du gertatzen ari dena. Heriotzari zuzentzen zaio “milaka geunden hartzeko baina hartu duzu hoberena”.

- **Bukaera:** ...*Hil da Ricardo*.

Heriotza onartzen den zatia da “Hil da Ricardo gurea” dioenean ikusten da hori

Hiru zati hauetan dago sufrimendua. Heriotzaren dueloak fase batzuk ditu hoerien artean, negazioa, onarpeneko sentimenduak ditugu eta azkenean onarpena dugu.

Onartu egin behar du hil dela, eta horrekin mezu bat heleraazi komunitateari. Besteentzako kontsolamendu hitzak behar dira. Hemen azken atal honetan horixe egingen du. Pertsonak galera onartzean, kontsolamendua adierazi gainerakoei. **sugea** eta **usoa**-k hizkera honetan edozein gauza esan nahi lezake. “Sugea” Aresti bera da, errugabea den Ricardo eta esku zikinak dituela sentitzen Aresti “suge” gisa isladatzen du. Ricardo, ordea, uso gisa irudikatzen da. Elizan ere hori ikusi daiteke, errugabeak galtzen du, arkumeak, esaterako.

“Sasi guztien azpiko eta hodei guztien gaineko leku batean bilduko gara berriz”, berak tartean fatalitatea dagoela esan digunez, esaldi honetan iradokitzen digun indar magiko edo fortunaren gure mundutik joango garela hiltzen garenean. Hau da, hiltzean, fortunaren munduaren beldur ez direla izango, lasai egongo direla.

Sugea rastreroa eta usoa inozentea da. Hegazti gehienek izaki positibo, errugabearen ideia daramate. Alusio literarioaren terrenoan gaude, bibliako testamentu berrian agertzen zaizkigun animaliak diralako usoa eta sugea. Beraz, kontsolamenduaren atala zita batekin bukatzen du.

Kontsolamenduko hitza Ricardori zuzentzen dio, berriro elkartuko direla esanez.

Gabriel Aresti (zentraltasuna garai horretan)

Ez du literatura bakarrik egiten, euskararen aktibista izan zen. Figura zentrala da euskalduntzean. Xabie Lete anai gisa hartu zuen, kantagintzan eragin kulturala. Alfabetatze kursoetarako kantuak egiten zituen. **60ko euskal kulturaren berrikuntzaren aktibista**. Literaturatik → euskaldun berriak, euskara batuaren atzean dagoen inpultsora. Villasante eta Txillardeggi dira sortzaileak, baina gizarteak bultzada egin behar zuen, eta Aresti hor dago tartean.

Literaturako 3 eraginak (=Arestiren 3 fokuek) (+Oteiza) :

1. Beste poeta batzuegan eragin bere iritzi kritikekin(**1968-70**). Beste idazleen lanak iruzkindu eta orientatu egiten zituen. Lete izan zen poesia sozialaren alorrean lehenengo jarraipena, eta kantagintzaren bitartez zabalkunde handia eman zion. Euskal kantagintzan, liburuetatik kantuetara salto egin Joxean Artze, Mikel Laboa eta Xabier Leteri esker. Batez ere, Xabier Leteri esker. Lete eta kantugintza berria.

Bestalde, bere garaiko poetengan eragin zuen: Bitoriano Gandiaga (fraile frantxiskotarra) eta Juan Mari Lekuona (apaiza). Bi autore hauek Aresti bezain gazte hasi ziren idazten, garaikideak ziren beraz. Gerraosteko aldizkarietan idazten hasi ziren. *Oleri* bezalako aldizkarietan. Aresti bezain sarituak ez baziren ere, beraien publikoa zuten. Erlijiosoak ziren biak, Arestik ideologia ezkertiarra izan arren, erlijiosoengan eragina izan zuen, gauza handia da hori. Arestiren eragina nola gertatu zen? 1960etan zehar Frankoren heriotzara arteko 12-15 urteetan, EHan gertatu zen aldakuntza handi-handi baten fenomenoak: diktadurako etsipenaren barruan, 60etan berpiztea gertatu zen Euskal kultural, **bigarren pizkundea** deritzona. Euskal kulturaren berriztatze/ indartze bat. Faktore linguistikoak: euskara batuaren sorrera, ikastolen sorrera... beste panorama bat sortu zuten. Kulturaren aldetik modernizazio ahalegina: euskal kultura berria/ martxosoarekin lotzea. Belaunaldi berri bat iritsi zen.

Jorge Oteiza aipatzekoa da, eragin handia izan zuen: euskararik ez zuen idazten eta egiten, baina ideologo bat zen, lider kultural modukoa; bere eraginaren eta bere filosofiaren bitartez heldu zen euskal kulturaren modernizazio artistikoa. Oteizak

urrea eransten zion diskurtsoaren bitartez euskal produkzio modernoari. Aitzitik, modernotasuna ez zen ahaleginik gabea izan; erresistentzia bazegoen, autoritate zibilena (eta ez elizarena): Arantzazun eskultueak lurrean botata egon ziren, ez zietelako uzten jartzen, bai elizak, eta autoritate zibilek. Testuinguru horretan *quosque tan dem* saio famatua idatzi zuenean Oteizka 1962an esaten du: “noiz arte jasango dugu egoera hau, guk gure kultura berri dugularik?” Bi energia horiek bat egiten dute: Aresti eta Oteizea. Horren bitartez gizarte taldeak onespren eta konfluentzia bat izatea lortzen da (Lete, Gandiaga, Lekuona). Denek dute zerikusia Oteizarekin, bere sinesmenarekin bat egiten baitute. Hemengo obrak 1968-70ean loratu ziren.

2. Emakume poetak (1970): Amaia Lasa eta Arantxa Urretabizkaia, Arestiren eragina, bere poesia modernoarena, emakume idazleak ere plazara ateratzeko: Amaia Lasa eta Arantxa Urretabizkaia horren adibide. Bi idazle hauek iritsi ziren euskal poesiarantz Arestiren hegalean, bere babesean, berak zuzentzen zuen editorialean, argitalpenean parte hartuz. Bat egiten dute Arestiren ideologiarekin (pents. modernoa), eta badakarte ordurarteko emakume idazleetan ez dagoen pentsamendu feminista: ez da Arestiren erauntsia. Jadanik bazeuden HEko unibertsitateetan ikasi ahal izatea, eta Frantziako unibertsitateetan ikasi zuten (?). 1968ko maiatzeko Frantziako iraultza. Hauen obrak 1970etik aitzina ditugu.
3. 1974tik aurrera: Abangoardiak (gure temarioan 5. gaia): Zuzenean Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionandia, Koldo Izagirre. Lotura dute Arestirekin, hura ezagutu zutelako, berarekin lan egin zutelako, eta hauetako inork sekula ez duela Aresti ukatu, baizik eta haren heredero aitortzen dutela heuren burua. Beraiek Pott Aldizkaria sortu zutenean, Arestirekin hartu-emanetan zebiltzan. Bere aholkularitza literarioa izan zuten, korrespondentzia dagoela badakigu eta pertsonalki lagundu ziela ere bai. Autore hauen obretan beti daude Arestiri omenaldiak, bere izenak eta gaiak lantzen dituzte... Filiazioa deritzona dago, aurrekari bezala aitortzea.

Arestiren zentraltasuna belaunaldi hauetan arrazoi desberdinengatik

- influentzia estetikoak
- Ideologia feministari irtenbidea/adierazpidea ematea
- Hurrengo belaunaldiari eskainitako babesak (Bilboko Pott Bandari).

Koldo Izagirre da hurbilekoena eta hastapenetakoa, baina ez zen gerora Pott-en sartu.

Gandiaga, Lekuona eta Lete:

hirurek dute kezka edota fede erlijiosoak, beren jatorriagatik ez dira batere klase altukoak, klase baxukoak, baina herritarrak (herri txikietakoak). Ezaugarri horien artean kultura amankomuna dute. Garai hartan oso desberdina zen hiriko bizimodu, ideologia... eta herri txikietakoak. Herrietan oso tradizionalak, kontserbadoreak, erlijiosoak... ziren. Gandiaga herri oso txiki batekoa zen, Mendatakoa. Gandiaga oso pertsona berezia eta konplikatua da

psikologikoki; oso gaizki pasa zuen, ez zelako adaptatzen munduaren aldakuntzetara erosotasunez. Pertsonalitate oso rigidoa zeukan.

Lekuona, aldiz, oiartzuarra (lete bezala), eta bien (Lete eta Lekuona) arteko adiskidetasuna txiki-txikitatik: lagunak eta herrikideak dira, baina adin desberdinetakoak: Lete 10 urte gazteagoa. Lekuona eta Gandiaga hurbil senti ditzakegu, biak zirelako erlijiosoak (Leteren kontrara, zeina ez baitzen inoiz apaiztegira hurbildu, elizaren hierarkia ez zuen gogoko, nahiz kezka erlijiosoak (existentzialismoa...) bazituen). Elizaren estrukturaren barruan egon dira beti Gandiaga eta Lekuona, baina desberdintasun nagusi bat da Lekuonak formazio unibertsitario sakona izan zuela: azkarra zen, doktorego tesia egin zuen, unibertsitateko irakasle izan... Bien artean, beraz, desberdintasun handia. Gandiaga itxia zen, klausurako ideologiarantz itxia, eta Lekuona, berriz, munduko kulturari irekia zegoen.

Herritarrak eragin handia izan zuen Leterengan, noski, baina Letek abestu eta aktuatu egiten du, eta haren proiektzioa ez zuen Lekuonak inoiz ere izan.

Hiruak herri txikietakoak, euskara oso errotik ezagutzen zuten. Horrek ekarri zuen Arestiren hizkera klarua sotifikatzea, euskara gehiago eta hobe eta finagoa menderatzen zutelako. Euskara aberatsagoa hartu dute etxetik, hizkera bizi bezala, Arestik ez bezala, zeinak berak dioen moduan, hori dena konkistatu/lapurto behar izan duen.

Bestalde, herri-kulturekiko errespetua eta zaletasuna dute hiruek. Hiruek dute ahozko literaturaren eragin handia: Zertan?

- + Ikusi genuen Lauaxetak baladak hartzen ziteula, ildo kultotik. Bazekien baladak preziatuak zirela, eta Lorcak egiten zuela. Hauek beste bide batetik hartzen dute ahozko literatura. Kultura herritarra izan dutenez, kultura horretan bizitu dira eta horren barnean produzitzen dute. Adibide nabarmena Lete bera bertsoak egitean. Bertsolarien bertsoak grabatu zituen eta berak ere bertsoak egin zituen. Bertsolaritza, bere kasuan, garrantzitsua. Gandiagaren kasuan ere bere herriko tradizioa asko du, Bizkaiko ahozko kulturak koplak dira garrantzitsuen, eta berak koplak egiten ditu. Garandiagak, bere paradigma poetikan, ahozko literatura eta horren barruan koplen moldeak du. Lekuonaren kasuan, horretatik ateratzen da apur bat: kultura asko baitauka, latina jaso du... ahozkoa jaso du, baina ez du hori menperatzen, ez zen ondo moldatzen bertsoan edo koplean, ezaguera handia bazeukan ere. Ahozko literaturaren eragin handia.

Bitoriano Gandiaga:

Mendata herri txikikoa, herritik aparteko baserri batekoa. Famili oso apalekoa, toki isolatukoa. Urte horietan, ordena erlijiosoek (Frantziskotarrak, karmelitak...) herrietan misioak egiten zituzten: hau da, fraile gazteak bidaltzen zituzten ikasle gazteak biltzeko; tentazioa zen umeak hezkuntza izango zuela, baina ordainez frailetze (konbentu) batera joan beharko zuten urteetarako. Gandiagak apostua onartu eta 11 urterekin Arantzazuko fraidetzera joan zen, mendi-punta batetik bestera. Fraile ikasketak egin bertan eta arte ikasketak egin zituen. Arte plastikoak ziren bere espezialitate. Hurrengo fraile frantziskotarren maisu izan zen, eta bertan hil zen. Bere ibilbidea, beraz, mugatua da oso, Arantzazu eta bere inguru harkaitzua. Arte sentsibilitate handia zuen, eta etekin handia atera zion horri. Bere lehen liburua *Elorri (1962)*, 4 urtetan zentsurak debekatuta eduki ostean. Liburu horretako poemek erlijiosoak dira, ez dute eduki politiko sozial eta antifrankistarik, beraz, zentsuratzeko arrazoi bakarra euskaraz izatea. Susmagarria zen. 62an liburua argitaratzean, Arestiren itzal handia bazetorren dagoeneko (poesia sozialarena, harri eta herri). Horregatik, bere liburua ateratzean, harrera kritikiko oso negatiboa izan zuen; gogorrena, Arestirena: “EHa ez zegoela apaiz gogoetarako, EHak beste zerbait behar zuela, beste pentsamendu eta ikuspegi bat, liburu hori zaharra zela.” Bere libururik hoberena dela pentsatzen da egun. Bigarren liburua 1974ean atera zuen: *Hiru gizon bakarka*. Bere liburu garrantzitsuena. Leteren bigarren poema liburua eta hau urte berekoak dira, eta horregatik euskal poesiarentzat urte hori aski seinalatua da. Urte horietan hil zen Aresti, Frankoren heriotzaren aurreko urtea da... Liburu honetakoak dira bere poema ezagunenak. Abeslariak Gandiagaren testuak hautatzen zituzten abesteko, musikalitateagatik, koplak/bertsu molde kantagarrian idatzi zuelako... Horietako bat *tirikitauki*: X. Lete eta Iriondo musikal bihurtzen lehenak. L. Iriondo kantagintzaren lehen musikari popularra, idolo bihurtu zena. Testu hau inportantea da: koplak estiloan egin delako eta ahozko testuinguruko paradigma duela demostratzen duelako, eta koplak barruan dantza-koplak direlako oinarrian dagoena: tiriki-tauki hotsak trikitiaren doinua imitatzen du. Soinurik/panderorik gabe abesti honekin kantatzen eta dantzatzen zuten. Eskatu ziotelako argitaratu zuen, Arestiren... kritikaren ondoren ez baitzuen 12 urtean argitaratzeko gogorik izan, berriro egurra hartzeko beldurra zuen. Liburu hori ateratzeko erabakihorra Oteiza da; Arantzazun eskulturak egiten zebilela, lortu zuen bere buruaren autoestima errekuperatzea, eta pentsaraztea EHari behar duen zerbati emango diola pentsatzea. Liburu berezia da, elaborazioa eta edukiak harrigarriak dira, eta poesia sozialaren kontestuan daude. 12 urteetako aldakuntzarako prozesua behar izan du Gandiagak.

Handik aurrera, aisago egin zituen argitaralpenak: balio handienekoa, behar bada, *Denbora galdu alde* (1985). Poesia da, baina prosa poetikoa. Euskaraz oso gutxi egin. Bere diario/autoanalisi bezalakoa da, esperesio poetikoaren bitartez. Bere gauzak aitortzen ditu, eta hortik dakigu nolako pertsonaia estua (automatxakatzaila) zela.

Elorri-ko testu batzuk: erlijioari buruzko testuak, betiere toke mistikoarekin.

1. ETA EURIA:

Klaustroan itxita dago eta itogin batetik erortzen diren euri tantei begira dago.

- Arestiren elementuak: errepikapena (... T'euria)
- Intentsitateak kontzentrazioa biltzen du.
- Hitzen soinu antzekotasunak intentsiboki aprobetxatzen ditu.
- Oso musikalak dira, errepikapenen ohiratzunekin jolasa
- Errezitatzaile ona zen.
- Itogin-zarata: entzuten dugu, itoginaren zarata T-ari esker, guregan transmititzen du euriaren tantaren erritmikotasuna. ALITERAZIOA: soinuek erreproduzitzen dute errealitatean dagoen soinu bat. Azkenean, suabetzen du.
- Euskararen fintasuna: Klabelin zuri bat jagia, tantak erortzen direnean lurrera apurtzen dire. Apurtzen direnean klabelin zurija lortzen da. Arra t'ardi: neurri sistematan neurtzen du.
- Sentsibilitate artistiko handia, hizkuntz oinarri paregabea eta espresioaren zehaztasuna totala (Hau guztia ezin du Aresti batek esan).

Bigarren ahapaldia: lehenengotik gauza batzuk ekarri ditu, euria, adb. Erritmoari eutsi nahi dio. Ta alai erantsi du. Bigarren partean arra ta erdi luzeren krabeliz... mantendu du, irudi hori tantaren zarata bezain iraunkorra delako. Insistitzen du horren edertasun eta loretasunean, irudi estetiko horretan.

Beraz, testu honetean errepikapena, kontzentrazioa eta intentsifikaizoa areagotzen doa. Hiru adjektiboak ekarri ditu, errepikatu ditu, baina prezisatuz, prezisio bat eginez, garrantzitsua.

- kanpoan baino be arima ba-litza: esklamazioa: kanpoan alai dirudi, baina nahiago nuke nire barruan ere horrela izatea, modu zeharkakoan adierazten den espresioa.
- betiko-beti lez: hizkera superlatiboa eta enfatikoak, oso ondo kontrolatzen ditu.

Hiru elementurekin egin du poema: itogina, bere zarata, bere lorea, jotzean egiten duen forma, eta hirugarrena, alai da edo ezta? alai kanpoan, ez barruan. Gandiagaren estiloa: elementu esentzial batzuk hautatu eta horietan zentratu. Bere poesiak, horregatik, aire minimalista dauka.

2. ZARPIL:

existentzialismoa. Bizitzaren inguruko hausnarketa existentzialista. Testu honetako hitzik garrantzitsuenak: ZARPIL: zakarra, lakarra. Elorria: zuhaitz gogorra, berezitasuna: ingurune oso zailtan hasten da, Arantzazuko harkaitz artean sortzen da eta udaberrian lore zuria ematen du. Sinbolotzat hartzen du, giza-bizitzaren sinbolotzat, eta bizia zarpaila, lakarra, zakarra... dela, baina aldi behin udaberrian lore txuria sortzen zaiola eta gloria estetikoak jasotzen duela. GUztiz garrantzitsua, liburuaren titulua izan baitzen. ELORRIA = BIZITZA (Metafora honekin testu guztia eraikiko du). Lehen lerroan konparazioa, hobe esanda.

Gizabizitzari buruzko hausnarketa bat da, eta ikuspegi oso estoiko eta zorrotza daukala ikusten dugu; Elorriak arantzak ditu (oso gogorrak eta mingarriak), eta aldi behin lore bat baina itxusi eta okerra bada, badakigu Gandiagaren bizitzarekiko ikuspegi oso gogorra dela.

Bestetik, kristaua izanda, kristo gurutzatzean arantzazko koroa gogora dezakegu. Elorria kristoren sinbologietako bat delako, arantzadun landare hori kristoren sinbolismoetako bat da.

→ Bikoiztasuna: Sinbolismoa, baina kristautasuna.

Gandiagaren sinbolismoa ikusi dezakegu. Formak, koloreak, usaiak... daude testuan. Sentsorialitatea. Soinuak ere ikusten ditugu, karraxia.

- *Bere betiko samin zaharra*: metafora → sufrimendua, antsietatea,, galdera existentzialak. Boudelariaren korrespondentzia dakusagu: gauza bera dira karraxia eta samin zaharra. Modu diferentean sentsorialitate desberdinean azaldutako gauza bera.

Bigarren parragoan, konparazioa errepikatu, baina orain batez ere arbolaz ari da, arbola nolakoa den deskribatzen ari delako. Esaten du harkaitzean sortzen dela, bihurria eta nabarra dela (ez haritza bezala zuta eta nagusia). Nabarra-k, kolore arre marroixka ilunxka dakargu burura.

- *laru* ('hori')*aurrean* → ikusten da arte irakaslea dela. Fondo horixka delako nabarmentzen da arbola.
- *lander* ('basati') *eta bakar* ('isolatua' bakardadeak dakarren guztiarekin').

Egoera horretan kokatzen du arbolaz. Beti gogorarazten du ez dela arbolaz ari, bizitzaz baizik, baina poetikoki irudia garatzen ari da.

Bestalde, musikalki estruktura morfosintaktiko bat dago, harmonia sortzen duena: *biurri ta nabar ... lander eta bakar ...* estruktura morfosintaktiko paraleloak retorna sortzen du, harmonia; belarri musikal oso fina dauka.

Azken partean, luzeago, esan nahi du klimax-era doala. Anadiglosia: errepikatu egiten da azken eta lehen lerroa → *lander eta bakar*.

Isotopia egiten ari da: juntatzen ari da hitz batzuk eduki oso tragiko eta fuertea dutenak iradokitzen bizitza oso tragikoa dela. Isotopia da semantikoki eduki batean insistitzen duten hitzak pilatzea toki batean. Hemen, juntatzen ari da sufrimetua eta hondamendia, sarraskia, bebiziko... bezalako intsifikatzaileak eta iradokitzen ari da bizitzaren dramatikotasuna.

- *etsi ta ezin etsi* → Paradoja bat dago: bizitzari buruzko ideia zentralena hau da. Bizitza gogorra da ta askotan amore eman ta ayo esango genuke, baina ezin etsi. Hor dago pomearen muina. Etsi egingo genuke, bizitza gogorra delako. baina ezin degu, ederra ere bada ta.

- *arkaitzeko ansi* → METAFORA: elorri arbola bera. Zer forma hartzen du harkaitzeko desesperazioak, bizitzaren gogortasunak? Elorriaren forma hartzen du.
- samin zahar... berrize hartzen du. Berezkoa delako. existentziala.

Klimax batean bukatzen du, klimax positiboan. Maitagarri. Drama zakar gogor guztien ondoren, maitagarri. Testuak klimax batera egiten du, eta horretan: enumerazioak, estructures paralelistiko pilo bat eta errearen erabilera aliteratibo oso nabarmena erabili ditu. Hitz horike bilatuta daude beraien soinuagatik, baina baita beraien esanahiagatik ere.

- *erpe*: hegazti harraparien hatzaparrak. METAFORA: Bizitzak harrapatzen gaitu hatzaparrekin. Irudia oso ezaguna da, bizitzaren gogortasunaren atzapar gaiztoa. Horregatik da damatu Gandiagaren poesia, bere irudien indarragatik.

Belarri poetiko finena da berea euskal poesiagintzan. T'euria-rekin egiten duen joko aliteratiboak adibideak. Benetazko aliterazioak Gandiagaren testuetan ditugu. Musikala da. Soinuen sugerentzietan oinarritzen da, eta horregatik, anafarak, aliterazioak... nabarmentzen dira. Gandiagaren artea da, eta oso miretsia izan zen hori.

3. OTEIZARI (GANDIAGA, 974) (*hiru gizon bakarka* liburuaren barruan, baita *tirikitrauki*... ere).

Arantzazu gerraonoko egoera horretan euskal kulturaren aldeko mugimendu gehienak Arantzazun sortutako aldizkarietan kokatzen dira. Bertan personalidade asko sortu: Joxe Mari Torrealdei, Joseba Intxausti... Bertan pareta haundi bat eta goian eskultura bat: Pietatea. Gandiagak pietate desberdina egin zuen: ama zutik duena, semea lurrean, eta ama gora begira oihuz ari dena. Desberdintasun hori da Gandiagak azpimarratzen zuena eta interpretatzen zuena: izan beharrean ama bere semearen heriotza deitoratzen eta onartzen, da ama bat oihuz eta kezaz jainkoari zuzentzen zaiona. Oteizaren eskulturaren berezitasuna komentatzen du testuan. Posturaren diferentzia, eta posizioa ere inportantea: Frontoiaren goi-goian, jainkoarekin ahalik eta gertuen, keja egiteko. Beraz, bai Gandiagak bai Oteizak seme hilaren keja.

Hiru gizon bakarkako liburukoa, eta Jorge Oteiza aipatzen den testu guztiekin lotura du. Testuaren tematika:

Pentsatzen da Oteizak eskultura egitean Etxebarrieta gogoan zuela, eta bere heriotzaren kontestuan pentsatua dagoela, eta ondorioz, Gandiaganarena ere garai hartan gertaturiko heriotzekin lotua dagoela.

- *euskaldunen pilota*: euskaldunen kontrako errepresioa irudikatzen du, metonimia da.
- Pietatearen eskulturaren detaileak ematen ditu.
- *Dena...dena...denak* → anafora, aldetarekin 3.ean.
- Testuan frontoi artistiko deskribatu du. Euskaldunen lotu ezpalu reflexio artistiko/estetiko gisa lotuko genukeen, eta ez EHko historiarekin. 73-74etako errepresioarekin lotzen da, eta dramaren ideiarekin ere bai: amaren protesta.

- Bere nekea azpimarratu eta semearen heriotza intensifikatzen du, baliabideok hartuz: *hilteraino hilda* → hiperbolea, superlatibo batekin. Beste elementu bat *zerraldo* hitza errepikatzea.
- Figuraren geometria azpimarratzen: ama zutik semea etzanda.
- Frontoia-idea zergatik? Euskal kultura delako. Jesukristorena unibertsala da, baina berak euskal gai bihurtzen du frontoi eta pelota hitzekin kokatzean Arantzazuko atarian. Horrekin drama unibertsala euskal drama gisa tratatzen du. Pietatearen drama (semearen heriotzarena, alegia) euskal herrira transladatzen du.
- bukaeran azpimarratzen den izua apostuluena da, (alkarri begira eta batzuk gora begira baitaude). Drama hori apostuluek interpretatzen dute izuz eta dramaz. Horrek, hein batean, drama erlijiosoa (euskal drama dena, ziur aski Etxeberriaren heriotzari lotua)-ren inpaktua eskulturek adierazten dute. Eskulturen elementu gestuala aipatzen du: dramari minez begira (beheitik gora).

Hiru elementu horiek erabiltzen ditu testuaren edukia garatzeko: pietatea, frontoia eta apostuluak. Apostuluek ez dute san pedro... adierazten, baizik eta euskaldunen fede komunitatea.

Oso desberdina elorri dagoenetik: deskriptibotasuna dago, baina kasu honetan narratibitate leementua ere badago: *denak joan dira..* berriz ere minimalismoa, geografía oso aztertua... adjektibazioak edo epitetoen erabilera oso ajustatua adierazi nahi duenerako.

Xabier Lete:

68 urte inguruan hasten dira Euskal Kantagintza Berria biziberritzen, eta trantsizio urteetararte iraun zuen. Etah or ikaragarri aldatu zen. Mikel Laboa, (bere aurretik iparraldekoak: Mixel Lbaggeri, lehena euskal kantu berrien grabaketak egiten). Gero askoz popularragoak Iriondo, lete eta Laboa. Berezia bi iturri desberdin kantutegia osatzeko:

1. Kantutegi tradizionala: kantu ezagunak bertsionatu. Berpopularizatzen lan handia egin zuten. Ondare tradizionalaren rebalorizazioan EHan izan den mugimendu inportantena. EHan identifikazio momentu nagusia ondare honeki.
Bertsolaritza: bertso-zaharren grabazioak urte hauetan, eta berreskuratu eta popularizatu, besteak beste, Txirritaren bertsoak. TXirrita, Xenpelar eta Pernando Amezketarra, adibidez, gehienbat txirrita, idatziz gehiena zeudelako. Bertsolaritzak revival garrantzitsua bizi honi esker.
2. Poesia liburuak: Lizardi, Lauaxeta, Lete, Miranderen... testu kantatuak. Poesiaraen berpiztea ekarri zuen: ezagutzera eman ziren jende askorengana.

Tradizioaren birbalorazioa eta liburuakoesiaren popularizazioan lan izugarria Kantugintza Berriak, beraz. Hortaz, merezimendua merezi du. Poesia beraz genero minoritarioa da, baina gure kasuan, belaunaldi honek eta geroztikoek aberslariak letristak falta dituzte, eta euskal poesiak publiko zabala eduki du, poesiari berez genero minoritario gisa dagokionarekin alderatuta.

Leterengana etorrira, bi aro bereizten dira:

1. Behen aroa otso bezala, protestaren ahotsa. Kantagintzaren harroaldiarekin koinziditzen du. Leterik popularrena hemengoa da, hainbat kantu oso ospetsu ditu. Momentu horretan egiten zen euskal poesiak kalean gertatzen ari zenaz hitz egiten zuen, eta horregatik ez zen zail testu horiek himno moduko bihurtzea, eta jendeak indarrez kantatzea. Hemengoak dira bai *izarren hautsa* bai *Nafarroa, arragoa*.
2. Bigarren aroa: Poesia klasikoagoa egin zuena: gaixotasunari buruz, heriotzari buruz... aro pesimistagoa, gaixotasun larria zuelako.

1. Nafarroa, arragoa (1974):

Iradokitzen da Espainiar estatua aldatzera doala eta EHak bere burua proiektua planeatu behar duela, eta ze harreman izango duten euskal lurraldeek nafarroarekin... Euskal Autonomiaren debatearen harria. Konfliktu iturri nagusienetakoa. Azkenean, bi komunitate aparteetan egotea onartu behar izan zuten abertzaleek, ez baitzen lortu Madrilan. Azkenean, negoziazio politiko baten ondorio da. Hasieran behin-behineko zela uste zen, baina ikusten dugu 50 urte iraun duela. Azken momenturarte debate nagusi izan zen. Gai horren kontestuan da testu hau, zergatik pentsatzen duen Letek integrazio hori zaila dela gertatzea.

Oraindik ez dakite frankismoak nola egingo duen aurrera. Behin-behinekotasun horren barruan, Nafarroari buruzko historiari buruzko hausnarketa giten du. EH-az politikoki

pentsatzean Letek historiaz pentsatzen du, horretan oinarrituz. EPitetoak ikusten ditugu: *Nafarroa, arragoa* ('ferreria batean sutegia, labea', gaztelaniazko 'forja') da izango litzateke: sugeritzen du Nafarroan bero handi. Gauzak biguntzen diren tokia. Nafarroaren historia konflikto leku gisa irudikatzen du. Bestetik Arragoan metalak nasten dira, eta hori ere berotasunean egiten da. Hortaz, sugeritzen du Nafarroan gauzak nahastu eta gauzak fusionatzen diren lekua dela. Honekin sugeritzen du Nafarroan oso desberdinak diren elementuak fusionatzen eta bateratzen direla. Arrafoa da Nafarroa. Ez da homogenea ez ekonomikoki, humanoki, geografikoki...

Lehen ahapaldian, geografikoki Nafarroa irudikatu: argia, haizea eta libertatea (hesirik ez) azpimarratu. Gainerako EH-ko kontrakotasunarekin alderatzeagatik: GIp eta Bizk. eta Arab. partean itxia eta estua delako, argia makal sartzen delako...Hesirik gabea: mendirik gabea. Irudikapen horrek esaten ez duen beste EHko diferentziam arkatzen du.

Bigarren ahapaldian: sua metaforikoki eguzkia hegoaldearena, eta ura mendialdeetako, iparraldekoa, Pirineoetatik datozen ibai guztien aipamena. Orain arte geografia, orain elementu garrantzitsu bezala historia (*kondaira*) hartzen du. Kondaira urtua: Fernando katolikoak egindako Nafarroaren kontista, Amaiurren bukatzen den. Beste konkista saio bat Orreaga, kasu honetan Karlomagno egina. Hirugarren Gerra Karlistak, Nafarroan sarraski handiak eragin zituen, eta, azkenik, Gerra Zibila. Euskal komunitatean gehienak Nafarroan hil ziren. Horregatik historia urratua, oihartzuna behin ere ahazten ez dena. Konkistatik hona konfliktoak eta gerrak gogoan.

Letek baditu hitzen arteko jokoak, antzeko diren hitzak alkatzea: antzeko baina e zesanahi bera. Miranderengana hurbiltzen da, baina Letek ironia ez du bilatzen. Antzekotasunean ezberdina dena nabarmendu nahi du, paradojak maite ditu.

- *nafarroa, arragoa* → aliterazio sonatzen du, baina ez da, ez duelako oinarri benetako fonikorik, *t'euria* zuen bezala. Soinuen antza, efektu melodikoa sortum baina ezer ez dago oinarrian, esanahia desberdina da.
- *sua eta ura* → ua ua
- *oihartzun oihukatua* → erlazioa dago, baina ez da berbera.

Letek honela lortu: eslogan politikoa lortu. Jenderaren oroimenean geratzeko.

Nafarroako historia 2. ahapaldian jarraitzen du. *amets bat baino gehiago* → Desira bat da euskal komunitatearentzat Nafarroa, bere osotasuna bilatzeko. Alabaina, ez da perfekzioa, defraudatu egingo gaitu, ez dugulako elkartzea lortzen. horregatik betetzen ez den ametsa (ez oparotasun osoa). Formula *nahiaren eta ezinaren...* eslogana da, paradojiko baina erreal. Burrukatoki—> gertakari historikoak gogora ekarri berri. Nafarroa beraren barruan egon diren gatazkak.

Epitetoen erabilera azpimarragarria.

2. Izarren Hautsa

Testu aski arrazional, argumentu logikoak erabiltzen dituena. Tema gizakiaren ahalegina munduan aurrera ateratzeko. Aldiz, enuntziarioa: Arrazionala, logos moduko enuntziarioa, argumentuak erabiltzen ditu jendea konbentzitzeko gizateriak batera jokatu behar duela hobera egiteko. Lezioak ematen ari dela argi ikusten da, baina hitz egiteko modua ez da profeta baten ahots haserrea edo bere burua modelo igsa jartzen duena. Ez da Aresti gisa mintzatzen. Bere estilo gertukoena bertsolaritzarena da: Amuriza baino lehenagokoak, bertsolaritza tradizionalarena 1880 artekoa. Jendearen baloreak representatzen dituen bertsolariak. Zentzuak agintzen du. Bertsolariaren kasuan oso bakanetan asunto pertsonalez, orokorrean gizartearen kezkez... kolektiboaren izenean hitz egiten duen haots ertaina, eta Letek ere hemen ala egiten du. Kontseju ona kematen ari zaio gziarteari. Gizakiak lana egin behar duela ,eta kolektiboarentzat ona den abalortau behar dela: belaunaldi batzuk hurrengoengatik egin behar dutena. Ongizate komunaren aldeko diskurtsoa da.

Momentu batzuetan erreferentzia konkrituak une historikora. Utopiari. Orokorrean, gizakiak zaila daukala munduan bizitzeko, eta hobe bizik o dela...

Gizateriak superbibentziarako beharrezkoa du saiateza, bilaketa zientifikoa.

Faktore garrantzitsu bat: naturaren aipmena. Gizakiarentzat zaila dena superbibentziareko. Naturarekin bat eginda egin dezake.

Azpimarratu arbolaren ideia: Gizateria arbola gisa irudikatuta dago: sustraiak, lurrari ongi errotu, gu sortu ginen enbor beretik.

Testu honetan badaude garaiko EHko gatzka politkoarekiko aipamenak: *amets eroak* (utopia gehiegizkoak, pentsatuz 2 manif eginda indep. lortukoze), edota sasi zikinak (buruan dauzkagun ghegegizko ametsak). Iradokitzen du konfliktibidade handiegia dagoela, eta kolektibo gisa batera ateratzea eragotziko digula horrek.

ez dadukanak ... → esaldi ohikoa. Xenpelarrek esan zezakeen. Antitesia, eufemismoak, ironia, galdera erretorikoak → pentsamentu figurak/irudiak . Tropo nagusia: zuhaitza. Herritarrek ederki ulertzen zutena, nekazariarentzat batez ere. Ez da poesia kultoaren ideia, bertsolariaren ideien baitan uler dezakegu.

5. GAIA: ABANGOARDIA LITERARIOAK (1976-1986)

5.1 ALDIZKARI LITERARIOAK, Panpina Ustela, Pott aldizkaria

Aldizkari literarioak berriro oso garrantzitsuak izan ziren, eta Panpina Ustela da horietan lehenengoa eta bigarrena, aipagarriena, Pott.

70eko hamarkadako estetika modernizatzailea zuen, Oteizaren eragina kontuan hartu behar da.

XX. mende guztiko mugimendu sinbolista egon zen, Boudelaireren estilora, Arestik T.S. Eliot sinbolista ezberdin modernoaren eragina du: sinbolista da, baina horrez gain *kulturalista* da (-kulturalismoa); goi-mailako kulturatik hartutako erreferentzien arloan mintzatzen dira sinboloak egitean, beraz irakurleak jantzia behar du izan; testuak konplikatu egiten dira horregatik. Hau da, literatura literaturarekin josia ageri da (Elioten testuak ulertzeko Danterenak irakurri behar aurretik). Batzuetan erreferentziak zuzenean esaten dira eta besteetan irakurleak irakurria izan behar duela suposatzen da. Belaunaldi bangoardista honekin etorri zen praktika kulturalista hori.

Kulturalismoaz gain, mugimendu abangoardistak datoz. Mugimendu abangoardistak (kulturalismoa horietako bat da, Eliot-en eskutik datorrena), beste mugimendu surrealista, dadaista edota espresionismoa deritzaten mugimendu literarioak (XX. mende hasierakoak hirurak) dira fokua edo jatorria berez frantzian zutenak, eta XX. menderaen 2.3 erdian zabalkunde eta indartzea izan zutenak.

Surrealismoa garatu zenean, funtsean Freud-en ikerketen zabalkunde handiak zeuden; alegia, subkonszientearen munduan guregan dauden mekanismoek sortzen dituzten sinbolismo bereziak. Gaixoak psikoanalistari egindako ekarazioetatik irakurketa batzuk planteatu psikoanalistak. Irakurketa horiek dira poeta surrealista egin nahi dituenak (?). Ez daiteke sinbolismo normalean bezala irakurketa aski razionala izan, intuitiboa baizik.

Nafarroa arragoan irudi sinbolista dugu baino ez intuitiboa. Oraingo autoreetan, berriz, htizek sugeritzen duten esanahiaren ildotik egin behar irakurketa. Ur handika beraz. Irudimena eta hipotesi poetikoak subjektiboagoak dira. Ondorioz, askoz hobeto ezagutu behar poetaren unibertso pertsonala esan nahi duena ondo interpretatu ahal izateko.

Sarrionandiak Atxagak... irudiak sortzen dituzte, irudi aberastasuna dakarte gure poesiara, baina surrealismoaren ikuspuntutik ulertu behar. Onirismoaren barruan jokutzen dute. Ametsetan gauza guztiek gauza bera esan nahi duten ez bezala, ez dago interpretazio errazik. Dagoen kontestuaren arbaera ulertzen dira irudiak, eta ez banaka banaka aurreko poesian gisan.

Dadaismoa ere mugimendu abangoardista da. *Dada* izeneko formula ez dago argi zer esan nahi duen, interpretazio oso desberdinak daude, ___ Sortzaileak sorut uzten, eta gurera

gerturatzean surrealismoaren experimentalismora gerturatzen da, baina duen berezitasuna ludikoa dela: LUDISMOA→ Esperimentatzeari oso irekiak dauden joerak direla esan nahi du. Atxagak badauka ipuin bat: *ipuin bat bost minututan idazteko*. Aleatorioki emaniko bi hitz emanaz istorio bat sortzean datza ipuin hori. Istorio hori dadaismoaren demostrazio da. Aleatorietatieak eta jolasak dute garrantzi.

Mirande aintzindari da hemen: literatura irri egiteko eta jostatzeko legitimatea zuen. Dadaismoaren kontzeptuaren barruan, ludismo horrek intraszedentzia ekarri zuen; alegia, literatura bere baitan egosten den saltsa da, hauengan askatu nahi bat dago. Literaturaren autonomiaren belaunaldia deitu ohi zaio belaunaldi honi; izan ere, ordurarte oso euskararen egoerari, beharrari... oso konprometituak, gizarteari mezu bat helarazi beharra... Hauek liberazio eske dator. Aldarrikatzen dute irudimena askatzeko baimena, horregatik surrealismoaren ildoak. Bestetik, literatura jostatzeko sortzea. Horrekin azken batean literatura arte barruko gertaera bat dela esaten dute, ez dela hizkuntzaren eta komunitatearen beharrei zerbitzeko, ez dagoela horretarako, baizik eta irudimena askatzeko, ondo pasatzeko, irudimen literarioak sortzeko... Autonomia eskatzen dute euskal literaturarentzat.

Hirugarren mugimendua, espresionismo deritzana, mugimendu literario bezala ez da hain ezaguna guretzat. Beste biak Frantzia eratu eta oso erraz hedatu. Hau berriz jatorri germanikoa da, eta Alemaniako bi gerren arteko egoerari lotua dago. Oso mug- berezia da. Emaizari nagusienak antzerkiaren arloan. Garrantzia ematen badiogu gurean Atxagarengatik da: Antzerkiari garrantzi gehien eman zion idazlea da belaunaldi honetan- Espresionismoak gai oso garrantzitsuak eta tragikoak modu indirektoan tratatzen ditu. Gai oso gordinak, gizartean oso inpaktu handiko gaiak tratatzen ditu, baina modu indirektoan.

Atxagaren *Margarette Henrich* istorioa espresionista da. Trakl izeneko poeta oso garrantzitsua baten gaiak tratatzen ditu Atxagak ipuinak. Jolas bat bailitza haten da idazten (*eman dezagun hipotesirik okerrena, gure pertsonaia trenbidera joan eta...*). Tragikotasuna pertzibitzen duzu esandakotik, baina horrek pertsonaiarengan izan zitzakeen onda esplosiboak. Sugerentzia elementuak ipuinean sumatuz zoaz baina behinere ez da pertsonaiaren barruko mundu intimoa azalazten. Gertaerek transmititzen dute tragikotasuna, baina ez da mundu intimoa espresatzen. Trakl-en bizitzaren elementuak sartzen ditu ipuin honetan. Beraz, omenaldia espresionismoari, eta Berlingo bizitzaren agerpena.

Aldizkari literarioetan lehen emaitzak. Donostian *Ustela (1975-1976)*, Bernardo Atxagak Koldo Izagirrerekin egingo dutela gizarteko usteluneak eta proposatuko duten gizartee ikuspegia kritikoa eta ustela izango dela. Hori horrela da, eta belaunaldi honetan autoreok ikuspegi kritikoa zuen euskal literaturari buruz, estamentuak zeudelakoan, hizkuntzaren lehentasuna... Nardagarri zitzaien, ikuspegi kritiko eta alternatiboa proposatu nahi zuten. Ustela-ko lehen alean lehenengo gauza Atxagaren eskela. Elizaren probokazioa egiten du. Datuak benetakoak izanda (lekua, pertsonak, urteak...), bere adierazpena da elizak blaituriko euskal gizartearekiko arbuioa. Elizaren autoritatea kritikatzin dihardu, eta hor Miranderen zantzuak ditugu.

- Heriotzaren gaiaren tratamendu irreberentea. Heriotza ez da tabu, ez elizaren ikuspegitik tratatzen bhearreko gai delikatua. Modu gordin eta sarkastikoan tratatzen dute. Gainera, gorpuzkiaren aipamenduaren, gorputzaren deskonposizioa ari da sugeritzen. Probokadore da alde batetik elizaren egituratik ateratzen delako, sarkasmoa gorputzaren aipamenerako.

Azlem testua: *ez dezagula konposturarik gal, halere*. Ustela aldizkariaren manifestua da. Hau da, kritikatuko dugu ahal dugun guztia, baina konporta gaitze nduintasunez. Euskal literaturan dudun zailtasunez hitz egiten dute testuan. Euskal literaturaren heroek bertsolariak zirela aldarrikatzen zuten (garatu hau).

Ustelak hiru ale izan zituen: ... agindu gubernamentalez itxi zen, zentsurak multa jarri zielako.

Bi urte iraun zuen idazle bezala bere lekua billatzen, eta **POTT (1978-1980)**: Sei ale atera ziren, eta horietatik 1. an jadanik Atxaga, Jauristi, Ruper Ordorika, Sarri, Erzilla... taldean daude. Jatorri ezberdineko jendea biltzen uzten. Aldizkari hau idaztean, portada aipagarriena: 4 hipopotamo etzanda, deskantsatzen. Beren burua ez dute seriotzat hartzen. Konpomisoari ihes egite hori karakteristikoa da aldizkari honetan, aldizkaria ez da atera euskal literaturan dagoen hutsune bat betetzeko sortzaileek nahi dutelako sotu dute. Literaturan jostagarri eta kolokiala dirudien estilo ludiko bat du.

Euskal unibertsitateak 70era arte eziren euskaldunak izan. Euskal distrito unibertsitarioa 70ean, diktaturak ezarritako zigorrak. 70etan gertatu zen esplozioa giro unibertsitarioari dagokio. *Ustela*: Donostiko Deustori lotua, *Oh! Euskadi* ere letren fakultatean, *Susa* ere donostiako kanpusean. Aldizkari fancine ez numerodunak, lizentzia gabe. 80etatik aurrera babesa erakunde kulturaletan. Labayruk: *Idatz eta mintz argitaratzen* zuen, euskal ikastegi bat horren atzean. Iparraldean *Maiatz* eta oraindik bizirik. Ludismoak eredu alternatiboa sortu zuen.

5.2. Bernardo Atxaga, *Etiopia* (1978). Poesia modernoaren hirugarren kanona.

Reaktibo kimikoa izan zen, energia handiko gizona. Saltsako piperra, jende arteko eta aurreko ekintzak egiten zituen. Dinamizatu egiten ditu ekitaldiak. Ziutateaz oso surrelaista, diktaturari buruzko hausnarketa. *Etiopia* liburua, euskal herriko errealitate oso desegokia azaleratzen du. Tituloak Utopiarekin duen harremana, harreman ironikoa da. Utopiaren kotrakoa, distopia bat da. Bestalde, poeta frantses surrealitari, Rimbaudi keinu bat dela esaten da. Kafkaren eta Trackelen espresionismoa ere agertzen da.

18/04/2024

Aldizkari garrantzitsuenak 60etan: *Ustela* (Koldo Izagirre kolaboratzaile) eta *Pott* (ildo desberdinetako kideak batu ziren, bai ideologikoki zein formazio aldetik.

Arestirenganako lotura personala zuten. Jon Juaristi adibidez, Atxaga, Ercilla, Sarrionandia, Iturralde... halako talde bariatu bat elkartu ziren, *Pott tropikala* azkenengo proiektua. Zentsura zela eta ezin izan zuten jarraitu. Pott izeneko editorial bat nahi izan zuten sortu, horrek, halako autonomia bat ematen zielako, beren aldetik beren aldizkari abt sortu nahi zuten baina, e zuten lortu Atera zuten liburu bakarra, Etiopia izan zen. Hori dena proiektu bat zen, baina, proiektu horrek pott/ porrot egin zuen. Gainera, 80etan, taldea sakabanatu eta aurreraxeago berriz elakrtu ziren taldeko zenbait kide. Iparraldean, *maiatz* izeneko iparraldeko aldizkari literario taldea, gaur egun ere argitaratzen da *maiatz*. Beste aldizkari bat, Iruñan sortutakoa, *kandela*. *Pamiela* hasiera baten aldizkaria izan eta gaur egun editoriala da. Gehien saiatutakoa Atxaga izan da, beti ebra editorial taldean egon delarik. Benetan, aldizkari literarioen sustatzaile izan da bera. *Etiopia (1978)* talde horretako kideak izan ziren liburu hori banatu zutenak, talde amateurra. Liburu honen berredizioa, *erein* (1983)an edizioa, lehenengo edizioaren testu guztiak daude hor. Ez da berdin berdina, baina, emendatua dela esango genuke, beste testu pare bat gehitu zituen. Antologian, gehitu zituen testuak ikusi ditzakegu. Bat, *esploradorearena* eta *negukoa* bi testu horiek ez zeuden lehenengo edizioan, baina, bai bigarreanean. Liburutegian, bigarren edizioa aurkituko dugu batik bat. Gaur egun bitxia den liburu bat da, zergatik? Atxagak rodotik ez duelako berriz editatu, ez du hori editatzeko baimenik eman Atxagak. Orduko asmo hura gainditua sentitzen duela dio.

Joseba Sarrionandiak bere lehenengo liburuarekin joera bera izan zuen 1981ean argitaratu zena, *izuen gordelekuetan barna* hori orduan editatu zen, bilboko kutzak saria eman zion. 2014ean, egin da lehenen. Zer gertatzen zen Euskal Herriaren proiektioari buruzko ikuspegi bat dago, trantsizioari begira, euskal herriak nolako proiektu politikoa erabakiko zuen gai polemikoak dira, gerora, urtetara, gainera, idatzi zuten ideia eta idatzi zituzten gaiak ez dira mantenduko. Abanguardia oso berezia garatzen dute, baina gero, beraien poetika aldatu dute, beste era batera idazten hasten dira. Momentu hartan, gizarte osoa gotik behera aldatuko zen itxaropen bat sentitzen zuten, posible ikusten zuten aldaketa hori. Benetan etorri ziren, estruktura politikoak etab, aemts eroak zirela. *Izarren Hautsa* poemn, bide ebriak hartzeari buruz hitz egiten du, halako utopia zaletasun handiarekin. Desenkantua deitzen den dezepzioarekin. Leteren hitzetan amets eroak, hori kudeatzea izugarri kostatuko zen. 70etan sortutako itxaropenak, 80an konturatu ziren aski desbideratua zela hori. Atxagak egiten dituen testuak, antologian pixka abt gainetik komentatzen dira: *erdoilarena*, *kalatxoriak* ez dira poema bera, baina, bata bestearen atzteik doaz. Atxagak Bilbo nola ikusten duen hamarkada horretan, Bilbo hori erdoildua dela badirudi ere, erdoil kolore horrek, Bilbo itsuis bat planteatzen du, itsusitasun horretan, bilatzen duene dertasuna / estetikotasuna, handia dela. Bilbo hondatu, endekatua ez du deskribatzen Atxagak, itsuste edo erdoil horretan edertasuna azpimarratzen du Atxagak. Literalizatzen ari da Bilboko hiriaren alde hondatua dirudiena. *Kalatxoriak* ildo ebran doa. *Harearena ??* gabriel Aresitir egindako omenaldia da, ikustearrekin bakarrik, testua, nolako estua eta luzea den, hori Arestiren forma literarioa duena da, omenaldia da. Omenaldia da baita ere, enumerazioaren erabilera (kaleak gora kaleak behera). Testu honetan egiten ditu enumerazioak, ikusten da, Gabriel Arestirekim obratan ari dela, sinbolo material gisa harria dela. Litofilia bezalako zerbait zeukala zioen Arestik. Esan nahi du, EH ren konzepzio monolitiko hori daukala. Euskal Herriak resistentzia sendotasun bat erakusten zuela, Atxagak hemen esagten dio, harria baino gehiago harea dagoela. Arestik

proposatzen duen halako sendotasun epiko hori, hemen, harea dago, harri desegina baitago. Beraz, harea gehiago dago harria baino, ez gara horren iraunkorrak, ez gara horren sendoak. *Harearena*, desparadisua nola aipatzen den, utopia ez. Egoeraren aurrean daukan dezepzioa perzepzio pesimista.

5.2.1 HAREARENA (Etiopia)

Enumerazioaren estrategia, tematika ere Arestitarra: harria eta harea. Distopien situazioa erakusten du. Atxaga izan zen hemen osatu ziren amets berriak hutsean geratu zitezkeela eta Franco hilda ere trantzisioak arazoak ekarriko zituela. Gure errealitatea da harezkoa dena. Surrealista: planetez ari da, harezkoak, odol beteak eta malko esentziak ezin daitezke izan. Odol bete ontzi bat, odola aipatzen badu, negatibotik jarraitzen du. Odola, malkoa, harea... heriotza ez dago urruti. Harria hondar bihurtzea galkortasuna. Gutun horizatuak: gutun zaharrak. Erloju hautsiak. Hiztegi liliputiarra: hitz gutxikoa, erreduzitua. Dena hiltzea eta gutxitzea. **Dekadentziaren ideia**a zabaltzen da. Enumerazio batean batzen du ikusten duen errealitatea. Arestirekin hitz egiten dago. Arestik profeta gisa langilearentzat egiten zuen tokian berak desparadisua ikusten dute, eta interpretazio filosofiko batean, eman dion zirkulazioarengatik (hasiera eta bukaera =) denboraren hausnarketa ere badagoela ere esaten da; hareazko erlojuak iradokitzea denboraren tematika, buelta eman eta hareak (denborak) beste aldera egiten du. Denboraren ziklotasunaz edota zirkulartasunaz dihardu. Baita eguna eta gauaren artean egiten duen zikloagatik ere. Beraz, denbora da benetan giza bizitzaren muinean dagoen elementua, eta hareaz neurtzen da denbora, eta hareaz batera dago sufrimendua, malkoa, odola... Bi elementu horiek: Desparadisu horretatik irakurketa soziopolitiko garbia, eta bestetik filosofikoa: denboraren eta bizitzaren ziklikotasunaz hausnarketa. Testuan iradokitzen dena da ez progresioa, baizik eta denboraren zikloarne krudeltasuna.

Testu hau liburuko testurik aipatuenetarikoa da. Hurrengoak, esploradorea... 83ko edizioan erantsi zituen. Beste testu oso karakteristiko bat Etiopiakoa: literaturari buruzko hausnarketa. Testu metaliterarioa da *Lizardi* izeneko testua, Atxagak euskal literaturaren iraganaz komentario literarioa egiten du.

5.2.2 HERDOILARENA (Etiopia)

Handik bi urtera R. Ordorikak bigarren olatua ekarri zuen *Hautsi da Anfora* diskan sartu zuenean Etiopiako letrak erabliz. Hautsi da anfora-ren ideia Etiopiako poemetako batean dago, eta neurri batean irudi bat da, metafora bat, esateko iraganetik (klasikotik) literaturari buruz heldu zaigun irudia hautsi egin dela; beraz, mundu zaharra amaitu dela eta aro berri bat irudikatzen du. Iradokitzen du aro berri guztiz desberdin baten aurrean daudela. Bere pertzepzioa irudikatzen du.

Testu honen metaforak badakigu Bilbo hiriaren ingurukoak direla, eta Bilbo Atxagak nola perzebitzen zituen ingurukoak. G. Arestiren ikuspegiarekin konparatu ohi da. Arestiri Bilboko kaleen izenek frankismoaren errepresioaz pentsatzera eramarazten zuten, hierarkia

frankistaren zampaketa Bilboko herriaren gainean pentsatzen zuen. Bilbori begiratzean hori ikusten zuen, militarren, administrazioaren zapalkuntza eta boterea, eta aldegitoko gogoia ematen zion. Atxagak, Bilbo ikustean, gauza oso desberdina ikusten duela esaten da, eta tarteko 15 urteak antzematen direla. Sugerentzia hauek:

- Bi hitz hauekin giro melankoliko eta dramatiko bat sortzen du guregan, erabiltzen dituen izen sintagmek tristezia eta agonia sugeritzen dute, beraz, drama giroa:
 - Tristezia: herdoilarena
 - Agonia: ilargiarena
- Proletario eta eskale: klase behartsuak.
- Murrailak: muruak. Sinboloak dira. debekua, gaindiezina den zerbait esan nahi du. Iradokitzen du zerbait oso sendo eta gaindiezina dena, eta eguner ogertatzen da. Hitzek iradokitzen dute ya tematika bat. Proletario, eskale eta murrailak dira tristeziaren eta agoniaren subjektu.
- Zubi zahar: Arriaga antzoki ingurukoak. Leku hori sinbolikoki testu honen eszenario.
- Banaka banaka paisaia horretan bizi direnak:
 - Berripaper saltzailea: zubian bertan, jende gehiena pasatzen den tokia delako, baina aspertzen denez, ibaiari begira. *hitz ezezagunen hiztegi bati bezala* → KONPARAZIOA: absurdoa iruditzen zaiola ibaia, hiztegi ezezaguna bezala. Iradokitzen du prentsa irakurri eta absurdoa dela, berriak notizia absurdo, krudelak... ibaia ere nahasia, konpreniezina. Bi horiek konparatzen ditu.
 - Boxeolariak: beraien hita, kirolik popularrenetakoa garaian. Atxagaren gai propioa da boxeolarien mundua, bere testuetan behin eta berriro ageri dira: Uzkudun bezalako boxeolariak eta baita Ipar-Ameriketako boxeolarien erreferentziak ere, *Nevada*-n, adibidez. Bere mito degradatuak dira.
 - Trenak: Bizidunak balura bezala. Beste KONPARAZIO bat. Apatrida: nazionalitaterik gabekoa, naziorik ez duena edo kendu diotena, aberri gabekoaren dieia. Hori Atxagaren testuetan 1 baino gehiagotan agertzen da, abertzaletasunarekiko arbuio bat bezala erakusten dio. Ez dio leialtasunik erakusten aberri/nazio-ren kontzeptuari. Hemen esaten duena da trenak apatridak bezala doazela, galduta doazela, trenak aberri-rik gabe eta nora doazen ez dakielarik doazela, norabide jakinik gabe ibiliko balira bezala. Fatalitatearen menpe daude, ideia hori akumulatu: ezezagun, apatrida, fatal. Destinoa fatalitatea da, destino txarra.

denboraren oihal xinglea arratsezkoa soilik → iluntzero teloa isten da. Denboraren metafora da.

Metaforikoki biolinak sortzen duen soinuak **nostalgia** sortzen dio.

- mozkorrak:
- kalegarbitzaileak
- prostitutak

Pertsonaia horiek paisaje humano bat osatzen dute. Paisaje hori egin du pertsonaiak aipatuz eta personifikazio bat eginez (trena). Irudi horiek transmititzean, ikusten da, bestetik, enumerazio zerrenda bat ,Bilboko paisaia humanoaren zerrenda. Bukaera aldera, zerrenda gero eta azkarrago, badirudielako berak urrunean ikusten dituen figurak direla. Gertuago daudenak zehatzago epslikatu ditu, Beraz bera arenaleko zubiak kokatzen dela dirudi. Zenbat eta gehiago urrundu kamara, gutxiago zehazten ditu, izendatu bakarrik. Pintura bat bezala irudikatu da, gertutasunaren zehaztasuna eta urruntasunaren zehazgabetasuna. Soinuak, koloreak, argiak eta itzalak ere agertu dira. Beraz badu zerbait pintorikotik eta pintoreen sentsiberatasunetik. Beraz, halako sentsorialitatea du, soinuen/koloreen bizitasun/itzaltasunarekiko.

Testu honetako Bilboren ideia dekadentea da. Nolabait estaeko, ez dauka kolore bizirik bukaerara arte. Aukeratutako protagonistak klase baxuenak dira. Eta hala ere berak edertasuna ikusten du Bilbon. Beran dagoenari begira geratzen da, nahiz ez duen gezurrezko apaindurarik jartzen. Poetikotasuna bilatzen du Bilbo degradatuan, eta hori bere irudi apaingarrietan dago: sortzen dituen irudiek/metaforek Bilboren erakarpen dramatikoak sortzen dute, berak bere begi poetikoekin zerbait erakargarria ikusarazten digulako. IRUDIAK:

- Herdoil tristea: herdoilak abandonua erakusten du, euria, intenpiereak burdina herdoildu, etae abandono/tristezia transmititzen du. Badu herdoilak ederretik ordea: bere gorri kolore berezia. Tristeia dela dio, baina kromatikoki gorri erakargarria. Sentsiberatasun estetikoa dagola ikusten dugu, esan bezala: kolorearekiko kasu hontan.
- soinekoa daraman emakume batekin metaforizatzen du hiria. Hiria emakume bat bezalakoa dela dio, udazkenetan lanbroz jartzen dena. Hiria edertzen du. Euriaren nostalgia, melnakholia eta sentimentu edertzalea dauka hiri horrek jantzi gisa.
- Hiri horretako zerua baso-arekin ari da konparatzen, lainoz egindako basoa. Lehen lau lerroetan hiriaren paisai dakusagu, non herdoila aipatzen den (bilbo burdinaren hiria delako) eta horrekin batera emakume bat bezala lanbroz jantzia dagoen hiria, eta 3) bere hiria lainozko baso batez jantzia.
- Hiria etxe bezala egiten du: hiriak jendeari babesleku. Hiriaren babes / zerua laino oihana da. Proiektatzen dituen irudietan inplizituko Bilbori buruzko ideiak: xirimiria, burdinaren produzioa eta herdoilaren kolorea...
- Ilargiaren badaezpadako agonia: Agonia da ia-hilean, heriotzaren aurreko borroka. Agoniak borroka esan nahi du (bizirauteko). Agoniarekin iradokitzen du ilargiak bizitzeko egiten duen borroka. Horrek sugeritzen du, plano errealan, lainoen artetik agertzen dela eta batzuetan dirudiela bizirik egongo dela, eta beste batzuetan hilda dagoela.
- Irudi horretan erakusten duen bilbo, 4 metafora bat bestearen atzean jarriz, iradokitzen du paisaje horrek erakartzen duela, Bilbo ederra iruditzen zaiola, xarma nostalgikoa duel; izan ere, irudimen handiko irudiak pilatu ditu.
- Bilbok gordetzen ditu askorentzat parasitoak, superbibentzia posible egiten dutenak ordea. Iradokitzen du hainbat pertsonari bizimodua eta babeslekua eskaintzen diola hiriak, eta denek beren lekua aurkitzen dutela bertan. Hori mezu garrantzitsua da

testuan: hiriak klase proletarioari tokia egiten dio eta baita horien antzeko beste pertsonaiei ere. Superbibentzia katea: eskaleak daude ta eskaleek kalatxoriei jaten ematen die.

Testua ez da soilik deskribitiboa, hiriaren ideia bat ere bai baitu.

5.2.3 KALATXORIAK (Etiopia)

Poema beraren bigarren partea. Hegaztiak bihurtzen dira protagonista. Kalatxoriak eskaleekin batera bizi direla dio. Honek esan nahi du kalatxoriak ez direla izaki oso poetikoak: bizitza ez da lirikoa (hondakinak jaten dituzte, eskaleekin bizi dira...). Alabaina, badirudi nobleak bailiran elkartzen dira, kortesauak bailiran. Poetizatu egiten ditu. “maitasuna erreparatzeko” eufemistikoki: ogia, lekua, jana, nanesa nahi du. Maitasunak esanda badirudi kapritxoa dela, eta hor dago poetizazioa. Poetizazioaren eta ironiaren artean dago. *on derizkiete* → maite/gustoko zaitut esateko esamolde klasiko fin eta jantzia, Oihenartek esango zukeena. Finezia eta eleganzia emateko, poetizatze eta ironia egiteko. Maite dituzte, aristokrata batek bere dama maite duen bezala. Protagonista horiei omenaldia, hiriaren protagonista liriko izendatzen ditu kalatxoriak.

22/04/2024

Liburu horren barruan dauden testu aipagarriak: Herdoilarena (mamia dauka eta oso errepresentatiboa NEOABANGUARDIARENA) irudiekin egiten du paisaia baten pintaketa. Bilboren irudi enamoratu bat, erromantizatu. Bertako protagonistak oso klase bajuko protagonistak dira, argi-proletarioak, kalatxoriak, bilboko alde zaharrera sartzen dira merkatuko sobrak jatera. Submundo bateko pertsonaiak bihurtzen ditu, baina berak aristokrata bezala idudikatzen ditu. Sandalo lorea: aristokrata, sandalo orriz markatutako liburua, refinamendua. Euskara refinatua, galduta zeuden formulak. Lortu nahi duena: hegaztiak kulto, aristokrata... moduan irudikate. Bazterreko bizitza euki arren, refinatuek izan daitezkeela. Amaieran, filosofoa balitz bezala, hari baten gainean ekilibristak dira hegaztiak. Esaldi paralelistikoen bitartez bere nobletasuna adierazi. Bizitza ziklo bat bezala argitu eta ilundu egiten direla eta kalatxoriak horren metafora dira.

Arestik harria eta Atxagak harea. Aresti herriaren gogortasunean eta erresistentzian lan egin eta Atxagak denboraren geldiezintasunean egin zuen lan. Kalatxoriak ere denboraren mudapenean. Esan ohi da Etiopia denboraren hausnarketa dela: denbora melankolikoa, dena desegiten duela, eta azkenean harea (ondarra) besterik ez dela geratzen.

Etiopiaren bigarren edizioan sartu zen “*Esploradorea*” (neguko... bezala) mundua ikusi duela bakarrik gelditzen zaio. Bidaiatu du, baina bidaiaren bukaeran ez dauka ezer, iragana direlako igarotako egunak. Irudien aldetik poeta hauek oso aberatsak (Sarri bezala): kasu honetan “zer geratzen zait bidai honetatik” ba oroitzapenak. Bizitzaren metafora bat da bidaia poesian beti, eta bere kasuan, esploradoreak (bidaia horiek egiten dituen pertsona)

egindakoak oroituko ditu, baina azkenean hautsa bezela asentatu eta egun batean berreskurazinak izango dira. Hemen ere denboraren inguruko hausnarketa dago.

“**Berandu dabilta**” manifestu libertario bat izan zen. Testu bat 70etan pentsatzen zen zerbait buruz. Mendebaldeko kultura kontrolatzen zuten mekanismoen ideologiak aldatzeko beharra.

Lizardiri buruzkoa: bi kotnurengatik garrantzitsua:

1. kontakizun bezala kontatua. Liardiren baratza-ren berrelaborazioa egiten du, berrelaborazio kritikoa. Kritikatu egiten ditu : _____ -
2. Literaturari buruzko hausnarketa dago. Abangoardiaren ezaugarri bat da metaliteraturarako joera. **Neobangoardismoaren hiru ezaugarriak:**

a. **Irudiak oso garrantzitsuak.**

b. **kulturalismoa:** Lizardi eta asaba zaharren baratza agertzen da, eta lizardi adarra jotzen agertzen da. Ikuspuntu ironikotik jokaten da. Atxaga Lizardi bezain esentzialista eta euskararen aldekoa.

c. **Metaliteratura.** Atxagaren eta Sarrionandiaren metaliteratura konparatu. Atxaga: euskal poesiaren. Sarrionandia: hitzen etimologia, testu zaharren barruan sakontzea. Beraz, nabaritu egingo da euskal filologoa dela. Atxagarekin ez, baina Sarrionadiarekin filologia ere kontuan hartu behar da. *han izanik hemen niz* idatzi zuenean Oihenart zuen inspirazio. Bestalde, “Poesiaren gauza galdua”-n misterio bat dakusagu: *gauza*. Zer gauza galdu zaio poesiari? Lehenagoko poesiak bazeukan zerbait oraingoak ez daukana? Poesiaren gauza, bere funtzioa, bere betebeharra... horri buruzko hausnarketa da poema hau. Bera ari da konparatzen bera baino lehenagokoek poesiaren funtzioari buruz sinetsi dutela mundua edota bederen euskal mundua aldatzeko balio zuela. Horregatik, guretzat “gauza” izen arrunta izan arren, latinezko “causa(m)”-etik datorrena, eta horrek jada beste esanahi bat du, *asmo* edo esan nahi duena (la causa de la libertad, adibidez). Expresión horrek gauzak zertarako edota zergatik egin gogorarazten digu. Poesiak zein funtzio, helburu eta goi-asmo duen. Zein idealen alde egiten duen poesiak. Hortaz pentsatzen du poeman. Seguruenik, tsu honetan poesia soziala egin zutenei ari zaie pelota botatzen: poesiak funtzio soziala zuela pentsatzen zutenei: Aresti... Arestiren funtzio soziala, mezua iradokitzea, ideologiaren ...eztabaidan jartzen ditu Sarrik. Eztabaidan, baina ez du hori dena gezurra dela esaten. Kuestionatu eta bukaeran birformulatu egiten du. Funtzio metaliterarioa ez da jolas hutsa. Beraz, gure testuan, **kulturalismoa eta hausnarketa metaliterarioa.**

3. Lizardi agertzeaz gain, Rimbaud frantsesa ere agertuko da, surrealismoaren figura nagusia. Etiopia titulua berari egindako keinua izango zen ziur aski, nahiko buruhaust jarri zituelako Rimbaudek eta gero desagertu egin zelako Etio pian.

5.2.4 LIZARDI (B. Atxaga, Etiopia)

Egoera: Atxaga eta bere konplizeak (bere garaiko idazleak) Lizardiren zain daude eta zain daudelarik Rimbaud etorri zaie. Poema narratibo bat da, istorio bat kontaktzen duelako. Lizardiri kontaktzen dio istorioa. Beraz, hasieratik ikusten da Lizardi dela hartzailea. Tratamendua eta enuntziatio modua markatzen duen registroa: hika-ko tratamendua ausardia, familiaridadea, atentzioa ematen du. Tratamendu horrek hasiera batean familiaridadea adierazten du, kidetasun bat adieraten du Lizardirekiko, bere berdina bailitzan tratatzen baitu, eta testu guztian hala da. Situazioa fikzionalizatzen du, nahiz eta pertsonala errealek hitz egin ezinezkoak diren situazioez hitzegiten baitu: *Lizardi, Rimbaud etorri duk...* familiaridadea. Gurutzatzen ez diren bi lerro dira. 1. partea lagunarteko egoeraren kontaketa da.

Erlojuak: denbora da tema. *Erlojuak janean* → metafora (irudi) surrealista da. Denbora azkar pasatzea nahi duzula eta erlojuak jan egiten duzula: inpazientzia, Lizardiren etorrera modu inpazientean egiten dutela. Belazea: unibertso Lizardiano bat dira paisaiak, gerora baratza etorriko da, eta horretarako prestatzen ari da, Lizardiren paisaian sartzen, zain gaude zure territorioan.

→ Alosko torrea: eresi bat zen. Deban dagoen torrea da, non istorio bat dagoen: traizio istorio bat. Testu narratibo bat da.

Lizardiren geografia inguruan daude. Deba inguruan. Alabaina, 5 mende atzera bidali du mezularia Erdi Aroko kontua delako, eta hori metafora surrealista da. Lizardiren obra oso antzineko sentitzen dutela esan nahi du. Belek dabilta Alosko torrearen istorioan eta Atxagak hori ere ekartzen du. Euskal kultura (ahozko kultura batez ere Atxagaren kasuan, eta idatzizkoa gehiago Sarriren kasuan) ulertzea beharrezkoa da hau ulertzeko. Esan nahi duena da: aspaldiko kontuekin habil: Lizardi ez da egungo konfliktuez kezkatzen, iraganeko kontuekin ari da belek uxatzen. Ideia da Asaba zaharraren...-n euskal kultura frogatzea ... eta Atxagari aspaldiko kontuak iruditzen zaizkio. Metafora kulturalista hori adierazteko da Lizardi gaur egun ez diren beleen kontra dabilela esateko, iraganeko kontuekin.

Alegia, beraiek poeta moderno /bangoardista bezala sumatzen dute bere burua. eta lizardi ez. Hori egiten du, historikoki, kronologikoki begiratu, Lizardik Rimbaud ezaugutu zezakeelako. Garai kronologiko berean bizi arren Lizardi eta Rimbaud, garai poetiko oso desberdinetan bizi ziren. Hori da Atxagak salatzen duena: euskal poetak ez zirela kontenporianidadean bizitu.

Zain daudelarik, kanpaiak entzuten dituzte. Sugerentzia fonikoak dira; zaratzak entzuten dira, eta zarata horrek euskal kulturaren heriotza/agonia adierazten du. Beraz, norbait heriotzean da edo hila da. Txakurrak zaunkaka ere zerbait txarraren iragarpen bezala ditugu. Beraz, Lizardi azaltzean gertaera negatiboren bat: bere agonia/heriotza iragartzen da. Balantzaka etortzea: intseguridadea, ahultasuna adierazten ditu. Halaber, metaliteratura dago: asaba zaharrea amona horrela agertzen da. Balantzaka datorrela esatean, alde batetik Lizardi ahulduta

etortzen ikusten dugu (Ahosko dorreak ahuldu duelako) eta irudi horrek bat egiten du amonaren etorreraren irudiarekin. Beraz, ez da Lizardi bakarrik, Lizardi + asaba zaharren baratza da.

zerraldo erori haiz... Inflexibilitatea iradokitzen du, zuhurtasun/gogortasuna dagoela Lizardiren obran, mundu berrira egokitzeko zailtasuna daukana. Metafora surrealistikak.

eta gorpu gogor.. → Lizardiren gorputza tronuan jartzen du. Udazkena intertextuala da baita ere, Lizardiren poema nagusian *ene begiak*-en udazkena delako poema bat. Testu hori poemaren momentu sublimean bere momenturik gorenean hil da esan nahi du. Begi zabalik gelditzea: Lizardiren Bihotz begietan obrarengatik. Plazer estetikoaz idazten du, pietatezko ekintza hildakoei begiak ixtea. Lizardiren poemei ere erreferentzia egiten dio. *Adiorik ez*, segituko dugu, ez dut despeditu nahi. Lizardi beste noizbaiteko borroketan ibili arren, udazkenaren tronuan. Errespetuz, familiaridadez...

Baratzen, Asaba zaharren baratza: neurri batean lur sakratu bat bezala. Bere baratzean ehorzten dute eta horrek errespetu bat iradokitzen du. Errespetu adierazpena eta afektua dago beraz. Udazkenaren tronuan eta bere baratzen. Metaforak dira. Muxikan sartuta ehortzi dutela → METAFORA: txikia dela, polita ematen duela, baina muxika dela, arbola ere bai baita. Oso arbol politte. Lizardiren estetikari jarraitzen dio. Fruitu hau euskal kantu zaharretan agertzen da arbola eder bezala; horregatik, irudi delikatu horrekin lotzen du Lizardiren ehorzlekua.

Kritika egileari baino gehiago haren inguruan dagoen mugimenduari, jendeari... egiten dio (beti lizardi goستن baitzebiltzan abertzaleak). Era guztietan ere, Lizardik biktima dirudi (pirotekniarena, eta gorago, bere heriotzagatik). Biktima edo sakrifikatu poemaren irudia daukate garai hontako belaunaldiek. Egin behar zuten poesia egin izan ez balute bezala perzibitzen dute.

Gaztetasunaren harrokerai bat egon daiteke. Geroztik askozaz lan errespetuatsua goak egin ditu, konturatu delako kinkan dagoen asuntia dela euskararena.

- **Enuntziatioa** ni bat da, ni poetikoa, Atxaga bera errepresentatzen duena, eta gertaera bat kontatzen du; beraz, erregistro narratiboa erabiltzen du.
- **Gaia**: Lizardiren poesiaren akualitatea edota ez-akualitatea. Batez ere Rimbaud bezalako poeta surrealistikarekin alderatuz, hor intentzioa ikusten da ia.
- **EGITURA**: ez dauka egitura metrikorik, baina horrek ez du esan nahi tartean errimak ez daudenik: *zaunkaka ... balantzaka*. Nolanahi ere, ez dirudi erritmoari garrantzi berezirik ematen dionik. Istorio bat kontatzen ari denak bezala egiten du lan. Alderdi formaletik ez dago landua. anaforarik, egitura paralelistikorik... ez. Apaindura azalekoa ez dago.
- **Hizkeraren erregistroa**: hikaren tratamendua, testua osorik irakurrita, honela interpretatuko genuke: familiaridadea adierazten du. Poeten kofradiaren tratamendua.

Ez dago gehiegizko konfiantzarik edo atrebentziarik. Familiaridadearen barruan, baina testu honetan Lizardiren **fikzionalizazio** bat dago, eta horretan beste garai batera eramaten du Lizardi : antzinako EH batera, ahaide nagusien arora (Eresien arora, XV-XVI. mendea). Hori kronologiari begira distorsioa da, eta horren helburua Lizardik kontu zaharrak eta 2. batallitan ari da bere etxeraren honra, izen-onaren alde. Distantziamendua markatzen du beraiek eta Lizardirengatik.

- Kulturalismoa da Euskal kulturako barruko erreferentziak ezagutzea: Lizardi ondo ezagutzea eskatzen du. Asaba zaharren baratza ulertu gabe eta Alosko dorrearen istrioa ezagutu gabe, hau ezin ulertu. Hori da kulturalismoa. Sarri ildo berretik doa.
- Metaliteraturari dagokionez, Atxagaren Lizardi testuak hau sugeritzen du euskal poesiari buruz: berankortasuna. Euskaraz, mugimendu literarioak eta joera berritzaileak atzerapenez ailegatu izan direla. Berankortasun hori salatzen du.

5.3 ATXAGA BERRIA:

“Bizitza bizitza da”

Gandiagarena bezala, idea bat hartu eta formalki landu. Formulazio tautologikoa, berez azaltzen da argumentu bat denarekin: bizitza, bizitza da. Gaia: zer den bizitza. Titulu hori lehelengo esaldian azaltzen du: bizitzaren emaitzak bizitzan zehar konkistatzen diren gauzak. Bere bizitzaren esfortzuaren emaitzak. Bizitza formulatzen dugunean, bizitzan lortu dugun emaitzekin formulatzen dugu. Lorpen horiek emaitzak dira. Bizitu duzuna esperimintatu duzuna da eta ez lortu duzuna.

EZ asko, egitura paralelistikoa. Estructura paralelistikoa helburu bezela dibulgazioa. Madrileko metro eta treneko atentatuak gertatu zirenean, poemari bi lerro erantzi zizkion: *kentzan duenak kentzen du dena*. Halako karga dramatiko bat erantsiz. Ez dira lorpenak bakarrik askoz gehiago da bizitza: *ez hori bakarrik bizitza*. Bukaerako horrek lelo bat osatzen du. Esanahi gogorrago bat erantsiz.

Epifora: amaiera berdinarekin bukatzen duena. Testu erlijiosoetan oso erabilia. Bizitza kentzen duenak dena kentzen du. Solemnidade batekin azpimarratzen du: ez kendu jendeari bizitza, bere bizitza da eta.

Testu honen atzean Mikel Laboaren kantu bat dago: *lilurarik ez*. Bertol brej-engandik euskaratu zuen Laboak. Intertestualitate hori dago Laboaren / Bertol Brej-en testuan: *galtzea, litzake galtzea dena* → ATXAGAK ALDATU.

5.4. JOSEBA SARRIONANDIA

Komentatu behar dugun testuan: metaliteratura dago. Poesiaz hitz egiteko metaliteraturaz baliatu. Atxagak Lizardiri egindako poeman, omenaldi bat eskeintzen dio eta aldi berean kritika, hor hausnarketa metaliterarioa dago. Poesia garaikidearen alde, beraien ustez euskal poesiak behar duena delako. Euskal legitimizazio kulturala ez da bat-batean gertatuko. Beti baldintzapeko askatasunean egongo da.

Konponente metaliterario gehiago dituzte Sarrionandiaren lanek.

Atxagaren fondoan beti dago ekonomiaren berri izan zuen eta filosofia purua ikasi zuen autoreak. Alde batetik, erreflexio filosofikoa dago bizitzari buruz dago, hori oso Atxagrra da, baina aldi berean negozioak ondo funtzionatzeko zer egin behar den dakien pertsona bat da; gestio-lanean dakiena da, badakiena buisness-ean, eta lagundu dio aldizkariari... antolamenduan. Berak badauke gestore edo lider izaera. Bere poesian ikusten dena da ordea bestea, hausnarketa filosofikoa garatzen duena.

Sarrionandiaren gaiak: kartzelako poemak izeneko liburua, liburu horren gainean birformulazio asko egin dizkio. Kartzelan bizi zituena kontatzen diura. Bigarrena, exilioa. Alde batetik, exilio literario handia egon zen Gerra Zibilean, gerra konfliktoengatik exiliatubehar izan zutenena. Beste exilio importante bat Europa mailan mundu gerra baino lehen, alemanak nazien ideologiatik aldegiteko inglaterra. Beste exilio bat erregimen sobietikotik alde egin behar izan zutenena, eta hortik ere literatura gainditu da. Sarrionandiaren exilioa ez da exilio horietan sartzen: bere exilioak klandestinitatea eskatzen du, bere izaera gorde behar izan duen pertsona bat da: exilioa + klandestinitatea bi elementuak batzen dira. Identitate kamuflatuaren arazoa gehitzen zaio exilioari. Ezin du euskal idazle bezala inon geratu. Horregatik, bere exilioaren tematika berezia egiten du horrek, eta neurri batean, problematika bat gehiago gehitzen diolako: identitate ezkutatuarena.

Bi tema horiek (kartzela + klandestinitatea) markatzen dute bere obraren tematika neurri handi batean. Beste tema asko ditu egile honen obrak ordea. Hirugarren zaku handia munduko idazleena bezain zabala, literaturari buruz idaztea izan da. Metaliteratura egin du. Unibertso literario guztiz zabala du. Lehen biek bere biografiarekin dute zerikusia, eta hirugarrena bere unibertso literarioo zabala litzateke.

Literaturan, batez ere, lau genero landu ditu

1. Saiakera laburrak: genero berezia. Hemen, gehiena literaturaz idatzi du.
2. Nobelak eta ipuin liburuak: nobela nagusia "lagun izoztua". Ipuin liburuak 180-1990 artean 3 liburu garrantzitsu argitaratu zituen. Egun horiek batuta dauzkagu *Narrazio guztiak* (1976-90) deitzen den bilduma batean.
3. Poesia: genero guztietatik garrantzitsua autore hau euskal literaturan poesiagatik da. Bere genero azpimarratuena kalidadeagatik poesia da: *izuen gordelekuetan barrean* (1981). *Eguberri amarauna* (1983) (alde batetik poemak eta bestetik kartzelako eguneroko kronika moduko bat), *Marinel Zaharrak* () eta *Gartzelako poemak* .

kartzelako tematikari lotuak hirurak. Beraz, militantziarekin eta kartzelako esperimeentziarkein dute zerikusia, eta konponente ideologiko nagusia dute.

Berak irakurritako testuen itzulpoenak interpretazioak: *izkiriaturik auritu ditudan ene poemak* (1985) eta *Hezkurrezko xirulak* (1991)

Hnuy illa malah yahoo (1995) (ere ibilbide poetikoaren bilduma bat da; titulo terrible hori emateak bere poesia garrantzitsuari esan nahi du ez diola merkatuari, ordurako bai baitaki nahikoa izen baduela berak izen bitxia jarriker ere salduko duela ; bilduma ordenatu bat da, atal desberdinak ditu. Bi edizio eduki ditu. 2013an editatu zuenean aldaketa batzuk, baina ez dio esanahiari eragiten. Gehitu egiten ditu gauzak, baina poemaren idea ez du aldatzen. Garrantzitsua liburuaren zein ataletan dagoen. Liburu horretan *Gure arbasoak* atalean sartu zuen. Hemengo poema guztiak eusk. literaturari buruzko hausnarketak dira. Beraz, *poesiaren gauza galdua* ez dago isolaturik, lotu behar da beste testuekin batera, euskal literaturaren historiaz pentsatzen ari den atala da, eta beste testu horiekin konekta ditzakegu: Etxepareri, Oihenart, Matalaz...-i buruzkoak, batzuk. Beraz, aurreko sasoiakoei buruz hausnartu du eta garaiko poetei buruz proposamena egiten du. Aurreko poetak komentatzen ditu: *gure arbasoak* deitzen die, eta euskal aurreko idazleak dira. Arbaso deitzen die, eta beraz, euskal idazleen genealogia irudikatzen du, senidetasuna euskal idazleen artean. Etorkizunari eta garaikoari buruz idea bat ematen ari da testua. Atal honetako azken poema atxagari idatzitakoa da, *mensaje a atxaga*, portugesez idatzia. Azken poema honek zerikusia du Obabakoak liburuarekin. Poema idaztean Obabakoak-en eraginaren baitan idatzia dago.

Berrikiago

- *Hau da ene ondasun guztia* (2000): bere testuak abestu dituzten abeslariarekin batera egindako edizioa. CDa egin zen bere poemak grabatu dituzten abeslariarekin, eta horiekin egindako CD horretan zenbait poema daude berak errezitatuak. Hemen planteatzen du hau dela berea poesia, eta nobelara igaro.
- *Hilda dago poesia?* (2016): lehen aldiz edizio bat egin zuen euskaraz eta gaztelaniaz. Antologia elebiduna da, ordurarte bere testuak soilik euskaraz argitaratu direlako eta ez duelako itzulpenik egin. Liburu honen itzulpenak gaztelaniaz eta euskaraz egindako edizioa da.

Obra aipagarrienak: *izuen gordelekuetan barrena* eta ... *yahoo*.

Itzulpenak ere ugari egin ditu. Horri buruzkoa da Sarriri buruz egindako lehen tesia (Aiora Jakak).

IZUEN GORDELEKUETAN BARNA (1981):

1. Etiopiatik gertu dago.
2. *Pott* taldeko kideak zirelako biak eta formulazio berri eta garrantzitsuak egin zituztelako.

Bi hitzurre ditu: lehelengoa, hitz lauz idatzita dago eta bigarrena, hitzurre literario bat da **Bitakora kaiera** izena duena. Bere ideia literarioak dira. Itsas bidaia baten metafora dauka bere bihotzean. Bidaiaren kronika da *bitakora kaiera*. Lehen poemari izen hori eman zion. Liburuaren egitura: egunkari modukoa (bidaia liburu baten kronika). Bidaia ez da benetako itsas bidaia, ezpada bidaia imaginarioa literaturan zehar. Horrek esan nahi du EHatik abiatzen den bidaia dela eta munduko lite. ezagutzera doala, baina Europatik ez da ateratzen. Bidaiatu: Paris, Praga... Ibilbide horretan bere idazle miretsiak daude. Singladurak (geraldiak) daude bidaian, eta Sarriren poeta maitatuak dauden geraldak dira; Pragan Kafka, Irlandan Yeats edota Parisen surrealista, Rimbaud eta baita Mirande ere. Ez da itsas.bidaia erreala, ezpada imaginarioa, itsasontzia gehiago da hegalaria benetazko baino (parisen eta pragan itsasorik ez).

Modu horretan berari gehien interesatzen zaion poesia barneratzeko eta asimilatze ahalegina egiten du, eta horregatik da hain garrantzitsua. Euskal lite. aberasteko ahalegin handia egin zuelako da garrantzitsu, bere ustez euskal lite. munduko literaturak zituen zenbait gauzaren faltan baitzegoen. Bidaia egin zuen aberastasun ekartzeko.

Ibilbide horretan bere literaturako ezaugarri garrantzitsuenak: intertestualitatea eta metaliteratura. Ondorioz, kulturalismo marka handia. Horregatik, poemetan dauden erreferentzietan dago klabea ulertzeko.

→ **Gereziak jateko sasoia:** poema guztia gereziak gora eta behera. Gerezien zailtasunaz dihardu, fruitu delikatua dela.

Jean Baptiste Clement-ek *Le temps de erisses* idatzi zuen. Bi tituluak bertsuak dira. Hitz egiten ari da gereziez, baina hitz egiten ari da Clement-ek egindako testuen bitartez. Ahalegina egiten du mendebaldeko diskurtsoen artean euskal elementua sartzea, eta hori gure literaturan integratzea.

Clemanten testua (1968) bizitzaren zelebrazioaren kantua da: udako festako zelebrazioez hitz egiten du testuak. Testua sortu zenetik 5 urtera Parisen mugimendu iraultzaile *La comune*-kin identifikatu zen, iraultzaile libertarioek kantatu egiten zutelako 1971ean iraultza. Iraultza libertarioak 2 hilabete t'erdi iraun zuen, eta indarrez bukatu zuten. Ondorioz, egun ere kantu honek iraultzaren kantua izaten segitzen du. Askatasuna edo libertarioa den mugimendua.

Gerezien etorreraz diharduenean Sarrik, beraz, badakigu zertaz diharduen: *inon gerezirik ez da ikusten* → amestu dugu iraultzarekin, baina ez dator, ez da ailegaten. Badakigu zertaz ari den hitz egiten Clemant dakigulako. Hori da kulturalismoa.

→ **Lehendabizi ortzea izan zen:** lehenengo liburukoa: *izuen*... Elementu kulturalistak:

- Lope → Lope de Agirre (el loco / el traidor): Lope adierazita estatuaren kontrako haserrea eta rebelamentua adierazten du, pertsona horrek hala egin baitzuen. Hemen gerezienan baina gordeago dago erreferentzia, lehenago idatzia delako. Garai

honetako beste autoreek ere aipatzen dute (Atxaga, Aresti), euskaldunek errebelamendu ikono bezala hartzen dutelako.

→ **Gutariko bat:** exilioari buruzko tematika dela dirudi. Exilioaren eternizitatea.

- Juan Sebastian → Elkano. Euskal bidaiarien artean mitikoena. Kontua kokatzen du kontestu batean: erregearen zerbitzuan dago baina piztia da eta biziraun zuen. Sarrik hau idaztean adierazten du pentsatzen duela bere kantak iritsiko direla EHra baina bera ez dela iritsiko. Elkano, Lope, Konre, eta Clemant.

BEHIN bere lehen liburuaren zikloa pasata, kartzelako zikloa. Kulturalismoa dominantea goran, baina hemen militantziak garrantzia gehiago eta literaturarekiko lilurka... behera.

l

→ **Amodio protopoema:** maitasun poema. Errealitatea da: kartzelan dago bakarrik. Metafora_: altzairuzko hatzamarrak. Poema gogotsu bat egin. Kulturalismoa ez da ikusten. Bigarren lerroan, amodio poema dela esaten duenean kuña kulturala sartzen du. Erromantikoa esaten duen puntutik dago kulturalismoa.

→ **Hnuy illa nyha majah yahoo.** Titulua zita bat da, Swiftek idatzitako *Gulliverren bidaia*. Naufragio baten ondorioz irla batean bukatzen du. Zaldiak daude irlan eta oso animalia nobleak dira, elkarren artean hitz egiten dute. XIX. mendean kokatzen da. Hizketa elfikoa dago idatzita: zaindu zaitez laguna esan nahi du izenburuak.

Poesiaren funtzioaz ari garelarik: poesiaren funtzio sozialaren ikuspegia aldatu egin da Sarrionandiaren ibilbidean zehar: Eguberrietako amarauna libruan Brecht aiatzen du eta haren “sasiu txarrak lirikarako” baina poesiarako sasoi guztiak txarrak diela dio, eta badaki pertsonak abestu egin behar dutela: pertsonak bere nahiak espresatu egin behar dituela, beharra dutela.

Geroztik esperimentazioaren amaiera. Errealitatearekiko kontakku gordinak eraman zuen lite eta konpromisoaren arteko elkartzeko hori saiatezra. Gure testuan, konpromiso elementua ikusi egiten da, testuan inplikaturik dago.

Bitakora kaiera: idazleek beldurrez idazten dutela dio, eta berak, bidaia eginik, haren antsietate eta beldurrez jabetuz, horiek euskal litera ekarri. Bidaia desnoratua da, ez daki nondik eta nora, zer aterako duen. *bidaztiak* hitzak pista handia ematen du: Lizardi eta Lauaxetaren moduko bidaia literarioa hitz egiteaz.

Bere enuntziarioa guztiz desberdina (baita gure testuan ere): Lizardie eta Lauaxeta are gehiago epikoa da, bidaian gauzak deskubritu konkistatu eta ekarriko ditugu. Sarrik ez du epika ikusi, ez du Lizardik aipaturiko lilura eta gauzen edertasuna ikustne. Bere posea melankolikoa dela ikusten dugu, aldeztu aurretiko etsipenez. Neurri batean, esperimentazio hauek melankoliko eta etsipenez blaituta daude. Errealitatea absurdo zaio. Ibilbidean

sentsualitatea ere badgo. *ingurubila* ('laberintoa')ren irudia portadan jarri zuen. Kafkaren unibertso basurdoen eragina nabarmena da,

Enuntziazio inziertoa, melankolikoa, pesimista baina insistentea.

SARRIREN GAI NAGUSIAK NOLA AGERTZEN DIREN TESTUETAN:

1. testua: *Sustraiak han dituenak*

bere lehen ibiruko (izuen lekuetan barna) testu karakteristikoa. Elementu kulturalista zuzenean zita bat: Nekez uzten du bere sorterrria sustraiak han dituenak (itzulpena). Ideia horretaz hausnarzen du. Hau idaztean ez daexiliatua, idazle bat da Bilbon, eta argitaratzean kartzelan dago. Baina exilioa tema literario bezala tratatzen du. Gai hori, beraz, bere obran dago exiliatu klandestinoan izan baino lehen. GAIA: EXILIOA.

EGITURA: hasiera eta bukaera ia berdinak baina tartekoak batasuna. Batasun horretan ispilu bezala dira, baina ispilu deformatua, eta tartean garapena dago. Formulatu du gaia, ondorioztatzen du ia gauza bera esanez, eta tartean gai hori garatu.

Elementu anaforikoak: *nekez uzten du* lau bider esanda erritmoa egiten du, errepikatutako egitura morfosintaktikoak erritmoari laguntzen dio. Errimek dagokienez, ez dago errima estruktura bat, baina hori ordezkatzeko beste elementu erritmikoekin (anaforak eta hasiera eta bukerak). Beraz, testuak badauka egitura erritmikoa.

Bestalde, zerrenda dago, eta zerrendako elementuak ez daude lotuta kopulatibaz edo adbersaribaz. Bat besteari atzetik daude jarriak, beraz, enumerazio modukoa. Zerrenda dagoenean beti pentsatu behar goitik behera ala behetik gora doan (klimaxera ala anti-klimaxera).

TROPOAK:

- lehenengoa metafora: ez badute botatzen arbolak ez du bere lurra uzten.
- Bigarren metafora: biolentzia, gorputzari eragiten diona. Gorputzeko atal bat erazteaz ari da. Gordintasun gehiago dauka lehenengoak dago. Gure kontra egindako indarkeria.

Lehenengo bi hauek bi irudi: sustraiaren erroak moztuta eta begi-niniak aterata.

Naturako elementuak aipatzen hasi da; harearen eta basamortuarne eta itsasoaren eta kresalaren arteko harremana: ezin dira separatu, elementu kosusentzialak. Eduki aldetik gero eta inposibleago diren banaketak ari da egiten.

Gero eta elementu abstraktuagoak aukeratu ditu. Separagarrietatik separezinetara, konkretutik abstraktura; zerrenda horrela egin du. Pasarte honetan ilustratu egin du lehen idea (irudiak erantsi dizkio); irudien bidez garatu du; ez dira konparazioak, baizik eta metaforak. Ez du klimax batean bukatzen, beraz klabea buka-bukaeran.

Lehenengoa; esapidea, esan nahi duena; ez du uzten bere sorterrria.

Azkenekoa: bere sorterrria sufrituz, nekez...

